

Gernikar emakumeak XX. mendean

Ahotsak eta Bizipenak

Gernikar emakumeak XX. Mendean:
Ahotsak eta Bizipenak



mujeres

Hitz bi.

Ikerketaren metodologia.

A. EMAKUMEAK EGUNEROKOTASUNAREN ESPARRUETAN

Familia

Sexualitatea

Erljioa

Hezkuntza

Lana

B. EMAKUMEEK HERRIAN EGINDAKO EKARPENAK

Politika

Gizarte Mugimenduak

Arteak

Kirola

D. EMAKUME BEGIRADAK BONBARDEOAN

Hitz bi.

Ekimen honen bidez, XX. mendeko gernikar emakumeak ezagutzeko ate bat zabaldu nahi dugu, herriko protagonista ahaztu hauei omenaldi xume bat egin euren izenak eta aurpegiak berreskuratuz. Gure amak, amumak eta berramunak ezagutu, gure herria ere hobeto ezagutu ahal izateko.

Izan diren sujeto aktibo moduan berreskuratu nahi izan ditugu, gure historia, ikuspegi berri batetik ikusteko aukera eskeiniz. Honetarako iturririk preziatuena erabili dugu, emakumeen ahotsa. Hainbeste urteetan isilik mantendu den emakumeen ahotsa.

Beti pentsatu dut herri batean eta herri baterako egiten diren gauzak herritik sortu behar direla eta horregatik, herriko talde eta jendearen partehartzea eskatzen zuen lana esku artean nuela argi nuen. Hasierako ideietako asko ordea, bidean utzi behar izan ditut, hauen artean, oso interesgarriak ziren emakumeen elkarrizketak edota artxiboen azterketak.

Gernikar askok eskeinitako laguntza ezinbestekoa izan da. Hasteko, lan hau egiteko aukera eman didatenei, Iratxe eta Nereari, bidean lagun izan ditudan guztiei eta bereziki euren testigantzekin liburu hau posible egin duten emakumeei. Eskerrik zintzoenak eman nahi dizkiet denei. Eskerrik asko.

Emakume gernikarren historia berreskuratzeke lehenengo pausu txikia eman dugu, ez daitela azkena izan.

Andrea Aiape Arbe

Aurkezpena

Proiektuaren ezaugarriak

- Emakumeen historia XX. Mendean
- Esparru guztiei gainbegirada
- Lanaren antolaketa gaita. Zergatik atal bakoitzean garrantzia elementu konkretuei
- Maila ekonomiko eta sozial guztietako emakumeak
- Iturri desberdinak. Ahozko iturriaren garrantzia
- Zailtasunak: Informazio asko baina antolatu gabea. Esparru batzuetan zailtasun handiagoa...
- Euskarazko lana baina iturrietan erabilitako hizkuntza errespetatuz. Erdarazko testigantza zatiak edota libruetako aipamenak erdaraz.
- Atal askotan erabilitako izenak=eredua. Ezin emakume guztien izenak ipini.
- Estetika eta helburuaren arteko lotura

EMAKUMEAK
EGUNEROKOTASUNAREN
ESPARRUETAN

Atal honetan, edozein emakumeren bizitzan dauden esparru desberdinak aztertu nahi izan ditugu, mende hasierako gizarte tradizionaletik gaurko egoerara ibilbide bat osatuz.

Lehenengo esparrua, familiarena da. Familiaren biziraupena, emakumearen ardura izan da mende osoan zehar. Etxeko lan gogorrak, umeen zainketa, etxeko ekonomiaren gestioa eta abar luze bat egunero burutu beharreko lanak izan dira. Baina gizarterako funsezko lana bete badute ere, ez zaie inoiz onartua izan.


Familiaren atzean, emakumeen bizitzan eragin handiko bigarren esparrua, sexualitatea izan da. XX. mendean zehar, moral patriarkal eta erlijioso zorrotz baten ondorioz, emakume askorengan harreman sexualekiko ezjakintasuna, lotsa, antsietatea eta beldurra izan da nagusi. Duela gutxirarte mantendutako errealitate hau, pixkanaka aldatu da hezkuntza mailan burututako esfortzuari esker.

Aztertutako hirugarren esparrua, erlijioa izan da. Emakumeen bizitzan erlijioak izan duen garrantzia handia izan da. Erlijioan oinarrituriko moralaren parametroetan bizi izan dira emakumeak. Gernika gainera, bereziki katolikoa izan den herria izanik, elizaren inguruan antolaturiko emakumeen kopuru handia ere azpimarrtu beharra dago.

Lehenengo atal honetan azpimarratu nahi izan dugun laugarren esparrua, hezkuntzarena da. Hezkuntza sisteman goi mailetara heltzea, XX. mendeko emakumeen lorpen nagusien artean dago. Lehenengo nesken matrikulazioetatik, gaur arteko errealitatera garapen handia eman da eta honen inguruko hausnarketa egiten saiatzen gara.

Eta amaitzeko, atal honen barruan dagoen azken esparrua aztertzea ezinbestekoa izan da, hots, lana. Emakumeek beti egin dute lan. Hori zerbait nabarmena da. Baina eurek buruturiko lanpostuak edo jasandako lan baldintzak ez dira baloratuak izan. Hau dela eta, emakume langileen ahotsak berreskuratzeko saiakera egin dugu azken esparru honetan.

FAMILIA



BASERRITAR FAMILIA: argazia 1

FAMILIA

Mende hasierako eredua, familia tradizionala (1900-1930)

Mende hasieran, balore tradizionaletan oinarrituriko familia zen nagusi. Etxearen eta umeen ardura emakumeena zen eta familia ugarien nagusitasuna zein etxeko lanen gogortasunak emakumeen bizimodua guztiz baldintzatzen zuten. Emakumeek gogor lan egin behar izaten zuten familia aurrera atera ahal izateko. Egunero sua prestatu, bazkaria egin, ura eramane, arropa garbitu, josi... Honetaz gain, seme-alaben zainketa ere bere esku zegoen eta kontutan izanik familia ugariak zirela gehienak, ez zen lan erraza. Familiaren biziraupena ziurtatzeko, etxetik kanpo lan egiten zuten emakume gehienak, baserritarrak euren produktuak saltzen, fabriketan, komertzioetan...

Dena dela, ezin dugu eredu bakar bati buruz hitzegi. Alde batetik baserritar eremuaren eta kaletarren arteko bereizketa egin behar dugu eta bestetik maila sozialen artean zeuden desberdintasunak ere azpimarratu behar ditugu.

Familia motak

Herriko biztanleriaren zati handi bat baserrietan bizi zen. Familia baserritarretan, emakumeek etxean lan egiteaz gain, soroan ere egin behar izaten zuten lan, familia aurrera atera ahal izateko. Gainera, Gernikara hurbiltzen ziren euren produktuak plazan saltzera. Etxe eta umeen zainketan, alaba nagusien laguntza ezinbestekoa zen eta hauek gazte gaztetik ikasten zuten gogor lan egin behar zutela familiaren bizi iraupenerako. Baserrietako alabak eskolara, josten ikastera edota neskame ere, herrira hurbiltzen ziren. Gerora, hauetako asko, Gernikan ezkondu eta hemen geratuko dira. Gernikako kaleetan bizi ziren langile familietako emakume gehienak ere, etxeko lanekin batera kanpoan lan egin behar izaten zuten, baserritar familietan bezala, alaba nagusien laguntza ezinbestekoa bilakatzen zelarik.

Gizartean baserritarrak eta langileak nagusi ziren baina komertzioak ere, indar handia zuen Gernika-Lumon. Herriko kaleak, komertzioz josita zeuden mende hasieratik eta honek bizi handia ematen zion herriari: *ultramarinosak*, arropa dendak, tabernak, jatetxeak, okindegiak... Negozio propioa zuten familietan, kide guztiek lan egin behar izaten zuten bertan eta, askotan neskameak kontratatzen zituzten etxean edota komertzioan laguntzeko. Familia, denda edota lantegiaren

inguruan biltzen zen eta ez zen arraroa komertzioaren atzekaldean jateko eta lo egiteko lekua ere egotea.

Gernikan, familia aberatsak ere bazirela esan beharra dago. Familia hauek, industriaren inguruan biltzen ziren. Hauen ezaugarriak oso desberdinak izan arren, desberdintasun guztien artean azpimagarrienetarikoa, emakumeen papera izango da. Aita izaten zen etxetik kanpo lan egiten zuen bakarra eta oso lanbide konkretua izaten zuen: medikua, industrial, abokatua eta abar. Normalean, emakumeek ez zuten eginbehar handirik. Ez zuten etxetik kanpo lanik egiten eta etxean zerbitzari ugari izaten zituzten etxeko lanak burutzeko. Bere eginkizunak beste mota batekoak ziren: ospakizun sozialak, benefizentziako taldeetan partehartzea... Emakume hauei egotzitako eginkizun nagusia, garaiko emakume eredugarriak izatea zen.

Jaiotze tasa

Emakumeen bizitza gehien baldintzatzen zuen faktoreetako bat jaiotze tasa altua zen. Antisorgailuen erabilera ezak, etengabeko haurdunaldiak izatera derrigortzen zituen emakumeak eta medikuntzaren garapen eskasak gainera, emakumeen hilkortasun tasan eragin handiko elementua zen. 2

“Mi madre dice, que cuando se casó le dijo a la abuela: “Mira ama, yo me caso pero no voy a tener tantos hijos como tú” “¡Ai umie! Ikusikozu ezkonduen zarenien...”. Mi abuela pensaba, pues cada año uno... esta piensa que no pero va a tener.” 3

Familiako kideen arteko harremanak

Seme-alaben arteko bereizketa oso definitua geratzen zen txikitatik, alabak amaren papera hartzen zuen eta semeak aitarena, etxeko buruarena. Honek etxeko harremanak definitzen zituen. Gai seriorekin bat hitzegin nahi izanez gero, lehenengo amarekin hitzegin ohi zuten seme-alabek aitaren aurrean bitartekari lanak egin zitzaizkien. Aitari errespetu handia izaten zitzaion. Ezin dugu aipatu gabe utzi, garaiko familietan hiru belaunaldi bizi zirela, aiton-amonak, gurasoak eta seme-alabak.

Ezkontzak

Ezkontzei dagokionez, gurasoek hitzarturiko bikoteen ohitura oso hedatuta zegoen klase guztietan eta interes handiagoa zuen bikotearen maila sozialak, maitasunak baino. Ezkontzen helburua, bizi iraupena eta maila sozialaren hobetzea izaten zen eta honek eragin zuzena zuen familiaren bizimoduan. Baserritarren edota langileen arteko ezkontzetan ere, kontutan hartzen zuten faktorea zen honako hau.

Normalean, familiakoen presentziarekin soilik ezkontzen ziren eta gero bazkari bat egin ohi zuten etxean. Eztei bidaian inguruko hirietara joatea ze normalena, Donostira edota Bilbora. Familia aberatsetan Madrilera joatea ere, ez zen arraroa izango. Dena dela, oso arrunta zen eztei bidairik ez egitea aukera ekonomikorik ez zegoelako edota arratsaldea pasatzen edota antzerkira Bilbora joatea. Ezkontzekin loturik esan beharra dago, emakume bat alargun geratuz gero, betiko izaten zela.

“Alargundu ezkeror orduen, betiko izaten zen” 4

“Gure tia hil arte bizi izan zen beltzez, hainbeste urtetan...” 5

“Baten bat hiltzen bazan etxien baltz, baltz, baltzik hainbeste urte” 6

Etxea

Etxebizitza mota, familiaren egunerokotasuna definitzeko balio handiko elementua da. Gernika-Lumon gailentzen zen etxebizitza mota baserria zen. Baserriak handiak ziren bertan babestu behar baitziren, bai familiako kideak, eta baita animaliak ere. Goiko solairuetan logelak egon ohi ziren eta beheko solairuan gainontzeko gelak eta korta. Etxean zituzten altzari eta tresnei buruz zera aipa daiteke, ezinbestekoa zena soilik erabiltzen zutela. Normalean belaunaldiz belaunaldi igarotako altzariak mantenduko dira baserrietan.

“Etxietan muebliek antxiñekoak izaten ziren, amumanak eta izanekoak.” 7

Argazkia: baserria 8

Elikadura

Elikadurari dagokionez, Gernika baserriz inguratua egotearen garrantzia azpimarratu behar dugu. Baserrietatik ekoiztutako barazki eta frutak oparotasuna ematen zien gernikarrei zentzu honetan, beste herri askotako egoerarekin parekatuz. Dena dela, garai guztietan bezala, aberastasun ekonomikoaren menpe zegoen produktuen erosketa. Itsasoaren hurbiltasunak, arrain freskoaren ugaritasuna ere errazten zuen. Baina urte osoko elikaduran garrantzi ukaezina izango duen animalia txerria izango da.

“Jan be oingo moduen ez zan eiten. Taloa, ta taloa... Txerrixek urde mehie eukitzen bien “urde mehie dekona txerri txarra!”. Aintxinako txerrixe hiltzen zanian urdaixek holakoak izaten ziren at urde mehie eukiten bien txerrixek, txerri txarra! 15 zentimetrotako urdaixe ataten zanian ama pozik! A urdai txurixe!” 9

“Tripiegaz einje patata prijidute lapikoan ta goxo egoten ziren ganera!” 10

“Zezinie eiten zan etxien. Txahala hiltzen zan ta gazunezkixe deitzen zan kaja baten gordetzen zan. Izaten zan kaja bat zementoz edo einje ta txahala hiltzen

zanien gatz asko asko askogaz alzan moduan ipinie, gatz inpernukoa! Gero makileu bihar ta halere gazi! Oin ere saltzen da pernile zezine moduen. Lehen etxien eiten zan.” 11

Errepublika eta gerra (1931-1939)

Errepublika, aldaketak ikusmugan (1931-1936)

Errepublikarekin, aurreko urteetan hirietan ematen hasiko diren aldaketak zabaltzen hasi ziren. Maitasunezko ezkontzak ugaritu ziren eta 1932.an *Ley del Divorcio* delakoa onartu zenean familia ereduari dagokionez, askatasun maila handiagoa lortu zen. Sektore katolikoak ordea, Errepublikak bultzaturiko neurri eta aldaketa hauen kontra agertu ziren eta ezkontza eta familia tradizionala aldarrikatuko ditute. Euskal Herrian, 1932 eta 1933.an 200 dibortzio soilik tramitatu ziren eta estatuan 10.000 biztanletik 3,2 bikote banatzen baziren, Euskal Herrian 1,5era bakarrik helduko dira. Dena dela, Bizkaiko datuak ez ziren hainbeste urruntzen Estatuko datuetatik, banatutako bikoteak 2,6ra heltzen baitziren. 12

Gernikan kasu bakan batzuk ezagutu baziren ere, familia tradizionalaren nagusitasuna argia zen. Emakumeak familian bete behar zuen paperari dagokionez, sektore tradizionalenak etxeoandrea on, fidel eta langilearen eredia aldarrikatzen zuten. Herrian nagusiki onartutako eredia hori izanik ere, emakume askok lanean jarraitu zuten familiaren biziraupena ziurtatzeko.

Gerra eta bonbardaketa (1936-1939)

Bonbardaketaren ondorioz familiak sakabanatuak geratuko dira. Gizon eta mutil asko hilda, kartzelan edota zaurituak, ume asko atzerrira ebakatuak eta orokorrean familiak etxerik gabe. Emakumeak familia aurrera ateratzen saiatuko dira euren esku egongo diren, eta egongo ez diren, baliabideekin. Etxerik gabe, senarrik gabe, janaririk gabe, kasu gehienetan ezer gabe geratuko dira gernikarrak. (Ikus bonbardaketaren atala)

Frankismoaren adoktrinazioa, emakumeen kondena (1940-1975)

Erregimen berriak, egitura hierarkiko, erlijioso eta balore patriarkal hertsietan oinarrituriko familia eredia ezarri zuen. Errepublikan onartutako aurrerapausuak bertan behera geratu ziren, hauen artean dibortzioaren legea eta ezkontza erakundea donetsi zuten. Legea indarrean egon zen

urteetan, emandako legezko banaketak eta egondako bigarren ezkontzak deuseztu eta ezkontza zibilak erlijioso bihurtuz formalizatu zituzten. Gizartean eta familia askotan ondorio latzak izan zituzten neurri hauek.

Familia, gizartearen oinarria eta balore frankisten trasmisiorako gunea

Estatu frankistaren ideologiaren gordailua izan behar zuen familia eta beraz, honen ardura bereziki emakumeari zegokiola uste zuten. Gizarteko baloreen transmisio zuzena beraz, emakumearen esku geratzen zen baina beti gizonaren menpe agertuta. Emakumea, adimenik gabeko gizakia zen eta gizonaren gidaritzapean bakarrik aurki dezake bide zuzena.

“Yo pa mi que fue un retroceso después de la guerra. Mi madre y de jóvenes en la República yo creo que eran más abiertas y tenían otra mentalidad. Y luego la religión también fue un freno muy grande... mucho más conservadoras.” 13

“El miedo, el ambiente...” 14

Emakumea eta gizona. Eginkizun desberdinak

Sexuaren araberako funtzio eta paperen banaketa zehatza bultzatu zuten familien barruan. Aita, etxera dirua eramaten zuena zen eta ama, etxea eta umeak zaintzen zituen. Aitak hartzen zituen *erabaki garrantzitsuak* eta ama, etxeko arazoak konpontzeaz arduratzen zen. Aita, gogorra eta serioa zen eta ama aldiz, sentibera eta ulerkorra. Gainera, emakumeak familiako ohorearen sinbolo ziren. Emakume errespetagarriak zituen familia, errespetagarria zen. Hau dela eta, gizonen eginkizuna ez zen emakumeak babestea, baizik eta hauen ohorea babesteko honen gaineko kontrola ezartzea. Elementu hauen menpe geratzen ziren familiaren baitan sortzen ziren harremanak.

Familiako kideen arteko harremanak

Emakume eta gizonen arteko harremanak menpekotasunean oinarritu zituzten, eta gerora, bai gizartean bai familian, agerian geratuko diren arazoen sorburua haxe izango da. Gizarte berria eraikitzeko, ezinbestekoa izango da emakume eta gizonari atxikitutako eredua zabaltzea. Honetarako, dinamika sakon eta intensiboa martxan jarriko dute. Alde batetik elizetan zabalduriko

mezua, bestetik euren ideologia eskoletako edukinetan txertatzea eta azkenik *Sección Femenina* taldeak burutuko duen herriz herriko lanean.

Adoktrinazio basatiaren ondorioz, botereak lortu zuen gauzen artean, emakumeengan besteen onerako eginbeharreko guztia betetzearen ideia zabaltzea izango da eta honekin guztiz loturik agertuko den errudun sentimenduaren barneraketa. Etxeko lanei dagokionez, emakume gehienak, etxeko lanak euren ardura zirela dudan jartzen ez badute ere, emakumeen zerbitzari paperaren kontra agertzen dira eta famili askotan gizonak zuten agintari paperaren kontra.

“Maixe ipinten genduan ta “ekarrixu ure”ta altzeu uren bila...” 15

“Lehen andrak beti gizonari ondo eitten... harexeri serbidu, harexeri ein...” 16

“Eskerrak gure aite holakoa zan, ze beno, ostantzien be, estomagotik ibiltan zan txarto ta ez zan tabernazalie izan, baia esan gure dot gizonak generalien eurak tabernatara joan ta andrak han, suan ondoen, etxien beti.” 17

“Ta ezer esan behartzienik pez!” 18

Nebari eduki behar zitzaioen errespetuari buruz, emakume askok hitzegin dute. Hau horrela izanik, aitari eduki behar zitzaion errespetua nolakoa izango zen pentsa dezakegu. Zentzu honetan, ama eta aitaren artean zegoen diferentzia aipatzen dute emakume batzuk.

“Aizta, amak pasetan ban baia aita bazeuen etxien masparra euki gendun ta han mahatsa atzetik kuartora aita ikusi ez dotzon!” 19

“Amagaz konfidantza geixau, aitegaz ez! Aite jueza!” 20

Etxeko emakumeen aurrean gizonen eginbeharretako bat, ama eta alabak zaintzeko ardura betetzea zen. Zaindu horrek ordea, askotan emakumeen askatasunaren zaindari izendatzen zuen gizona.

"Mutile etxien euki bienak, ene... ama atien! Kortatik paseu ze nebiek atie itxitxen ban baia gero nebie ezkondu zan ezkondu behar izan balako ta honek ezkondu zien bidan moduen ta bidan moduen beti segidu. Nebie beti izan zan formala ta bestiek fama txarrekoak ta amak kortatik eroaten bazan, zera, berandutxu badatozen... kanpotik, kortatik... Ta nebieri errespetoa! Ta nebie gero urten zan txarrau eurek baino!" 21

"Nebieri errespetu handixe!" 22

Familia bakoitzean egoera desberdina izaten zen baina gizonari izaten zitzaion errespetua batzutan beldurra ere izaten zen. Zentzu honetan, beti izkutatuta mantentzen saiatu izan garen errealitate bat agertzen da esaldi solteen atzean.

"Ta gero holantxik joaten ziren mozkortixek ta harek gaiztoak... ta ezkuteu ta dana eiten ziren harek etxera datozenien! Ta jota edanda dauzenien gaiztoak, batzuk..." 23

"Gizonak entzuten ziren lantzian batek zelan jotzen daben andrie..." 24

"Baina orduen inork ez ban esaten ezer ta aurrera!" 25

Garaiko diskurtsoaren arabera ordea, gizonaren jarrerak jasan behar zituzten emakumeek, justifikatuak baitzeuden.

*"en un matrimonio normal siempre será la mujer la que tenga que hacer más concesiones"⁶² CARNOT, Edith, *El libro de la joven*, 26*

*"la que no soporta un mal genio o una cara hosca, o una contestación desabrida, la tenaz en sostener su punto de vista, está condenada a sufrir mucho"⁴¹ ENCISO VIANA, Emilio, *¡Muchacha!*, 27*

Amatasuna

Guda eta gero, garrantzi handikoak izan ziren erregimenak bultzatu zituen neurri populazionistak. Berreskurapen demografikoa lortzeko, amatasunaren gorespena bultzatu zuten eta umerik gabeko emakumea, bizitzan helbururik gabeko emakume moduan aurkeztu zuten.

Filosofia hau dela eta, haurdunaldiak ekiditearen kontrako politika nagusi zen eta emakumeak etengabeko haurdunaldiak izaten zituzten. Normalean lanean egoten ziren azken momenturarte eta medikua ez zen beti garaiz iristen partora. Zentzu honetan, emaginen lana azpimarratzekoa da. Aintzinatik aritu dira emakumeak emagin. Normalean edadeko emakumeak izaten ziren eta esperientzia handikoak. Umeak mundura ekartzen laguntzen zuten haurdun zeudenen etxean edo haien gurasoen etxean. Bestela medikuaren laguntzaile lanak egiten zituzten. Lan ederra bezain gogorra zen bere garaian ogibide hau.

Gernikan, mendearen zati handi batean, emagin lanean jardun duen emakume baten izena dugu honako hau: **Eugenia Idoiaga**. Piedad izeneko emakume bat ere aipatzen dute elkarriketatutako emakumeek baina izena besterik ez dugu lortu. Beste izen bat ere, ezaguna da Gernika-Lumon emagin lanetan jarduteagatik: **Agustina Kareaga**. Agustina, mendearen bigarren erdialdean ibili da emagin lanetan. Berez, praktikante ikasketak burutu bazituen ere, emagin lanak ere egiten zituen. Bere hitzetan, eskuak ziren umea ateratzeko tresna bakarra eta honek min handia eragiten zion emakumeari. Emakumea taula edo mahaiaren gainean kokatzen zuten, eskuak izara batekin lotzen zituzten indarra egin ahal izateko eta behin umea jaiotzen zenean, zilbor hestea kotoizko hari esterilizatu batekin moztzen zuten. 28

“Guk medikue bertan euki gendun. Etxien baina medikuagaz...” 29

“ Komadronie egon zan orduen, Piedad. Medikue egon zan ta etxietara joaten zan ta komadronie Piedad zan.” 30

“Gu joaten ginen errekonoziduten ta asko joaten ziren begituten... harek eiten ban holan tripan ta beno...” 31

Eugenia Idoiaga (1895-1989)

Eugenia, mende osoan zehar gernikar belaunaldi desberdinak munduratzeko lagundu duen emagina dugu. Bere bizitzaren zati handi bat Gernikako umeen jaiotzetan eman du.

Eugenia, Domingo Alegria medikuari laguntzen hasi zen emagin lanetan. “La partera” ezizenarekin ezagutua izan zen Gernika osoan.

Omenaldi goxo bat ere eskeini egin zitzaion, bere eskuei esker jaiotakoek antolatuta, hil baino urte batzuk lehenago. 1989an hil zen 94 urte zituela. 32

Argazkia 33

Lehen esan dugun bezala, haurdunaldian, erditzean edota umea jaiotzerakoan arazoak sortzea nahiko arrunta zen. Kasu hauetan, medikura joan ohi ziren eta hauek zituzten tresnekin ahal zuten neurrian laguntza eskaintzen zuten.

“Gaixorik joaten zirenak Don Kruzenien lehenengo galderie izaten zan ia umiek bularra hartzen badeu. Berak esaten ban beti bularra hartuniko umieri berak, txarren joanda be, bilurrik ez zegoala eukitzen.” 34

“Ganera orduen ez zien egon oingo moduen klinikak eta umiek eukiteko.” 35

“Ekografiak eta pentseu bez!” 36

Medikuen artean, Dublang da elkarriketatutako emakumeen artean gehien aipatu dena. Baina beste mediku batzuk gogotan dituztenak ere izan dira.

“Dublang baino arinau egon zan Jose Mari Iturriazaga” 37

“Pediatrie egon zan. Ni egon nintzen Don Kruzenien. Zelako penie emoztan, joaten zan ta hankatatik oratzen ban konejua eiten dan lez ta holan ekegitzen ban Don Kruzek umie...” 38

Jaio berrien zainketa eta elikadurarako ohiturei buruz galdetzerakoan, bularra ematen zitzaiela argi dago. Dena dela, batzuk boteetan erositako esne berezia ere aipatu izan dute. Erositako esneaz gain, behiaren esnea urarekin nahastua ere nahiko erabilia zen umeei jaten emateko.

“Urte batien bularra ta gero biberioie baia hau baserrixen, beixen esnie errebaite uragaz. Baia behi batena beti, behi batena emoten jakon.” 39

“Nik, gizona galdu nebanien, bularra total sikatu jaten ta han andra batek esauzten berak dekola bular asko ta emangotzola, baia guk ez gendun gure izan. Gure amak esazkun ‘ein etxeko behi baten esnie hartun erantzite’” 40

“Esnie bote baten etorten zan ta, leche equilibrada, ta prepareu eiten zan.” 41

“Marca El Argón edo izaten zan.” 42

Umeak elikatzeko arazoak zituzten familietan nahiko arrunta izaten zen emakume bat kontratatzea umeari bularra emateko. Honen inguruko istorio ugari bildu ahal izan ditugu egindako elkarriketetan.

“Askotan, antxiñe, euren umie ta beste bat hartzen eben irabazteko, asko eukitzen bienak eta. Pageu eitetzien. Haregaz ze eiten zen, ba bide batez negoziua...” 43

“Ta gero harek umiek askok ez bien gure izaten joan bertatik. Gure etxien egon zan ume bat holanik hartunde ta gero aitek eta amak bere etxera gure izan bien eroan, Bilbokoa izan zan, ta derrigorrien hartun, ta Bilbora joan umiegaz, ta eskapeu bertatik zeretik, ta menditik atzera etxera etorri. Birritan ein ban, eh! Birritan! Ta gero azkenien, itxi eitzien.” 44

"Beste bati horrenbeste pase jakon. A Ondarrukoa zan ta euren lehengusuak eroan bai, baia etxean presenteu hurrengo egunien!" 45

"Gure lagune, 7 urtegaz ere entrege bien ta beste horrenbeste denboran bertan egon ta gero entregeu ein bien ta umie nun etorten den, hantxe atean... eskapaute!" 46

"Gure amari umie hil jakon ta harek ulibarriko Juantxuri emontzon bularra." 47

Umerik ez zituzten emakumeak, gaizki ikusita edota arazoren bat duten emakumeak bezala ikusita egongo dira.

"Sin hijos la mujer es un cuerpo incompleto, un alma insatisfecha, ya que es precisamente por las alegrías del amor, de la maternidad y de la familia como la mujer realiza su espléndido destino" 48 CARNOT, Edith, El libro de la joven p. 56.

Umerik ez edukitzea, emakumearen errua izango da. Baina okerrena, ezkondu gabe haurdun geratutako emakumeek pairatzen zuten. Markatuta geratzen ziren bizi guztirako, eta okerrena, emakumeek ere, erruduntasun hori barneratua izatea zen.

"Umerik ez eukitzien erluze edo esaten jakon horrer" 49

"Oilo akerra ta esaten zan be bai. Herrixetara be jakitan zan a! (umedun zegoela ezkondu gabe)" 50

Legislazioan ere, amatasuna bultzatzeko legeak onartu zituzten. 1946. ko *Ley de Ayuda a la Familiaren* bidez, etxetik kanpo lan egiten zuten emakumeei dirulaguntza familiarra kentzen zitzaien bere eginbeharra umeak zaintzea zela argudiatuz. Nahiz eta emakume asko etxetik kanpo lanean jarraituko duten, bere umeak ondo zaintzen ez dituen ama baten moduan ikusita

egoteak, emakume askok lana uztera behartu zituen. Etxekoandre eta gizon langilearen bikotearen eredua gailenduko da beraz frankismoan.

Argazkia. Emakumea umeekin 51

Ezarritako eredua jarraitzen ez zutenekiko jarrera

Adoktrinazio honi, desberdin pentsatzen zutenen kontra buruturiko errepresioa eta ondorioz nagusi zen beldurra gehitu behar diogu. Gainera, kontutan hartzekoa da garaiko gizartea oso erlijiosoa zela eta apaizak zabaltzen zuen mezuak garrantzi handia zuela. Elizak eta erregimenak gizarteko unitate natural moduan aurkeztuko dute familia eta munduko arriskuen aurrean aterpea zen. Hau dela eta, inposatutako eredua jarraitzen ez zutenak, sozialki gaizki ikusiak zeuden.

“Ezkontzen ez bazan andrazarra!” 52

“Neskazarra ta txabalie esaten zien... ta birrotsa be bai... ta igual inor baino balientiau izaten zien. Arratzun errotatxu esaten jakon etxe bat egon zan ta harek teilatua arregleu berak eiten ban ta, ta eiten ban labreu ba antxiñako moduen laiekin. Bizimodua atara ban harek inor baino hobeto baia hareri txabalie esaten jakon...” 53

Ezkontza, ez zen emakume guztiek pozik hartzen zuten etorkizuna. Ekidin ezinezko zerbait moduan ikusten zuten askok, euren bizitzaren norabidean ezarritako helburua. Dena dela, egongo dira emakumeak nahi ez zutelako ezkonduko ez direnak. Elkarrizketatutako emakume batek, senarrik ez edukitzeak ematen zuen askatasuna aipatzen digu eta bere bizitza guztirako konpromezu bat hartzearen kontrako jarrera agertzen du.

“Nik nire bizitza guztirako konpromezu bat? Por nada del mundo!” 54

Etxebizitza

Familiak handiak zirenez, askotan seme-alabak ohe berdinetan lo egin behar izaten zuten. Koltxoien inguruko oroitzapen ugari ere bildu ditugu elkarrizketetan.

“Guk 3 ohe baten eiten gendun. Esaten bien “putzik be ezazue ein!”.” 55

“Gure etxea handia izan zan ta aizpa ta biok lo eiten gendun kuarto baten ohe biten. Koltxoie lumazkoa izaten zen. Oiloa hiltzen genunien lumak koltxoire.” 57

“Lumetxa deitzen jako. Ariñau kapatzezkoa egon zan, ni ume-umie nintzala.” 58

“Gero lanazkoak hasi ziren eiten. Harek bai ziren onak leporako!” 59

Oso berandurarte ez da helduko ez ura, ez argia ere baserrietara. Etxeko tresnak oso oinarritzkoak izaten ziren eta burutu beharreko lanen gogortasuna gaurko errealitatetik imaginatzea zaila egiten zaigu.

“Ni ezkondu ta urtietara heldu zan argixe Gernikera. Argixe ipini gendun baina bonbila bi edo bakarrik, halako luzerakoak ganera! Gernike hobeto egon zan.” 60

“Hormak lodixek eukitzen bazenez baserriko etxiek, atara halako bentanatu bat, freskerie esaten jakona. Freskerie frigorifikoak izatie lez.” 61

“Gero labadora heldu zaniene jabonetakoa ta gero aklareu norberak. Plantxie be halako handi bat egoten zan, txingorrekin bete... Ta gero txapa ganiene ipinteko txikitxuek.” 62

“Guk kozina ekonomikie euki gendun nahiko arin. Ostantzien beko-sue, txapie.” 63

Neguan, etxetako lehenengo berogailuak nolakoak ziren gogotan dute emakumeek.

“La calefacción era de serrín. Había en la chapa un tubo alto que se llenaba de serrín y se calentaba. Luego la otra, la que se apoyaba en el suelo que tenía una chimenea que iba hasta el techo. En el colegio también había una de esas y luego se llenaba todo de humo y teníamos que abrir las ventanas.” 64

Elkarrizketatutako emakume batzuk, elektrizitatea heldu zeneko pasarteak ere kontatu dizkigute.

“Luz y agua hemos conocido en casa lo que pasa que ponían bombillas pequeñas para gastar menos.” 65

“No llegaba bien la electricidad. Tenía Ercilla allí en Oka y no llegaba la electricidad.” 66

“Pero las bombillas pequeñas también era normal porque no había bombillas como ahora de 100 y de ciento y pico. ¡Ni existían!” 67

Frankismoaren erdialdean, populazioaren gehiengoa herriko pisuetan bizi zen eta garapen teknikoek egunerokotasunean burutu beharreko lan asko errazten hasi ziren. Bizimodua erosoago bihurtzeko aurrerapenak etxeko bazter guztiak eraldatu zituen. Estetikari dagokionez, altzairuetan modak sortuko dira kanpoko eraginaren ondorioz. Paretetara ere aire berriak helduko dira eta lorez beteriko paperek beteko dituzte.

“Nos tocó el cambio. De no tener a empezar a haber, la lavadora que estaba pegada a la fregadera, el desagüe iba a la fregadera.” 68

“Y la chapa también. Del carbón al butano. De limpiar a mano a la lavadora esa..” 69

Higieneari emango zaion garrantziaren ondorioz, etxetako komunak aldatu egingo dira eta ura berotzeko sistemak ere, etxe gehienetara hedatuko dira.

“Yo me acuerdo que de pequeña nos lavaban en un balde grande.” 70

“En casa de mis tíos la ducha, bueno ahora se está poniendo, era de plato. Se ponía encima del plato un barreño.” 71

“En nuestra casa el baño era como los de ahora. ¡Más feo eh! Pero igual.” 72

“¡Con baldes ya me acuerdo yo de calentar el agua! Luego con la chapa también.” 73

“Luego apareció el calentador de butano.” 74

Erregimenak bultzatu zuen familiaren gorespena, etxean ere nabarituko da. Egongelak familia biltzeko guneak bihurtuko dira eta emakumea sukaldetik egongelara bidean biziko da. Familia tradizionalaren etxeetan, familia guztia sukaldean biltzen zen bitartean, oraingo etxearen banaketak ere sexuen arteko paperen banaketa islatuko du. Sukaldea emakumearen erreinua zen. Jan, irratia entzun eta telebista ikusi ordea, egongelan egiten zen beti.

Argazkia. Sukaldea. 75

“Nosotros antes teníamos comedor y veíamos ahí” 76

“Claro, eran comedores, no eran salas. Antes había la mesa con las sillas y los dos aparadores y no había sala. Una mesa grande en la mitad” 77

“En mi casa la televisión llegó en el 64. Me acuerdo porque fueron los Juegos Olímpicos y se trajo la televisión” 78

“Irratia ariñago. Horrek handixek!” 79

Logelak ere aldatu egingo dira baina oraindik seme-alaben kopuruaren ondorioz, logelak konpartitu beharko dituzte.

“Yo dormía con mi hermana. Era una habitación grande pero con dos camas” 80

“Yo me acuerdo que los colchones eran de lana, de esos que había que sacudir hasta que luego se cambiaron. Luego eran de espuma, sacaban espumitas...” 81

Frankismo bukaerako aldaketak

Plangintza ekonomiko berriek, gizarte berri baten beharra argi erakusten zuten. Efikazia eta errentabilitatearen oinarriek emakumearen irudia ere aldatuko dute: emakume tradizionaletik, kontsumitzaile ordenatura. Emakume belaunaldi berria Elizak eta *Sección Femenina*-k ezarritako emakume idealaren iruditik aldenduko da eta hauen erreferente berriak kanpotik heldutako ereduak izango dira.

Merkatuaren beharrei erantzunez, gero eta emakume gehiagok lan egingo dute etxetik kanpo eta honek, gizartean aldaketa sakonak eragingo ditu. Ordurarte etxera mugatzera bultzatutako emakumeak, kalera ateratzen hasiko dira eta aurreko belaunaldiarekiko apurketa emango da. Lan egiteko arrazoia ez da izango jadanik familiaren bizi iraupena ziurtatzea. Garai honetako neska gazteen helburua bestelakoa izango da: euren independentzia lortzen hastea. Familia askotan, bi belaunaldi eta pentsakera oso desberdinen arteko elkarbizitza zaila izango da.

Gurasoak jarrera desberdinak hartuko dituzte aldaketa hauen aurrean. Ordurarteko ohitura eta oinarri moralak disziplinaren bidez mantentzen saiatuko badira ere, aldaketa uholdearen aurrean, azkenik, amore eman behar izango dute. Dena dela, esan beharra dago, bildutako testigantzetan amen jarrerak zabalagoak izaten zirela azpimarratzen dela.

“Las madres entendían mejor que los padres” 83

“¡Yo creo que las madres eran más modernas! Mi madre era mucho más lanzada.” 84

Kontraesanez beteriko garaitik, emakume eta harreman eredu berri baten onarpen teorikora denbora luzea itxaron behar izan da.

“Gernike herri kontserbadora da e! Ni 80an ezkondu nintzen juzgadutik ba Gerniken ordurarte juzgadutik ezkondukoak eskuko hatamarrakaz! Zibiletik ezkontzie beste herri batzutan, Jesus... noiztik eitten zan! Hamen Gerniken danak eskandalizaute: enei, hau da ezkontza ha da ezkontza... Gaur fenomeno ikusten dabe gaztie batzie beste barik.” (Amagoia) 85

“Nafarroan eskola publiko batetik bota bien maistra bat gizon batekin ezkondu barik bizitzeagatik ta badaukat kontzientzia institutuan ez nebala esaten gizon batekin bizi nintzenik ze a saber ze paseuko zan! Horrek gauzak holan bizi izan doguz.” (Amagoia) 86

Emakume aske eta independente baten irudiaren balorapena aspalditik gizartean txertatutako balorea dirudien arren, gaur bizi dugun egoerara heltzeko, emakume askoren borroka

ezinbestekoa izan da. Dena dela, esparru guztietan eman beharreko aurrerapausuak oraindik ere nabarmenak dira.

“Harek famili eskema tradizionala emoten dau estruktura bat, ez dau oniño beste estruktura bat ordez ipinteko. Egon zan hor eztabaida bat baia ez dau. Nik ikusten dot zergatik pareja eta familia mailan funtzionatzen ahaleginuko die, behar izanagatik. Ziurtasun bat egongo da datozen umientzat eta zaharrentzat eta horrek estrukturak falletan badeu, eske, ezin deu gizartiek... Ta zuk nahi dozuzen guarderi guztixek eta erresidentzi guztixek baia alan da guzti be, ez dau erantzunik. Ta estruktura sendo bat ez badau, hacemos aguas!” (Mila) 87


Oharrak

- 1
- 2
- 3
- 4
- 5
- 6
- 7
- 8
- 9
- 10
- 11
- 12
- 13
- 14
- 15
- 16
- 17
- 18
- 19
- 20
- 21
- 22
- 23
- 24
- 25
- 26
- 27
- 28
- 29
- 30
- 31

32
33
34
35
36
37
38
39
40
41
42
43
44
45
46
47
48
49
50
51
52
53
54
55
56
57
58
59
60
61
62
63
64
65

66
67
68
69
70
71
72
73
74
75
76
77
78
79
80
81
82
83
84
85
86
87

SEXUALITATEA



Argazkia. Emakume taldea loreekin buruan. 86

SEXUALITATEA

Mende hasieran, XIX mendeko jarraipena (1900-1930)

Bere sorreratik, kristautasunak, testu sakratuetan zabalduko duen emakume irudia, pekatariarena izango da. Honen sinboloa Eba izango da, bere erruz gizakia paradisutik kanporatua izango da. Erdi aroan emakumea eta pekataria lotzeko buruturiko ekimen orokorrak bere fruituak emango ditu eta Euskal Herrian burutuko den sorginen ehiza honen adibide bat besterik ez da izango. Berriz ere, emakumea deabruaren aurrean erakusten duen ahultasuna agerian utzi nahi izango dute. Sorginen irudiarekin, gauez, bakarrik ateratzen ziren emakumeak susmagarri ziren. Zuzenean sexuarekin lotzen zen sinbolo hau: gauez, bakarrik eta biluzik dantzan egitera etxetik ateratzen ziren emakumeak. Sinbolo hau aztertuz gero, XX mendean zehar pekatutzat joko diren jarrerak dira guzti hauek. Bai gauez ateratzea baita bakarrik joatea ere, arriskutsua izango da emakumeentzat. Baina beste bi elementuak bekatu izango dira zuzen, hau da, biluztasuna edota dantzan aritzea bekatu kontsideratzera helduko dira.

Bekatuaren aurrean emakumeak erakusten zuen ahultasunaren aurrean defendatzeko era bakarra, *birtutez jantziriko emakume ideala* izatea zen. Ideal honen eredua Ama birjina izango da. Mito hau indarrean mantenduko da XX. mende osoan zehar garai bakoitzeko errealitateari egokituz.

Moral kristaua eta sexualitate askatasunaren kontrako errepresioa elkar loturik agertzen dira beraz historian zehar, eta mende hasieran ere, emakumeak ama on eta esanekoak bihurtzea herri guztietan zabaldua egongo den eginbeharra izango da. Bere helburu nagusia, gizarte katoliko eta tradizionala mantentzea izango da, eta honetarako, emakumeek argi izan behar zuten zein zen euren lekua. Dena dela, lehenengo hamarkadetako gizartean ideal tradizionalak gailentzen baziren ere, emakumeen gaineko kontrola ez da izango mendearen erdialdean emango dena bezain zorrotza.

Errepublikara garaiko eztabaida (1931-1939)

Errepublikan, familia tradizionala euskal gizartearen oinarri izaten jarraitzen zuen baina zinean eta iragarkietan agertzen hasiko diren emakumeak, ordurarteko estetikarekin apurketa bat suposatuko dute. Edertasun femeninoaren txalotzearen ondorio zuzena goi mailetako

emakumeentzako ileapaindegien eta edertasun saloien sorrera izango da. Permanenteak, manikura, depilazioak eta emakumeen itxura hobetzeko tratamendu desberdinen eskeintza sortuko da. Edertasunaren zabalpenaren fenomenoak beste ekimen batzurekin ere islatu zen, edertasun lehiaketetan adibidez.

Janzkeran ere aldaketak ekarriko ditu Europatik helduko den moda femenino berria. Bizkaiko sektore tradizionalak *Liga de Decencia Pública* sortzera helduko dira eta prentsak gogor kritikatuko ditu prakekin edota *era ez moralean* jantzitako emakumeak. Erretzen ere hasiko dira emakume batzuk, hau, gizonei egotzitako zerbait zen garai honetan. Beste aldaketa garrantzitsu bat bainujantzi bezala lehenengo tirantedun mailloten agerpena izango da. Eguzki bainuak oso zabaldua zeuden eta bainujantziek gorputzeko atal gutxiago estaliko dituzte. Sektore katolikoen kontrako jarreraren ondorioz ordea, bainujantzi gehienak oraindik ere gona eta mangak mantenduko dituzte.

Estetikaren gaineko aldaketa hauek, aldaketa sakonago baten plasmazioa besterik ez ziren. Fenomeno honen oinarrian, beste mota bateko rolen eta azken finean, gizarte desberdin baten nahia zegoen eta modernitate giro horretan murgilduko diren emakumeei, sexualitate mailan ere, askatasun maila handiagoa eskeiniko die.

Emakume taldea: garaiko edertasun eredua

Jarrera politikoei dagokienez, ordurarte sexualitate tradizionalaren defentsan aritutako sozialistek elementu berriekin jantziko dute euren diskurtsoa. Euskal prentsa sozialistan, sexualitate askeago eta biluztearen aldeko mezua zabalduko da baina soilik anarkistek burutuko dute askatasun sexualaren defentsa sutsua.

Aurrerapausu honek ordea, hirietan eta zirkulu konkretuetan soilik izango dute eragina. Gernikan, emakume konkretuek soilik egin zitzaketen estrabagantzia moduan ulertuak izango diren jarrera hauek, eta hori dela eta, emakume tradizionalen kritikak jasoko dituzte. Ez dira gutxi izando ordea, kuriositate eta mirespen izkutu batekin begiratuko dituzten emakumeak.

Frankismoa, pekatarien garaia (1940-1975)

Atzeritik heldutako haize berriak, gerra eta gero amaitu ziren. Irabazleek eta Eliza katolikoak ordurarte sektore tradizionalen defentitutako balore hertsia gizarte osoan ezarriko dituzte. Emakume eredugarriarengan txalotuko dituzten ezaugarrien artean kastitatea, birjintasuna eta xalotasuna egongo dira. Hauetan oinarrituz, sexualitatearen helburu bakarra ugalketa izango da eta beste edozein helbururekin buruturiko sexu harremanak bekatu izango dira. Hau dela eta, antisorgailuen erabilera ere bekatua zen, sexu harremanen helburu bakarra ugalketa baitzen. Hauen inguruan oso gutxi zekiten emakume gazte gehienak eta etengabeko haurdunaldiak izaten zituzten.

Lege sakratua

Ezkontzatik kanpo edota seme-alabak edukitzeko helbururekin burutzen ez zen harreman sexuala bekatua zen beraz, eta ez edonolako bekatua gainera, haragikeria edo lizunkeria bekatu buruetako bat da. Testu sakratuetatik ateratakoa da hurrengo definizioa:

“La lujuria, es el deseo desordenado por el placer sexual. Los deseos y actos son desordenados cuando no se conforman al propósito divino, el cual es propiciar el amor mutuo de entre los esposos y favorecer la procreación.”

Hamar manamenduetatik ere, bi ideia honekin guztiz lotuta daude: seigarren mandamendua, “No cometerás actos impuros” eta bederatzigarrena “No consentirás pensamientos ni deseos

impuros.” Desioa, sexua eta gorputza zigortu egingo dituzte. Neskei, gazte gaztetik sexualitatea zerbait arriskutsu bezala aurkeztuko zaie, infernurako atea zabal zezakeen giltza bezala. Lizunkeriari aurre egiteko, Elizak kastitatearen mezua zabalduko du neska gazteen artean.

“Castidad es la virtud que gobierna y modera el deseo del placer sexual según los principios de la fe y la razón. Por la castidad la persona adquiere dominio de su sexualidad y es capaz de integrarla en una sana personalidad, en la que el amor de Dios reina sobre todo.”

Kastitatearekin lotuta, garaiko emakumeen bizitzan garrantzi handiko beste elementu bat ere birjinitatea zen. María birjinaren eredua jarraitzaera derrigortuak zeuden neska gazteak euren bizitza orbandu nahi ez bazuten. Beraz, emakume gazteen ohorearen sinboloa zen birjinitatea. Emakumeak, aldi berean, familiaren ohorea sinbolizatzen zuten eta beraz, emakume errespetagarriak zituen familia errespetagarria zenez, etxeko alaben birjinitatea babestea zen aita eta neben eginbeharra. Ezkontzerakoan, emazteak senarrari eskeiniko dion altxorrik preziatuena izango da bere birjinitatea.

Hau izango da sexualitateari dagokionez eskeiniko den eredu bakarra. Sexua tabua zen eta ezkontzararte ezjakintasuna zen nagusi. Dena dela, inposatutako moral honek ez du eragotziko, lege sakratua, hitzez-hitz beteko ez dutenen kasuak egotea. Kasu hauen artean ohikoena, ezkondu gabe haurdun geratuko diren emakumeak izango dira.

“Umiek ba ban solteriek ezin leike ta kentzetzaten ta eroaten tzatien handik umie ta...”

“Ta ezkondu orduko geratzen zirenak ere egoten ziren gu baino zaharragoak be bai eh!”

“Baia estaduan geratzen zirenak... beti egoten zen baten bat...”

“Bai. Eroaten biezen ta gero hainbat arinen etorten zien.”

Emakumeengan erruduntasunaren zama

Gizonen kasuan jarrera inmoralak baimentzen ziren bitartean, emakumeak betirako markatuak geratuko dira. Herri guztietan bezala, Gernikan ere ez dira gutxi izango *fama txarra* izango duten emakumeak. Elkarrizketatutako emakumeek argi dioten bezala, arau zorrotzetatik pixka bat ateratzen zen neskak *fama txarra* hartzen zuen.

“Bai. Famatxue eukiten bienak beti egoten ziren. Baserritan be lantzien bat...”

“Beno, hori fama txarra esaten jakien ba apurtxu bat igual mutilekin edo badabizen... Ez txarrak izaten zirelako, ez igual, ze nik ezatzen nebazan gure edadekoak be bai orduen sasoi en ta zer, harek inor baino hoviek urten. Famie ba eurek izan zirelako ba kariñosak.”

“Dantz en eitean be ba arrimautute ibilten zirela ta ez dakit zer...”

“Edo nobixoagaz egoten zirelako apur bat arrimeta edo...”

“Baian horrexek fama txarra esan jakiena inor baino formalago urten diez!”

“Nik be orduen esaten neban “neska formalak diez honek eh!” “

Gainera, emakumeen gain, euren bekatuen erruduntasunaz aparte, inguruko gize nek burutzen zituzten bekatuen erruduntasuna ere jausten zen.

“Y encima a nosotras nos hacían responsables por si provocábamos malos pensamientos en los chicos. “Vosotras igual no pecáis pero estais haciendo... no sabeis los pensamientos que tienen los chicos...” ¡Hasta los pensamientos! Era como lo de Adán y Eva... la culpa de Eva que era mala. ¡Nosotras siempre!”

Estetikaren zaintza

Zentzu honetan janzkeraren zainketari ere garrantzi handia ematen zitzaion. Arropa dezentea izan behar zuen. Orkatilak erakustea, eskotedun alkondarak, soineko estuak edota

transparentziak moralaren kontrako jantziak ziren. Erreka edo hondartzara joaterakoan ere, gorputza inoren begiradatik salbu mantenduko zen.

“Kanpantxura joaten, han badau zubi bat ta erreka handi bat ta han egoten zan neskan hondartzie ta haratxuau mutilena. Banan, orduen bekatue zan ta! Ta hara joaten ginen belaunerarte uretan sartzen ta hara! Beste jolasbide bat! Belaunetik gora barik!”

“Ta plaixera urtien baten! San Inazio egunien! Urtien baten! Jantzi dotore, traje de bañorik eta ez... Apur bat altxeu gonie ta hankak... Laiden erromerixe ta hori, dantxatxu bat ta etxera!”

Mitoak, tabuaren ondorio

Sexua, bekatuarekin lotuta agertuko da eta ez inolako ezaugarri positiboarekin erlazionaturik. Gazteek eskolan mezu oso konkretua jasotzen zuten bitartean, familian ez da honi buruz hitzegingo. Elkarriketatutako emakume gehienek, gaztetan izan zuten ezjakintasun handiaren inguruan hitzegin digute. Informazio iturri nagusia lagunak izaten ziren baina honi buruz hitzegitea ere bekatua zen. Gainera, hemendik ateratako informazioa mitoz eta zurrumurruez beterik egongo da.

“Dana tabu! Aizpa nagusia edota lagunak kontetan bien zeuzer. Ostantzien entereu bez!”

“Lagunen artian be konbertsaziño txarrak izaten zien! Orduen danak ziren konbertsaziño txarrak...”

Mito hauetako asko hilerokoaren inguruan sortuko dira.

“Baiñetie txarra zan, fruta jatie be bai, hankak be ezin busti ta burue garbitutie pentseu bez! “

“Mantekaue jatie be txarra zan ebai eiten dabela ta...”

“Zelako inuxentzixek paseguz gazte garaixen!”

Ezjakintasuna eta beldurra nagusi

Ezjakintasuna eta beldurra hain izan zen handia, hilerokoa zer zen ere ez zekitenak asko zirela. Beste batzuk jakin bai, baina beldurra izaten zuten amari ere esateko.

“Nik be lagunen artien entere nintzen, amak esanda ez! Ta amak ikusteztezen gordeta...”

“Lehengusinak historixe pase ban berak, ai odoletan dauela ta negarrez! Ez ban jakin ezer.”

Amek ematen zituzten azalpenak higienara mugatzen ziren. Gainera, aurrerantzean mutilekin kontuz ibili beharko zutela entzuten zuten eta arriskuen inguruko aipamenen bat baina azalpen zehatzik gabe. Honek emakume askorengan zalantza handiak sortuko zituen. Elkarriketatuko emakume guztiek informazioaren beharra azpimarratzen dute eta euren alabari eurek jaso zuten informazioa baino gehiago ematen saiatu direla diote.

“Nik nire alabieri dana kontetzat ez nire amagaz izan nintzen moduen ze nire amak ez zeuan esaten holako gauzarik...”

“Jakín ein bi dabe dana!”

Dantzaldiak, harremanetarako gunek bakarra

Egoera gris honen aurrean, dantzaldiak ziren harremanetarako gunek bakarrenetakoa. Domeketan pasialekuan dantzaldiak egoten ziren eta bertan herri osoa biltzen zen.

“Egoten zan Gernikeko bandie ta kioskoan jotén ban, pasealekuan ta bitartien txistulariak jotén bien soltera. Denak egoten ziren domekan atsalde guztixe, ez zegoan besterik! Mutilek neskari eskatetzien dantzatzeko ta neska askok mutila motza bazan kalabazak emoten zizkien, ta holan...”



Domeketako dantzaldia izaten zen mutilekin egoteko zirrikituren bat topatzeko lekurik aproposena. Dantzaldia eta gero, mutilek lagunduta joaten ziren neskak etxera eta bertan sortzen ziren harreman gehienak. Harreman hauek hitzegitera mugatzen zirela esan beharra dago, garai honetako emakume gehienek ezkondu arte ez baitzituzten harreman sexualik eduki.

“Domeketan lehenengo errosarixoa, gero dotriñie ta gero Gernikera. Gerniken honekin ta gero etxera lagundu, oinez. Ta musu bat emon bez! Igual honekin ta “emozu musurik?” ta igual batek “Nik bai!” ta... Nik be pentseu baia...”

“Gerniken ein jantzan, etxera lagundu ta musurik emon pez. Gero laguneren artean izaten zan komentarixoa...”

“Santa Luzixen egun baten trenak eskapezten ta joan nintzen ta nere gizona izan zanak nobixie euki ban Bilbon ta joaten zan domeka guztixetan ta orduen egunien ha etorri zan bizikletan etxera ta ni oinez joakeran “Ze pase jatzu?”, ze

gu auzokoak izan gara, "trenak eskapeu" "ba oinez joango naz zugaz". Oinez joan ginezan kontuak kontetan ta gero, gabonak izan ziren honek, ta ha neskie gabonetan etorteko izan zan ta ni Gernikeko bategaz ibili nintzen ta trenien elkartu berriro ta holantxik, tontamentien, ta azkenik beragaz ezkondu nintzen."

Dantzaldietan, dantza tradizionalekin konpetentzian agarrao edo balseoa egongo da. Hauxe izango da neska eta mutilak kontaktu fisikorako izango duten aukera bakarra eta beraz sektore asko dantza mota honen kontra agertuko da.

"Bekatutzat eukitzen bien dantza ta Santa Clarako bikarioak zintzo jotzen ban baina harek be esaten zana esan behar ta "Balseo balseo! Balsa motza! Hitzak berak diño!"

Aisialdiaren gaineko kontrola

Pentsamendu txarrak sortarazi zitzakeen edozein gauza ere gogor salatzen zuten sektore atzerakoienek. Kastitatea zaintzeko, Elizak bere esfortzu handienak aisialdiko jarduera batzuren kontra zuzendu zituen. Nobelak, dantzaldiak, hondartza eta zinea espiritu garbien kontrako guneak ziren. Emakume gazteei zuzendutako *El libro de la joven* liburuan, nobelak "confeccionadas con retazos de adulterios, de aventuras pasionales, de intrigas sensuales, de evoluciones de amor libre", dantzaldia "vestíbulo de las casas públicas", hondartza "inmenso pudridero moral, donde entre montones de carnaza se revuelven los sapos de la sociedad" eta zinea "máximo exponente de corrupción" moduan definitzen dituzte. Honen aurrean, emakumea da bereziki babestu behar dena "perjuicios, esas ilusiones dañan sobre todo a la psicología femenina, que es demasiado impresionable, que tiene demasiada imaginación". CARNOT, Edith, *El libro de la joven*

Erlijioaren eragina sexualitatean

Umetatik jasotako mezuaren eragina oso sakona da. Frankismoaren hasieratik jaiotako emakume gehienak, sexualitatean erlijioaren eraginaren indarra azpimarratu dute.

"Erlijioak eragin handia euki ban hor, ezta? Ze beldurraren bidez bideratuten zuen herri bat beti, ez arrazonamenduaren bidez edo hau denontzat ona izengo dalako edo beitu a ver zelanik ein ahal dogun... ez, ez, ba bilurre ez, hau eiten

badozu txarra, hau eiten badozu ona, hau eiten badozu betiko sugarretara ta hau eiten badozu betiko zorionera.” (Amagoia)

“Yo por ejemplo a mi hermana le oigo y a ella le ha influido mucho más que a mi. Vivíamos a misa diaria, en mi casa se rezaba el rosario todos los días.”

“El 6. mandamiento era el... todo lo relacionado con el sexo era llevado a unos extremos exagerados. “No fornicarás. No cometerás actos impuros”

“El cura decía aquello desde el púlpito... ¡te metían un miedo! Se ponía la iglesia oscura... Un franciscano de Bermeo que venía gritaba “Inpeernuraa!!”

Elkarrizketetan, urtean behin burutzen ziren jardunaldi batzuetan jasotzen zuten sexuarenganako mezu negatiboari buruz hitzegin digute elkarrizketatutako emakumeek.

“Y había que ir a los ejercicios espirituales. Se hacían todos los años antes de Semana Santa y duraban unos 8 días.”

Emakumeek pairatu zuten errepresioa, mutilek pairatu zutena baino gogorragoa izan zela esan beharra daukagu. Mutilen masturbazioa, adibidez, bizio eta gaixotasun moduan aurkezten zuten bitartean, nesken artean pentsaezina zen jarrera zen. Emakumeen kasuan, ez zuten pentsatzen ezkontzatik kanpo sexualitate aktiborik egon zitekeenik. Hau dela eta, sexualki aktibo moduan agertzen zen emakumea, betirako markatua eta gaizki ikusia izango da. Gorputza ukiezina zen. Emakumeen belaunaldi oso bat bere gorputzarekiko mesprezuan hezia izan zen eta honen ondorioak oraindik ere antzeman daitezke.

“Yo me acuerdo de unos ejercicios, que había ejercicios antes de Semana Santa y me acuerdo, es que todavía tengo presente eh, como dijo que al ducharse o bañarse para no tocarse, que era pecado el tocarse y para lavarse con cuidau... ¡Cuántas veces le he dicho a las amigas! ¡Es que me quedó aquello...! Oye, si te estás duchando entonces... a ver como...”

Norberaren gorputzarekiko eta sexualitatearekiko sortaraziko duten lotsa eta beldurra hain izango dira sakonak, batzuk logelako intimitatean ere euren gorputza izkutatuko dutela.

“Yo dormía con una hermana mía en dos camitas. Yo a mi hermana no le he visto nunca ni el pecho ni nada y dormíamos juntas... Bajábamos el tirante de camisón así... ¡No le he visto nunca!”

Familien arteko desberdintasunak, nabarmenak

Familien araberako desberdintasunak, garai eta esparru guztietan egongo badira ere, sexualitatearen esparruan, frankismoaren amaieran trantsizio garai batean gaudela esan dezakegu. Moral kristauan eta beldurran oinarritutako sexualitatetik, ordurarteko ezjakintasunak sorturiko jakinmininera.

Gizartean hondartzara joateko ohitura zabalduko bada ere, oso berandurarte gorputza izkutatzeko estrategiak erabiliko dira. Jarrera eratsua mantentzea ezinbesteko baldintza izango da. Dena dela, trantsizio garaia izango da eta familia batzutan arau moralak zehatz mehatz jarraitzen zituzten bitartean, beste etxe batzutan pentsakera irekiagoa izango dute.

“La gente iba a la playa pero pa cambiase se hacía un saco de tela y te cambiabas de debajo.”

“Yo nunca he usado el saco.”

Heziketa sexualari dagokionez, etxe batzutan ordurarteko isiltasuna mantenduko duten bitartean, beste etxe batzutan euren seme-alabek sexualitatearen inguruko oinarritzko heziketaz arduratzen hasiko dira.

“A mi mucho no me contaron en casa”

“A mi tampoco”

“A mi antes de tener la regla toda la explicación: que si los ovarios, que si no se que... A parte de eso habló mi madre con uno de los curas en aquellos tiempos más modernos o así, Don Jesús, y le dejó unos libros que llevó a casa y luego leímos entre las dos. Luego yo también le expliqué junto a mi madre a mi hermana. Yo creo que mi madre para aquellos tiempos era avanzada. Para las

cosas de las monjas también, decía “tonterías de monjas”. Si no le parecía decía “no hagas caso, tú no haces daño a nadie”. Le teníamos mucho respeto. Nunca nos castigó ni le oí nunca subir la voz.”

“De la regla y así sí que me contaron. “

Hilerokoaren inguruko mitoak

Hilerokoaren inguruko mitoek, lehengo indarra mantenduko dute baina familien arteko desberdintasunak ere, nabarmenak izango dira. Emakume batzuk mito hauen zabalpena bultzatuko duten bitartean, beste batzuren ustez ezjakintasunaren ondorioz sortutako ideiak besterik ez dira izango.

“Regliegaz egoten bazara las aceitunas venían en un bote grande y las sacában con un cacito, y a la de la tienda, a ella misma, le oí que no podías tocar.”

“Lo de las plantas si que había oído que se marchitaban”

“Los chorizos también. También decían que se cortaba la mahonesa. Pero en mi casa estas cosas no funcionaban.”

“¡Pero en cuántas casas harían caso! En la mía no se hacía caso.”

Gizarte osoan ordea, hilerokoa izkutatu beharreko zerbait moduan ikusten zen eta ez bakarrik kalean, baita etxean ere.

“Lo que era muy secreto. Había que disimular, sobre todo en la calle.”

“¡Y los chicos que no supieran que estabas con la regla! Igual si alguna tenía dolor de tripas o algo había que disimular o inventar algo... lo que sea.”

“Si hasta en casa se tapaba... ¡imagínate!”

Gaurko higiene elementuak ez egoteak gauzak zailtzen zituen. Kotoizko oihalak erabiltzen ziren eta honek kontu handiagorekin ibiltzea eragiten zuen. Hauek garbitzerakoan ere izkutatzea

ezinbestekoa zen. Elkarrizketatutako emakume batek argi dio zeinen begi bistatik kanpo egon behar zuten oihaltxoak, aitaren begi bistatik.

“No había ni tampones ni compresas. Había unos pañitos de tela de algodón”

“Luego teníamos que lavar. Y luego poner así como en remojo en una palangana y tapaus, bien escondidos... aítak ikusi barik! Por que claró, echaban sangre...”

Dantzaldia, oraindik harremanetarako gunea bakarra

Mutilekin harremanetan hasteko gunea zen oraindik dantzaldia. Pasialekuan egiten ziren dantzaldiak domeketan. Lehengo emakumeak ez bezala, 40. hamarkadan jaiotako emakumeek onartzen zuten dantzara eta ligatzera joaten zirela.

“A bailar y a ligar se iba al pasialeku. Ibas dos chicas bailando y te venían y los euskaldunes decían “Mesedez...” y los otros “¿Bailamos?” y dabás un vistazo y si te interesaba decías que si. A veces lo difícil era que estuviéramos todos conformes. “

“Era muy difícil que estuviéramos todos conformes... igual las dos querían bailar con el mismo...”

Bandak jotzen zuen musika ere, dantzarien artean intimitatearen sorrera errezten zuen. Betiko musikaz gain, Adabá eta Duo Dinámico izango dira garaiko musikarien artean oroitzen dituztena.

“Muy sentimentales, muy suaves...”

“Adabá. “Y mis manos en tu cintura...””

“Y Astillas fue un personaje. Imitaba al Duo Dinámico”

Dantzaldia

Gaztetik hasten ziren dantzaldietara joaten. Banda jotzen zuen bitartean dohain izaten zen dantzaldia, baina orkesta jotzen zuenean, mutilek ordaindu behar izaten zuten. Hau dela eta, mutil gehienek banda zegoenean agertu ohi ziren.

“Se empezaba a ir a los bailes con 14 o 15 años. Y a los chicos les ponían el ticket en el brazo y venía uno cobrando y la gente bailando y les iba mirando si habían pagado.”

“Los chicos aparecían casi siempre cuando la banda pa no pagar”

Ordaintzerakoan, aintzinako ohiturak mantentzen ziren orokorrean eta gizona izaten zen ordaintzen zuena.

“Creo que mi querido marido me tiene eso sin perdonar todavía... que nunca le he pagado nada. “Ya me invitabas pero a la hora de pagar...””

Dena dela, kasu batzutan erdibana ordaintzeko ohitura ezartzen hasiko da.

“En mi casa mi novio no tenía dinero y ya en aquella época a escote hacíamos”

Alaben gaineko zainketa

Alaben gaineko kontrola adierazten duten adierazpenak nahiko normalak dira. Aitaren aldetik gehien *bat ohore zaintzaile* papera oso barneratua egon zen nahiko berandurarte.

“Hasta los 18 a la escuela. Íbamos a clases de francés y mis hermanas de música. También a costura. Todo el día teníamos ocupau. Yo tenía un padre que nos ocupaba bien el tiempo, o sea, no nos dejaba con mucho tiempo libre para andar.”

“Cuándo andábamos con chicos, yo vivía en Saraspe y hasta la fuente, pa que no me vea mi padre... ¡Pero eso nos pasaba a todas!”

Ezkongaialdiko ezaugarri batzuk

Ezkongaialdia, ezkontza aurretik igaron beharreko epealdia zen. Bikotea ezagutzea eta ezkontzarako prestatzea izango dira denbora tarte honetan burutu beharreko eginbeharrak nagusienak. Harreman iraunkor bat hasterakoan elementu ugari hartzen ziren kontutan: ze familikoa zen, zertan egiten zuen lan, bertakoa edo kanpokoa zen, gurasoen oneritzia eta abar. Gainera familiaren egoera ere kontutan hartzen zen erabaki bat hartzerakoan. Karga familiarren ardura emakumeena zen eta horiek betetzea zen lehenengo eginbeharra. Hurrengo testigantza oso argigarria da zentzu honetan. Emakumeek, euren nahien gainetik familiaren ongizatea jarri behar zuten alaba edo emazte onak izateko.

“Nik euki naben nobixo bat, zera, kojoa... Haregaz zenbat urtien... Mutil majoa izan zan ha! Nik pentseu neban: “honegaz ezkontzen banaz Dos Caminos-era joan biot –ze hangoa zan ha- ta gure aitek niri lagunduta zelan itxikot bakarrik... Hasten giñen ta “Ene! Vamos a dejar, vamos a dejar...”. Hainbeste denboran ta hainbeste denboran ta akabuen esaten dozten gure aitagaz egon bidala ta, ta egon bidala... “Gure aitek bai baia nik esan bidotzut esan biotzutezenak...”. Gusteu ba, ta atzera ta einban berba aitegaz. Baia nik pentsetan naben “aite zelan itxikot bakarrik alaba zaharrena izenda ta ni hara banoan ezin da etorri ta...” Zenbat biderrez, hartun ta itxi, hartun ta itxi... Zinera be etorten zan domeketan ta neure ondotik danori pagetazkun ta holan... Bera guapoa ta kariñosoa izan zan. Baia nik, haixe pentsetan naben ta... ta ba ez! Ta orduen emozten muxue! Estrainekoa! “Andar bien” esan nion ta bera “Aunque venga el comunismo andar ya sabes que no voy a andar bien, pero hoy te voy a dar un beso”. Despedide!”

Erromeria: neska-mutilak

Ezkontzeko adinaren batzbestekoa 25 urte inguruan egongo da eta ordurarte gurasoen agintepean jarraituko dute emakumeak.

“Yo hasta que me casé, las 10, las 11 lo más tarde. Me casé con 22 años.”

Orain 30 urteko egoera oraindik asko aldatu behar zuela adierazten duen beste elementu bat, emakumeek euren testigantzetan erabiliko duten espresio batek adieraten du *guardar las ausencias*. Senargaia kanpoan zegoen bitartean, emaztegaiaren bizitza soziala ia erabat murrizten zen bera itzuli arte.

Lehenengo harreman sexuala eztei gauan

Kasu gutxi batzuk kenduta, esan beharra dago ezkondu aurreko harreman sexualik ez zegoela. Hamarkadetan zabaldutako mezuak izandako arrakasta, 55 urtetako emakume batek kontatutako ondorengo adibidean ederki islatzen da. Senargaiarekin, aizparekin eta honen senarrarekin egun batzuk kanpora joan ziren eta bere aizparekin lo egin zuela kontatu digu. Garai honetan oraindik ere, ezkondu baino lehen logela berdinean lo egitea ere, ez zen moralki ondo ikusten.

Mende erdialderarte jaiotako emakume gehienek, lehenengo harreman sexuala eztei gauan izan zutela diote. Askok ez zekiten ia ezer sexuaren inguruan eta askotan, mitoez inguraturiko esperientzia izaten zen. Sexuaren inguruan jasotako mezu negatiboaren ondorioz, emakume askok ezjakintasuna, lotsa, antsietatea eta beldurra sentitzen zuten lehenengo aldi horretan. Hau dela eta, askorentzako lehenengo harremana ez da gozamenerako zerbait izango, derrigor burutu beharko duten zerbait baizik. Emakume askorengan, gerora gainditzeko zaila izan den frustrazioa sortu zuen lehenengo aldiak.

Lehenengo harremanean bikoteen arteko desberdintasunak ere azpimarratzekoak dira. Hau da, maitasunean eta begirunean oinarritutako bikote batean, lehen aipaturiko ezinegon eta beldurrak kidetasunarekin leuntzeko aukera zegoen. Baina hau ez da bikote guztietan emango den errealitatea izango eta emakume asko, euren senarren nahiak asebetetzera derrigortuak sentituko dira jasotako heziketak zioen bezala.

“Si tu marido sugiere la unión, entonces accede humildemente, teniendo siempre en cuenta que su satisfacción es siempre más importante que la de una mujer. Cuando alcance el momento culminante, un pequeño gemido por tu parte es suficiente para indicar cualquier cosa que hayas podido experimentar. Si tu marido te pidiera prácticas sexuales inusuales, se obediente y no te quejes. Es probable que tu marido caiga entonces en un profundo sueño, así que acomódate la ropa, refrescate y aplicate crema facial para la noche y tus productos para el cabello. Puedes entonces ajustar el despertador para levantarte un poco antes que él por la mañana. Esto te permitirá tener lista una taza de té para cuando despierte.”(Economía doméstica para bachilletaro y magisterio. Sección femenina. 1958)

Tratu txarrak

Harremanetan errespeturik ez egoteak tratu txarrak erraztuko ditu. Tratu txarren menpe bizi ziren emakumeak ez dute inolako babesik izango ez lege aldetik ez eta gizartearen aldetik ere. Askotan, emakumea bera izango da gizonaren jarrera aitzakia baten atzean ezkutatuko duena, egoera aldatzeko ezintasunaren aurrean. Gaur egun tratu txarrak oso zabaldutak daudela argi daukagu eta gizartean salatzen den zerbait da. Garai honetan ordea imaginatu besterik ez dugu emango ziren kasu kopurua.

“Orduen disimuleu, andrak disimuleu eiten ben. Txartotxuau egon etxien ta oingo moduen ez zan agertzen. Mozkortixena ta bai ezta baia ostantzien tapeu eiten ban jentiek.”

Erlazio heterosexualak, aukera bakarra

Bildutako kasuen artean ez dugu erlazio homosexualen inguruko testigantzik jaso. Honek ez du esan nahi Gernikan homosexualik egongo ez zenik. Homosexualtasuna, gaixotasun eta desbiazio sakon baten moduan aurkezten zuen garaiko moralak. Honen ondorioz, sexuarekiko erlazonaturiko edozein gaiak sortzen zuen erruduntasun sentimentua biderkatu egiten zen homosexualen kasuan. Asko izango dira euren desioa ezabatzen saiatuko direnak, euren buruari ere izkutatuko diotenak edota herritik joatea erabakiko dutenak.

Aldaketa nabarmena, ezkontzara bideratutako heziketa sexuala

Frankismoa amaitu baino lehen, sexualitatearekiko nagusi zen ezjakintasunarekin apurtzeko ikastaroak martxan jarriko ziren. Ikastaro hauek ezkontzarako prestaketa moduan aurkeztu ziren eta Gizarte Etxean Elizaren babespean eskeini ziren. Heziketa sexuala beraz, ezkondu aurretik eskeiniko den heziketa zen, erlazio sakratu hontatik kanpo erlazio sexualak onartu gabe jarraitzen zutelako. Dena dela, geroiko ikastaro ireki eta aurreratuagoen aurrekari izango dira. Elkarriketatutako emakume gehienak oroitzen dituzte ikastaro hauek.

“Yo siempre he ido a la Casa Social. Siempre había, yo no sé, estábamos allí en grupos y daban de todo. Blanca Salegi daba aquellos y explicaban todo.”

“Antes, con Don Ricardo que era el cura que tenía lo de la música, hacía grupos y se hablaba de todo. Esto con unos 15 años”

“A mi los ejercicios prematrimoniales me los dio Blanca Salegi”

Jaiotze tasaren gaineko kontrola

Dena dela, aldatu gabe jarraituko duten errealitateak egongo dira. Hauen artean antisorgailuak lortzeko zailtasuna egongo da. Frankoren Erregimena ezarri zutenetik, antisorgailuak moralki gaitsezten ziren eta Elizak onartzen zuen metodo bakarra *Ogino-Krauss* izenekoa zen. Metodo honen erabilera ordea nahiko mugatua izan zen. Dударik gabe, gehien erabiliko dena, *Coitus*

Interruptus izango da. Metodo honen fidagarritasuna nahiko txikia zen eta izan behar zen arretagatik, tentsio handia sortzen zuen harremanetan.

“En mi casa termómetro y Oginó, ¡y funcionó! Cuándomi marido dijo que plato, plato fue...”

“O marcha atrás o lo que sea me imagino”

Elkarrizketatutako emakume gehienak, inolako metodorik ez zutela erabiltzen diote. Honen inguruan zegoen ezjakintasuna eta medikuek jartzen zituzten oztopoak ere aipatu dituzte.

“En mi caso yo si he usado. Pero no es en nuestras madres, las de nuestra edad tampoco usaban. Mi hermana tuvo 5 hijos”

“Yo no he tomado pero no daban...”

“Te ponían sus pegas...”

1947an jaiotako emakume batek ordea, antisorgailuak hasieratik erabili zituela argitzen digu. Atzerrira joan zen gaztetan eta Dublan medikuarengana joan zen antisorgailuak eskatzera eta eman zizkion. Seguruenik kasu hau berezia izanagatik emango zizkieten, atzerrira zioan neska baten kasua zelako eta kanpoko errealtatea desberdina zelako. Baina honek ere, nahiko argi dauka ez zirela lortzeko errazak.

“Yo usé anticonceptivos desde el principio porque fui fuera y entonces fui a donde Dublang y le pedí y me dio sin ningún problema ¡cosa que parece que no daba tan fácilmente!”

Hamarkadetan neskei etengabe errepikatutako mezua indarrean zegoen emakumeen buruetan. Emakume batek kontatutako pasartean ederki islatzen da egoera hau.

“Una de las cosas que mi madre solía contar mucho de esto de los ejercicios, tenían que ir a los ejercicios, y claro iban con las amigas de Durango todas juntas y dice que a la vuelta que todos los días era lo mismo, “Si tienes cuidado

para no tener hijos estás pecando". Había que tener hijos entonces ella salía siempre con la historia esa... estoy pecando por que yo no quiero tener más hijos... y dice que salían todas que decían "¡Ay! No se pa que venimos si estamos pecando continuamente..." Y una amiga le decía "Mira, no te preocupes. Si haces una vez como si haces 20 igual igual estás pecando ¡Así que no le hagas caso a ese!".

Emakumeen arteko kontrastea gero eta handiagoa zen eta batzuk lehengo belaunaldiko pentsakera mantentzen zuten bitartean, beste batzuk jarrera ireki eta aurrerakoienak bereganatu zituzten.

Gazte belaunaldia aldaketen eragile

Erregimenaren amaieran, gizartean zabaldutako haize berriek sexualitatearen eremua ere zipriztinduko dute eta aldaketaren beharra mahai gainean jarriko dute. Hezkuntza katoliko, apostoliko eta frankista batean hezitako emakumeak ziren arren, gazte belaunaldi berria ez zegoen bere sexualitatearekiko errepresio bortitz hori jasatzeko prest.

Aldaketa honen lehenengo sintomak janzeran antzemango dira *destapearekin*. Gonak laburtuko dira, kolore eta ehunak biderkatuko eta sostenak kortsea guztiz alboratuko du emakumeengan askatasun sentsazioa areagotuz. Ilearn orrazkeran eta mozketan eta makilajearen erabileran ere, aldaketa handia emango da baina, dudarik gabe, aldaketa nagusia praken erabileran egongo da.

"Cuando empezamos a usar pantalones... ¡aquello fue la bomba!"

"Urte asko ez da... badira urte batzuk baia... Oin 40 urte edo egon zan prakakin ta fumetan nere alaba..."

Urteetan zehar zabaldutako mitoek, orain ulergaitzak diren jarrera eta ideiei batzuk egotea ahalbidetuko dute.

"Gizon ezagun baten andriek prakak ipini bazenien bakizu zer esan ban gure beheko Teren ta maestrien amak, andrak prakekin ez daizela ibili ze harek ez dauzela behetik prakakin ibilteko moduen ta, harek euki bielako hori..."

Aurreko moralaren kontrako benetako iraultza izango da neska gazteentzako prakak janzteak. Jarrera honek belaunaldi zaharrenak eskandalizatu zituen eta nesken senideak euren alabak prakarik eraman ez zezaten saiatuko dira.

Neska taldea: 70. hamarkada

“Yo al principio me vestía en casa de una amiga. Yo tenía un pantalón fucsia y mi amiga uno verde. Salía de casa con falda y en su casa nos vestíamos cuando veníamos a Gernika así. Luego me volvía a poner la falda y ya está. El padre como estaba en la mar pués pocas veces estaba y con la madre bueno, pues bien. Luego lo peor fue ir a misa con el pantalón. Igual ya fue un poco más... no se veía muy bien. Una vez fui a misa con un pantalón negro y una tía mía ¡Que bronca! Cuando salí me agarró y “Prakakaz! Geixau ez zara etorriko prakakaz elizara!” Poníamos para la calle y así pero costó igual un poco llevar a misa.”

“Nik ezpanak pintetan nintzelako...”

Janzkeran emango den aldaketarekin batera, kalean gero eta presentzia handiagoa eskuratuko dute emakumeek eta ordurarte normalean sartzen ez ziren lekuetara sartzen hasiko dira.

“Nosotras ya salíamos a los bares y así...”

“Vosotras sois más jóvenes... ¡nosotras no!”

“Dice el del nekazari que las de nuestra edad teníamos que hacer un homenaje porque nos enseñó a fumar, beber vermut, pintarnos... en la Casa Social. Entre el cura y así allí íbamos al bar. Allí empezamos a fumar, a beber...”

“¡Nada que ver con lo de ahora desde luego!”

Aldaketa garaia izan zen hau arlo guztietan. Emakumeen presentzia lan merkatuan gero eta nabarmenagoa zen eta honek euren independentzia ekonomikorako ateak zabaltzearekin batera, ordurarteko familiar patriarkalaren amaiera ere suposatuko du. Heziketa maila, gero eta altuagoa zen eta emakume belaunaldi berri honen prestakuntza, euren amen prestakuntzarekin konpara ezina izango da. Gainera, atzerrian nagusi ziren ideiak gero eta eragin handiagoa zuten gazteen pentsakeran eta janzkeran. Aldaketa hauekin batera, gizarte eta gobernu berri baten beharrak mota guztietako aldarrikapenak kaleratzea eragin zuen. Hauen artean feministak emakumeen aldarrikapen propioak azaleratu zituzten.

Kartelen bat: sexualitatearena edo...

Abortua

Aldarrikapen hauetako bat abortuarena izan zen. Abortua, garaiko errealitatearen parte zen. Antisorgailuak eskuratzea oraindik erreza ez zen gizartean, gero eta normalagoa zen ezkondu aurretik erlazio sexualak izatea. Hau dela eta, neska gazte asko haurdun geratzen ziren. Gizartean pil pilean zegoen arazoa zen eta Gernikan azpiegitura moduko bat egon zela kontatu digute elkarriketetan.

Bakoitzan bere etxe barruen ta bere arazo partikularrak, horrek be gerra aurretik holanik konpontzen ziren. Ahí en la privacidad, donde nadie me ve... arazoak sortzen badirez emakume batengan. A ixilean atontzen zan. Baina horrek izaten ziren pekatu proibituek ta inun azaltzen ez zirenak. (Mila)

Aparientzi mundu formal eta on batetan baten batek urtetan badeu esaten, haber, ez da erreza! (Mila)

Azkenien denok genekixen ze lekutan zeuden gauzak, ezta? Lortzen gendun zer edo a. Baegoan halako infraestruktura moduko bat, igual ez zan egongo oso antolatute baia bazegoan. Jentie normalian Londresera joaten zan, diru pila ta... (Amagoia)

Tabuekin amaitzeko eragin handiko pausuak

Talde feministek, sexualitatearen inguruko dogma, mito eta beldurrekin apurtzeko diskurtso berritzailea kaleratu zuten. Sexualitate askeak, kastitatearen mezua ordezkatu zuen eta urte gutxirarte pentsaezinak ziren jarrerak nagusitu ziren. Eredu ofizialaren eskeman sartzen ez ziren emakume askori, feminismoak euren nahiak islatzeko diskurtsoa eskeini zien.

Emakume mugimenduak informazio eta planifikazio sexualerako zentru eta programen beharra kaleratu zuen eta gernikar askoren erreibindikazioari esker, udaletxeak proiektua martxan jartzea lortu zen. Sortutako Komisioaren bidez *Haur eta Amarekiko Osasungintza programa eta plangintza familiarra* eskeini zen eta atentziorako zentruari *Osasungintza* izena eman zioten.


“Sozialisten gobernuen jarrikeran egon zan giza mailan liberakuntza bat orduraino pentsa be eiten ez zana. Ordun izan zan, oin Cruz Roja dauen lekuen,

antolatu eben holako gela bat eta mediku bat egon zan. Gizonezko hura zan benetan aproposa. Oso kontzientziaue egon zan eiten lanerako. Emoten eben aukerie, zuk gura bazendun pildorarik hartu edo antikonzeptibo gaixeri buruz zerbait berba ein, mediku harek zabal-zabal laguntzen dotzun zeuk gura zendun guztixen. Ordurarte, eta ez naz hain zarra, 50 urtiegarrenien jaixota nau ta 25e urtegaz euki naben lehenengo umie ta eskatu naben Basurtuko ospitalien antikonzeptiboak hain arin umedun ez gelditzeko, ta nik ez nekixen nire eskaera hain gogorra zanik, nik ez nekixen! Aurrien euki naben ginekologue geratu zan gogortute, juan zan barrure ta urten zan nagusixe, Usandizaga. Esazta ea zer eskatzen nengoen, a seguridad soziala zala ta holakorik ez zegoala! Geratu nintzen... Nik 26 urte eukiko nitu, en el 76 edo. Atzoko kontue da e! Ni natural-natural esan nuen..."

Eskeintzen ziren zerbitzuen artean planifikazio familiarra, antisorgailu metodoei buruzko informazioa, sexualitateri buruzko orientapena, gaixotasun sexualen diagnostikoa eta tratamendua, haurdunaldietan kontsultak, erditzerako prestaketa eta pediatria kontsultak zeuden. (Aldaba 83-85, p.8)

Aurrerapausu hauek lortzeko bidean, eragin nabarmena izan dute emakumeek sorturiko taldeak. Emakumeak elkartzea Gernikako errealitatea eraldatzeaz gain, euren askapen pertsonalerako baliagarri ere izan dira. Heziketa sexualarekin batera, bikote eredu berriak sortuko dira eta baita erlazio sexual aberasgarriagoak ere. Sexualitate osasuntsu baten inguruko diskurtsoa ez da jadanik ezkontzara, ugalketara eta neska-mutil binomiora mugatuko.

ERLIJIOA



Argazkia. Prozezioa edo monjak

ERLIJIOA

Mende hasierako egoera, orden erlijiosoak (1900-1930)

Erlijioen historian, gizona eta emakumearen arteko desberdintasunen eskema iraunkor bat mantendu izan da. Gizona, arrazoimenean oinarritzen den gizakia moduan aurkeztu dute, emakumearen irrazionaltasunaren aurrean, eta hau dela eta, bakoitzari funtzio eta eginkizun bereziak egotzi zaizkio. Eliza katolikoaren nortasun ezaugarriak, kultura patriarkala sendotzeko eta legitimatzeko balio izan duela nabarmena da. Emakumeek beti bigarren mailako papera beteko dute eta tradizioari atxikitako baloreen transmisioaren ardura bere gain har zitzaten saiatuko dira.

XX. mendearen hasieran, gizarte erakunde guztietan eta bizitzaren eremu guztietan eragina izango du katolizismoak. Aita Santuak bultzaturiko politikaren ondorioz, gizarte berri baten oinarri bihurtu nahi zuten erlijioa eta moralaren errestituzioa gauzatzeko ekimenak gauzatu zituzten Elizak. Baliabide desberdinak erabiliko zituzten ere, hauen artean garrantzi handikoak irakaskuntza eta karitatearen kontzeptuaren inguruan sortuko diren gizarte taldeak izango dira.

Euskal Herri osoan bezala, Gernikan ere erlijioaren eragina handia izango da. Gernikar katolikoek, bai irakaskuntza mailan zein karitatearen inguruan proiektu desberdinak bideratu zituzten XIX mende bukaeratik. Hauen artean garrantzi handikoak izango dira Kaltzada Egoitzaren sorrera (1892), Agustinoen Eskolaren fundazioa (1894) eta San Fidel eskolarena (1901). Mendearen lehenengo herenean, herriko egunerokotasunean ere erlijioak izango duen presentzia etengabea izango da: erromesaldiak, ospakizun erlijiosoak, eskoletako umeen ekimenak eta abar. Elizak eta eskolek burutuko zituzten ekintzei, sortuko diren talde erlijiosoen ekintzak gehituko zaizkie.

Argazkia: erromesaldia begoña edo loirolara

Orden erlijiosoak

Kongregazio erlijiosoen presentzia ere nabarmena zen. Emakumeen hiru orden erlijioso zeuden Gernikan: klarisak, merzedariak eta karmelitak. Konbentuetan eguneroko bizimodua bizitza liturgikoaren eta komunitateko lanen artean banatzen da. Bizitza espiritualaren barruan meza, meditazioak, erretiroak eta formazioa desberdindu daitezke. Bizimodu hau eraman ahal izateko Komunitateko lanak ere burutzen dituzte: baratzeko lanak eta jantzien eta ajuarren osaketa. Orden batzutan ere, jangai bereziak egiten dituzte.

Santa Klara konbentua 1422.an sortu zen Arteaga etxeko bi alaben eskutik. 1618. urtean *La Tercera Orden de San Francisco* izena jaso zuen 1563.an sortutako Lumoko frantzizkarren konbentuaren eraginez. Urte horretan Santa Klara ordeneko serora bat izendatu zuten abadesa moduan, María de Arteaga. Gernikako alaba hau 12 urterekin sartu zuten monja Medina de Pomarreko Santa Klarako konbentuan eta bere formazio onaren ondorioz, bere sorterriko konbentuaren fundatzaile izendatu zuten. (Aldaba 1 liburua. Las Guardianas del árbol de Gernika. 1983-85). XX mendeko lehenengo urteei dagokionez lortutako informazioa, arlo ekonomikoari dagokiona da. Honi esker, konbentuan burututako obra askoren inguruko ezagutza dugu eta baita hauek ordaintzeko erabilitako diru iturriak ere: komunitateko lanak, nobizien doteak, pertsonen donazioak edota instituzioen dirulaguntzak. Finantziazio iturriei dagokionez, garaiko pentsakera eta jokaeren ispilu dugun hurrengo pasarteak aurkitu dugu:

“El indiano Ramón Oleaga, tenía una tía clarisa en el convento y, estando todavía en América, le escribió con ruego de que le encontraran una mujer de buen ver y buena. Las monjas tenían una demandadera joven, guapa y buena y le comunicaron que podía venir a por ella cuando quisiera. El indiano vino y se relacionó con ella y se casó y del contento que tenía de haber encontrado semejante mujer, regaló a las monjas el órgano y más tarde ornamentos y una hermosa alfombra para el presbiterio, y siendo ya ancianos, las vidrieras de la iglesia.” (Martín Mendizabal: Santa Clara de Gernika. P.222)

Mende honetako abadesen artean izen hauek aurkitu ditugu: Antonina de San Antonio Oar y Arteta (1899-1902), Ezequiela del Sdo. Corazón Oar-Arteta Larraga (1902-1915), M^a Jesusa de Santa Teresa de Astigarraga y Amutxategi (1915-1919/1926-1935), Eustaquia de la Sma. Trinidad de Aspuru y Ugarriza (1919-1926), M^a Concepción Llona (1935-1942), Margarita Uribe y Labauria (1942-1947/1953-1960), Inocencia de San José Zendokiz y Aranena (1947-

1953), M^a Encarnación Zabaleta y Agirre-elezbeitia (1960-1966/1972-1978/1984-1987), M^a Inmaculada Goikoetxea Llona (1966-1972), M^a Visitación Musatadi y Bengoa (1978-1984/1990-1996/ 2002-...) eta M^a Teresa Gerrikabeitia y Arriaga (1996-2002). (*Martín Mendizabal: Santa Clara de Gernika. P.261*)

Argazkia: Klarisak

Merzedariak 1625.ean heldu ziren Erreenteriara Marina Saenz de Portuondok ajangiztarrak alargun geratu ondoren bere etxea eta ondasun guztiak kongregazioari eman eta gero. XX. mendearen hasieran beraz, Erreenteriako paisaiaren parte izango da konbentua. 1936. urtean 43 monja biziko dira konbentuan, hauen artean Eugenia de M^a Jesus komendadora, Concepción Aranbarri Bikaria, Serapia del Rosario, M^a Inmaculada konsultorak eta Guadalupe del Auxilio nobizien maistra. Zonaldeko bi monjen izenak ere azpimarra ditzakegu: Ana M^a Ama edo Elisa Lejarcegi Larruzea lumotarra eta Begoña Ama edo Elisa Barandika Berrojalbiz muxikarra. Merzedariak irakaskuntza arloan burututako lana ere aipatzeko da. Eskola honetan gernikar askok ikasi dute, *La Merced* izan zena eta orain *Merzede ikastetxea* dena. (Aldaba, 109: El convento de la Merced. 2001).

Elisa Barandika Berrojalbiz. Begoña Ama

Muxikako Barandika auzoko Aldekoa baserriko alaba. 1934.ko uztailaren 16an sartu zen Merzedeko konbentuan nobizia.

“ En aquella época, para entrar en el convento había que llevar dote y arreo como zapatos, ropa armarios, cama y cuadros. Nosotras comprábamos muchas de estas cosas en la ferretería de los padres de don Jose Luis Abaunza, que por entonces estaba en el Seminario.”

Argazkia

(Aldaba 92: EL Convento de la Merced durante el bombardeo. 1998)

Orden erlijiosoekin amaitzeko, Karmeliten komunitatea aipatzea ezinbestekoa da. Karmelitak 1901. urtean heldu ziren Gernikara neskentzako ikastetxe erlijioso bat sortzeko asmoarekin. XX. mendean zehar kongregazio honen eragina gernikar emakumeen artean oso handia izan da, hemen ikasi baitute emakume belaunaldi osoak. (Ikus Hezkuntza atala)

Herrian lan egin zuen beste elkarte erlijioso bat ere aipagarria da, San Vicente Paulen Karitateko Ahizpak. 1892tik, Kaltzada Egoitzaren ardura hartu zuen elkarte honek eta bertako umeen hezkuntzaz ere arduratu ziren.

Errepublikan ere, sentimendu erlijiosoa nagusi (1931-1939)

Estatu laikoaren aldeko neurriak

II. Errepublika aldarrikatzeak, eskola laikoen sistema, dibortzioaren legea edota hilerri eta erietxeen sekularizatzea suposatu zuen. Hau dela eta, Vatikanok ez zuen munduko gobernu gehienen antzera Errepublika berehalakoan onartu. Gobernu berriak bere jabetzak kenduko zizkion beldurrez, kongregazio erlijiosoen ondasunak saldu, ezkutatu edo Estatutik kanpo

ateratzeko modua bilatu zuen. Gobernuak dekretu batekin erantzun zuen: debekatuta zegoen elizaren jabetzak saldu, izenez aldatu edo hipotekatzea.

1932an, Kongregazioen lege proiektua aurkeztu zen. Lege honen bidez, eraikin erlijiosoak Estatuaren eskura pasatzen ziren baina Elizari uzten zitzaizkion erabil zitzan. Kontrol zorrotzak ezarri ziren kongregazioentzat eta debekatu egin zitzairen edozein irakaskuntza motatan jardutea.

Aldaketa hauek hiri eta gune turistikoetara (Bilbo eta Donostian gehien bat) helduko dira. Hauek deskristianizazio gune izaten hasiko dira. Elizaren ordezkari askok familia aberatsekin zituzten hartu emanak eta langileriari jaunak emandakoarekin konformatzeko zabaldutako mezuak, gune konkretuetan jarrera antiklerikalak piztea eragin zuen. Gainera, prentsa eta zinearen bidez Euskal Herrira helduko diren moda berriek ere, ohitura moralen erlajazioa emateko faktore garrantzitsuak izango dira.

Ohitura berri hauek herrietara zabalduko dira populazio mugimenduen ondorioz. Neskame moduan hirietara joandako emakumeek adibidez, herri eta baserri inguruko moral hertsia gaindituko duen errealitate batekin egingo dute topo eta gizon eta emakumeek erraztasun handiagoa izango dute Bilbora joan ahal izateko eta bertan askatasun haize berri horietan murgiltzeko. Zentzu honetan aipagarria da, erlijiotik aldendutako jarrera batzuk eman zirela kanpotik etorritako emakume batzuen artean (ezkondu gabe bikotearekin bizitzea adibidez), baina gerra eta gero jarrera hauek gutxitu eta ia desagertuko dira.

Gernikan sentimendu erlijiosoa nagusi

Dena dela, gernikako populazioaren gehiengoa, moral katolikoaren defendatzaileak izango dira eta garai honetan elkarre desberdinak jarriko dituzten martxan erlijioaren presentzia herrian mantentzeko. Hauen artean *Conferencias de San Vicente de Paúl* edota *Acción Católica* bera egongo dira. Estatu laiko baten aldeko apostua beraz ez du Gernikako herritarren sentimendu erlijiosoa eraldatuko.

Gerra garaian eraikin erlijiosoen erabilpen bereziak

Errepublikak orden erlijiosoen eraikinak gobernuaren esku uzteko agindua aspaldi emana zuen arren, Gernikan gerra hurbil egon zen arte ez da gauzatuko. Gerra garaian, Merzedeko konbentua, Santa Klarakoa eta Karmeliten San Fidel eskola ere, egoera bereziak sorturiko

beharrei erantzuteko erabiliko dira. Euskal gobernuak Loiola Batailoarentzat eskuratuko du Merzedarien Konbentua eta Santa Klarakoa ere gudarien babeserako erabiliko da.

Karmeliten eskola ere, *Karmele Deuna ospitala* bihurtuko da. Frontea gero eta hurbilago zegoen eta etengabe heltzen ziren gudari zaurituak Gernikara. Hau dela eta, Errepublikako neurriei esker, Euskal gobernuaren esku geratutako Karmeliten eraikina erabili ahal izango da ospital moduan. (Ikus bonbardeaketaren atala)

Frankismoan, Eliza moralaren zaindari (1940-1975)

Egoera berezi hau ordea, oso denbora mugatuan zehar mantenduko da eta okupazioa eta gero, orden erlijiosoek euren jabetzak berreskuratuko dituzte. Erlijioarekiko atxikimendu pertsonala erabakitzeko ahalmena ere, gerrarekin amaituko da. Errejimen berriak Eliza gizarteko moralaren zaindari izendatuko du eta ordurarteko aldaketak bertan behara geratuko dira.

Estatu berriaren barruan emakume berria lortzea ezinbestekoa izango da eta errepublikarren emakume eredua bekatuaren sinbolo bihurtuko da. Elizak, bizitzaren esparru guztietan bekatuan oinarritutako morala ezarriko du eta emakumeen gaineko kontrol itogarria, etengabea izango da. Beldurra eta presioa emakumeen buruan ezarriko da, eurak ere, kontrol tresna bihurtuko direla. Inposaturiko eredutik ateratzen zen emakumearen gainean, herri osoaren zurrumurru eta begiradak kokatzen ziren.

Amatasunera eta familia zaintzera mugatuko den emakume eredua gailenduko da, tradizio eta baloreen zaintzailea eta gizonen pasioen aurrean garbitasun eta errukitasunaren sinboloa. Eredu honek margen gutxi uzten. Eva biblikoaren ondorengo zen emakumea eta beraz, tentazioetatik babestea ezinbestekoa zen. Hau dela eta, batxilergoan arreta berezia eskeini zitzaion norberaren kontrola eta nahien errepresioa lantzeko arauai.

“Aintxiñe dana bekatu ta dana bilurre! “

“Orduen danak ziren konbertsaziño txarrak...”

“El cura decía aquello desde el púlpito... ¡te metían un miedo! Se ponía la iglesia oscura... Un franciscano de Bermeo que venía gritaba “Inpeernuraa!!”

Kontrola eta bekatuari beldurra noraino heltzen ziren ulertzeko adibide bi bildu ditugu.

“Arantzazun egon zanien nere nebie, Bermiotik aita ta ama joaten ziren ta eroaten bien euren bokadijotxue, ta ba, eguna paseu! Ama ta aite joaten baziren han paseu ordu batzuk ta ba... Aita ez badoa amagaz... txarto pentseu... ze ingo ban amak han estudixetan dekon semie bisitetan doala? Berak kontetan doztezan eh!”

“Hareri komuniñoari hainka ein notzon ta “nik bekatu ein dot... bekatu ein dot...” Ze ez bien ixten haginekaz ukitzerik... Ta nik neure kezkiegaz egun osoan. Zelan egon nintzen! “

Gerra garaian gertatutakoa onartu eta aurrera begiratzeko mezua zabaltzeko ardura ere Elizaren esku zegoen. Helburu honekin gero eta ospakizun gehiago burutuko dira. Herri osoa partehartuko du ospakizun hauetan eta gizarteratzeko modua bilakatuko dira. Herritar guztiak partehartzera derrigortuta egongo badira, emakumeen kasuan nabarmenagoa izango da derrigortasun hau, emakumea orden morala ordezkatzeko baitu. Dena dela, partehartze masibo honen atzean, ez da egongo beti sinesmen sutua, bazik eta, herriaren aurrean ondo geratzeko beharra.

“Domekatan errosarixora danak eleiztarak baña oiñ ikusita neretzat “elizan sartu-urteneko eleiztar”.. eleiztarra izatea da ekintza baten ihardutie, ezta? Ta ordun, eleizara joan ta eleizatik urten ta “que católicos... van siempre a misa y van siempre al rosario...”.”

Erlijioaren derrigortasuna

Domeketako mezara herri osoa joaten zen. Emakumeak eta gizonak banatuta esertzen ziren eta elizkizunetara sartu ahal izateko ezinbestekoak ziren hiru elementu: mantila, eskuliburua eta errosarioa. Hauek derrigorrezkoak ziren emakumeen kasuan.

Argazkia: mantilagaz emakumeak

“Mesaliburuagaz, errosarixoa ta mantillie buruen joaten zinen mezara. Hori barik ez zan joaten inor bez, beno, andrak... gizonak bai.”

“Behin mantillie ahaztute joan nintzen elizara ta “oin ze eingot nik”. Elizera sartu ta mantillie non dekoten... ta kalera!”

Lehenengo errosariora, gero doktrinara eta azkenik Gernikatik buelta bat ematera joaten ziren gazteak.

“Domeketan lehenengo errosarixoa, gero dotriñie ta gero Gernikera.”

Konfesatzera astero astero joan ohi ziren apaizarengana. Momentu honeri beldurra izan ohi zioten neska gazteak baina euren burua garbitzeko balio zietela adierazten dute elkarrizketetan emakumeek. Konfesioa euren arazo eta beldurrak hitzegiteko lekua zela diote.

“Aste guztixetan joaten ginen konfesetan “Barkatzen dotzutez zure bizi guztixen ein dozuzen bekatu guztixek” “

“Hareri zure gora behera guztixek kontetan zenizkion ta konfesiñoak kendu diezenetik hona psikologoak eta gehitu ein diez”

Elkarte erlijiosoak

Elizak, erlijioaren eragina gizartean zabaltzeko, elkarte erlijiosoen laguntza jaso zuen. Elkartek hauen artean garrantzi handikoa izango da lehen aipatu dugun *Acción Católica*. Talde hau parrokiaren inguruan antolatuko da eta bere ekimenak, herriko ezaugarriak kontutan hartuz, manifestaldi publikoen bidez bideratuko ditu.

“Acción Católica nahiko talde handia zan Gerniken ta oin ikusirik eskumatarrak. Emakumeak ta gizonak izaten ziren.”

Hauen eragina emakumeengan handia izango da, *Acción Católica* moral pribatuaren zaintzailea izango delarik. Familietan ohitura kristauak berpiztea lortuko dute: errosarioa otoitz egitea, mahaia bedeinkatzea... Elementu hauek mende hasieratik emango badira ere, gizarte osoan zabaltzen maila altua orain lortuko dute.

“Vivíamos a misa diaria, en mi casa se rezaba el rosario todos los días.”

Elkarte honetaz gain, beste gizarte partehartze erlijiosoak ere baziren. Hauen artean Katekistak eta Sakristanak. Katekistak mende hasieratik herriko bizitza erlijiosoaren ardatz izango dira. *“La Catequesis de Nuestra Señora de la Consolación”* 1916an sortuko da. Talde hau Agustinoen eskolak bultzatua sortuko da eta 1927 urterako 250 eta 300 ume inguru joaten ziren katekesira.

Talde hau 22 emakumek osatzen zuten eta katekesiaz gain, lan asistentziala ere burutzen zuten: arropen banaketa, jostailuena... Partaideen artean honako hauek zeuden: Dolores Arriaga, Elisabet Lizarraga, María Teresa Argintxona, Kontxita Toña, Lolita Garcia, Mari Carmen Onaindia, Julia Gezuraga, María Martija, M^a Victoria Aranguena, Pilar Herran, Miren Berriatua, M^a Angeles Garteiz, M^a Dolores Zameza, M^a Dolores Askondo, Ana M^a Arana eta M^a Teresa Esperanza.

Argazkia: katekistak

Gaur arte mantenduko den eginkizuna izango da katekistena eta herriko emakume askok burutuko dute umeen artean erlijioaren inguruko ezagupenak zabaltzearen lana.

“Lehenengotan abadiak emoten bazan. Gero hasi ziren katekistak. Ni ere denbora baten ibili nintzan katekista txikitxuenei erakusten domeketan.”

Sakristanak ere, ezagunak izaten ziren herrian. Euren eginbeharra apaizari laguntzea zen. Orain sakristanen artean asko emakumeak badira ere, elkarriketatutako sakristana batek oso era argian adierazten du hasieran ez zela batere erraza izan. Normalean serorak edota alargunak hartzen zuten sakristana izateko ardura eta azterketa bat gainditzea ezinbestekoa izaten zen. Sakristana moduan ibilitakoen artean hauek aurkitu ditugu: Bittori Astelarra (Sta Luzia), Trinidad Izagirre (Gernika), Sor Kastora Nabarro (Josefinak, Gernika), Begoña Barandika Ama (Merzede), M^a Angeles Agirrelezpeiti (Lumo), M^a Jesús Larruzea (Lumo), Sor Nieves Verde (Kalzada).

Sakristanak: argazkia

“Alargundu ta gero ein nintzen sakristana. Bermiorako egon nintzen prepareta baina... Ume txikixen euki nebazan ta joan ta etorri... Ez zan egon hamen andra sakristana ta a gogorra izan zan. Baina berotu eiztien ta... “Apurtxu bat gitxitxuau irabazikozu baina ba umiekaz egon ahal izango zara...”. Baina gogorra izan zan ze orduen sasoian batu behar izaten zan halako ontzitzu batien dirua sillietan , banan banan ta a gogorra zan! Ez zan bandeje pasetie moduen, a konprometidua zan! Arinau gizonak izaten ziren sakristanak eta nere tio be izan zan. Ni izan nintzen lehenengo emakume sakristana. Examina ein behar izan naben Bilbon. Diputaziñorako examina ein behar izan neban. Agarreu beharzendun zeuzer umiek nahi bazenduzen atara aurrera!”

Aberatsen aldeko Eliza

Elkarrizketetan behin eta berriz agertuko den gaia, Elizak pobre eta aberatsen artean egiten zuen banaketa izango da. Banaketa honen adibide garbiena hiletak ziren. Elizan hileta erritua burutu ahal izateko *diezmos* y *primicias* ordaindu behar ziren eta honen arabera izango zen funerala.

“Diezmos y primicias ordaindu behar ziren ostantxien negeu ahal ziren funerala eiteari. Funeralak egoten ziren 3 klasetakoak: bat primerakoa kapakin ta elegante, bigarrena erdikoa ta hirugarrena pobre pobretxue.”

“Pobrieri ez dotzien kasurik eiten...”

Egoera hau islatuko duen kanta bat ere abesten zela jakin izan dugu. Famili pobre baten funeralean “Arin arin, hemen ez dago zer egin” esaten zuen jendeak eta aberatsen funelaretan ordea, “*Honek bauko bauko*”.

Beste arau erlijiosoak ez betetzeko ere, dirua izaten zen erabili beharreko tresna. Ostiraletan haragia jateko adibidez, ordaindu besterik ez zen egin behar.

“Buldie pagetan bazendun okela barikutan jan ahal zendun.”

Zentzu honetan Elizak bere mezuetan pobreekiko errukia eta karitate kristauaren zabaltzen zuen bitartean, aberastasun handiak zituela ere salatu du emakume bat baino gehiagok.

“Badakizue zenbat armarixo danak bete beterik! Zenbat biaje kotxien, kotxekadak Jose Luis Abaunzagaz Santa Klarara! Harek kapak... Aberatsak zirenei kantakaz ta gauza handixegaz!”

Erregimenaren aldeko Eliza

Elizak erregimenaren aldeko jarrera nabarmena hartu zuela esan beharrik ez dago. Gertaerta honek kontraesan ugari sortu zituen gernikar herritar askoren artean. Alde batetik, betidanik kristauak izandako herritarrak, euren herria suntsitu eta herriko seme-alaben hiltzaileen alde agertzen zen Elizaren jarraitzaileak izan behar zuten.

Gerra eta gero, lehenengo agerian geratuko den aldaketa, mezak euskaraz ematearen debekua izango da.

“Euskara eleiza barruan erabiltzen gendun baina lehenengo urtietan euskaraz berbaitie galazota ta zigortute egon zan. Zigor asko egoten zan euskaraz eiten zendulako...”

Dena dela, abadeen arteko desberdintasunak agerian geratzen dira elkarriketetan.

“Abadiak be esaten dabe: “Nik lehen esaten nebazan gauza batzuk esatearena lotsatu eingo nintzen goitik beheraino...”. Hemen esate baterako gerra bueltan

abade asko oso txarto porte zan. Beste batzuk hil ein zituen. Aldie egoten zan abade batzuengandik besteetara!"

"Gogotan dekot aldizkada baten, botaziñoak direla ta, Frankon aldekoak bakarrik ziren onak ta arrazoitsuak ta haren kontra eiten bienak ziren kondenatutakoak. Ta Acción Católica urten ban hori sendatuten ta nik badakit Gerniketik hainbat lagun joan zirela abadengana ta "Hauxe ta hauxe diño ta nik ez dot gure botorik bota Frankon aldera... nik ez dot pentsetan txarrik eiten dotenik baina Acción Católikak hauxe ta hauxe diño... » ta « Trankil ! Zuk zure barruek esaten dotzunari eranzun ta horri danari kasurik pez!"

Kristau sutsuak ziren pertsona askoren artean, ezinegona sortuko du egoera honek eta abade batzuen mezuen aurkako jarrerak nabarmentzen hasiko dira. Egoera honek eragingo dituen arazoak ez dira gutxi izango.

"Nik behin baino gehiagotan ein dot konfesionariora aitortzen jun ta kriston iskanbila eukin ta urten, abadieaz. Baina ordurako neu heldute !"

Aldaketak Elizaren barruan

Garai honetan gizartean emango diren aldaketek eragin zuzena izango dute Eliza ofizialean. Vatikanoko II. Kontzilioan hartutako erabakiek, Elizaren modernizazioa eragingo dute. Modernizazio hau ez da hierarkia eklesiastikotik bultzatuko den zerbait izango, elizaren oinarrietan sortuko den fenomeno baizik. Belunaldi berriaren eragina ez da soilik gizartean eta herrian nabarituko, elizaren barruan ere apaiz gazteen sarrerak eragin handia izango due fenomeno honetan.

"Cuando Vaticano II se quitó lo de la mantilla. La misa y todo cambió también. Del latín a castellano y euskera... Abrió muchas puertas que luego se han ido cerrando, pero bueno."

Egunerokotasunean jarraitu beharreko arau batzuen aldaketa ere suposatuko du zabalpen honek. Emakumeak mezetara manga laburrean, mantila barik edota prakekin joatea denbora eskatuko duten aldaketak izango dira. Adibide hauek aldaketa sakonagoen adierazle besterik ez

badira ere, emakumeek euren gorputza eta estetikaren inguruan askatasun handiagoa lortzea suposatuko dute.

“Gure Kristina elizara zan udan manga laburregaz uden ta kanpora.”

“Y al quitarnos la mantilla yo me acuerdo que fui a confesar sin mantilla y mi tia por detrás ¡con un pañuelo por arriba!”

“Eso también costó, a misa sin mantilla.”


“Yo una vez que me quité la mantilla ya no me puse otra vez”

Apaizak, erregimenaren ideologiaren ispilua izatetik, gizartean zeuden arazokiko kezka adieraztera pasatuko dira. Euskal Herrian gainera, beste elementu bat ere gehituko zaio aldaketa honi, politikoki zegoen egoera bereziarekiko kezka. Egoera berezi hau islatuko duen mugimendua sortuko da Gernikan Gizarte Etxearen inguruan. Gizarte Etxea, 1959an eraikitzen hasi zen Elizaren lokaletan gernikarren aportazioari esker eta honen babespean sortu ziren talde eta mugimendu sozialak. Etxetik kanpo zerbait egitearen beharrak eta beste emakumeekin biltzeko nahiak, elizaren inguruan emakumeen antolaketa eragin zuen. Arazo sozialekiko ardura zuten apaizen eragina ere azpimarratzekoa izan zen.

Elkarrizketatutako emakume gehienek ustez, belaunaldi oso baten gaineko moral ezarpen hertsia eragin du Elizak. Denborarekin, euren beldur eta frustrazioak ateratzeko lan handia egin behar izan dute emakume askok eta oraindik ere errepresio honen eraginak nabarmentzen direla diote.

“Erljiñoaren garrantzia emakumeen bizitzan handia izan da. Urte batzutatik hona ez dakit ba! Eleizan esaten zan guztixe zintzo hartzen gendun ezta, ta eleiza be atzeratute egon zala uste dot ta edozein inuxentekeri be bekatutzat jotzen zan.

HEZKUNTZA



Argazkia. Karmeliten antzinako bat

HEZKUNTZA

Mende hasieran, lehenengo pausuak (1900-1930)

Nesken heziketaren inguruko eztabaida

Garaiko hezkuntza mailako eztabaida politikoari dagokionez, aldaketa legislatibo garrantzitsuak burutuko ditu gobernuak 1901. urtean. Aldaketa hauek *Institución Libre de Enseñanza* erakundeak defendatutako balore eta ideietan oinarrituta zegoen. Erakunde famatuak, hezkuntza kritiko eta praktikoaren aldeko apostua egin zuen, ordurarteko proposamen aurrerakoiena planteatuz. Hezkuntzaren inguruko eztabaida integral honetan, bi aspekturi ematen zitzaion garrantzia, edukinei eta bereziki pedagogiari. Eskola honek sexuen arteko bereizketarekin amaitzea beharrezkoa zela uste zuen eta irakaskuntza hezkidetzaille baten beharra aldarrikatuko du. Idei hauen kontrako jarrerak laster agertuko dira. Mendearen hasieran oso zabalduta zegoen ideia, emakume eta gizonen arteko adimen-gaitasunaren inguruko desberdintasuna zen eta beraz, ideiei honen defendatzaileen ustez, irakaskuntza hezkidetzaille bat planteatzeak arazoak handitu besterik ez zituen egingo.

Gobernuaren helburu nagusien artean, analfetismo tasa handiari amaiera ematea izango da. Bizkaian ere, haurren eskolaratzea zabaltzeko ekimenak oso garrantzitsuak izan ziren baina neska eta mutilen arteko desoreka nabarmena izango da. Bizkaiko emakumeen % 53a analfabetoa zen eta beste portzentai handi batek oso gaizki irakurri eta idazten zuen. Erakundeetatik egoera honekin amaitzeko saiakerak, Karmelitei udaletxeak emandako dirulaguntzetan antzeman daitezke. Etorkizunerako apostu moduan ulertzen zuten nesken irakaskuntzaren sustapena baina, beti ere, garaiko idealen barruan.

Hartutako neurriei esker nesken eskolaratzea gero eta handiagoa izango da baina kontutan hartzekoa da eguneroko asistentzia oso txikia zela. Neskak oso gazte hasten ziren etxean laguntzen eta askotan oinarritzko jakintzak baino ez zituzten jasotzen.

Sexuaren arabeko banaketa

Mende hasierako eskola gehienetan ez zen irakaskuntza mixtoa eskaintzen. Salbuespena Barriadako eskola izango da. Eskola hau Aldundiaren menpe zegoen eta neskak eta mutilak elkarrekin ikasten zuten. Elkarriketatutako emakume asko, inguruko herrietakoak ziren eta beraz

euren herrietako eskoletan ikasi zuten. Hauen testigantzei esker, herri batzutan neskak eta mutilak batera ikasi zutela jakin izan dugu.

“Arratzun be egon zien baia gu neska ta mutilak klase berean egoten ginen”

Normalena ordea, neskak eta mutilak bananduta ikastea izaten zen. Nesken eta mutilen eskolak egoten ziren baina inguruko herrietan denontzako eskola bakarra egoten zen eta klaseetan banatzen zituzten neskak eta mutilak. Baina banaketa ez zen ikasgelara mugatzen.

Argazkia: ikasle taldea

“ Ni mutilekin ibiliz gero halako bronka bat egoten zan e! Patixoan alderdi batien egon ziren mutilek ta bestien neskak ta mutilek euren partetik ibiltzen ez bazien ta nesken partera etorten baziren, gu maestrieri kejegaz joaten giñen: “¡Los chicos andan en nuestra parte!” ta arin urtetan zan maestrie ta jartzen bazan neurrian danak... Neska danak klase batean egoten ginen maestra bategaz danak.”

Irakaskuntzan mailen antolaketa

Oinarrizko hezkuntza 6 urterekin hasi eta 14 urterekin amaitzen bazen ere, neska askok 12 urterekin utziko dute eskola lanean hasteko. Oso neska gutxi heltzen zen zortzigarren gradura eta heltzen zena, goi familia baten alaba zelako izaten zen. Familia aberatsen alabak kanpora joan ohi ziren ikastera alde batetik ahalmen ekonomikoa zutelako kanpora bidaltzeko baina bestetik ospea mantentzeko elementua bilakatu zelako.

*“Neska bakarra egon zan gure denborien estudixoagaz jarraitu bana.
Maestrarako ikasi ban.”*

Itziar Arrospide (1902-1999)

Itziar 1902an jaio zen Muxikan eta lau urterekin Goienkaleko parbularian hasi bazen ere, Karmeliten eskola izango da bere lehenengo irakaskuntzako zentrua. Bergarako Maríaren Konpainiatik pasa eta gero, Madrilera abiatu zen *Residencia Internacional de Señoritas* famatura. 1915ean sorturiko egoitza honek, lehenengo goi ikasketak burutuko dituzten emakumeak bilduko ditu.

Itziar Arrospidek garaiko irakaskuntzako egoitzarik aurreratuenan ikasi zuen. Zuzendaria eta Itziarren irakaslea María de Maeztu arabar pedagoga izan zen, *Institución Libre de Enseñanza* erakunde famatuaren berrikuntza korrontearen jarraitzaile eta defendatzailea. Gernikara itzuli baino lehen Madrileko Kontserbatorioan musika eta piano ikasketak ere burutu zituen Itziarrek.

Edukinak, neskentzako egokiak

Dena dela, nesken heziketa etxekoandre eta ama on bat izatera bideratuta egongo da lehen esan dugun moduan. Honekin zuzenean erlazonaturik ez zeuden edukinak espezialitate konketu batzuetara mugatu ohi zen: musika, poesia, irakaskuntza... Beti ere, artearekin edota besteen zainketa eta heziketarekin loturiko gaietara mugatu ohi zelarik. Honen inguruko zehaztapenak oso era argian agertzen dira Karmeliten eskolako arautegian.

Edukinen artean bazen orain arte aipatu ez dugun gai bat garrantzi handikoa: erlijioa. Arratsaldetan apaiza joan ohi zen eskolara katezismoa irakastera eta ikasleak egun berezietarako prestatzen zituzten: Aste Santua, maiatzako loreak... Karmeliten eskola pribatuan erlijioaren garrantzia oraindik handiagoa zen euren arautegian oso argi agertzen delarik:

“Siendo la religión el primer deber de la mujer y la base de la familia y de la sociedad, su estudio ocupará el primer lugar, estando la explicación de dicha asignatura a cargo del Rvdo. P. Capellán del Colegio”

Ikasteko materiala

Erabiltzen zuten material bakarra entziklopedia bat zen ikasgai guztiak biltzen zituena. Oinarrizko irakaspenak gramatika, aditzak eta kaligrafiari zegozkionak izaten ziren matematikako oinarrizko edukinekin batera. Helburua irakurtzea, idaztea eta kontuak egiten jakitea izaten zen. Mutilek marrazketa ere ikasten zuten baina neskek beste mota bateko ikasgaiak jasotzen zituzten: eskulanak edo kostura. Eskolara arbela eta klariona eraman behar zituzten.

“Entzikopedi txikixe ta gero nagusixe ikasten gendun. Katoie ikasten gendun...”

“Pizarriñe ta klariona eroaten gendun eskolara.”

Jolasak

Klaseak goizeko 9etatik 12etara eta arratsaldeko 14etatik 16etara irauten zuten. Goizean ordu erdiko jostaldia egoten zen. Ordu erdi hori, garaiko jokoetara jolasten ematen zuten: marrora, tronpara, hartza edo igelaren jausira, astora, sokara, pilotara... Emakume batzuen hitzetan, sokadantzan jolasteko abesti berezi bat erabiltzen zuten: *“Un francés pasó por francescale y compró tres panes de los grandes y dijo: ¡Hay que ricos son los panes de Erretxin,txin,txin...”*. Elkarriketetan beste jolas batzuk ere aipatu dituzte emakumeek: *tukamika, primera y segunda, cielos María* eta *txistorrie*.

“Tukamikan olgetan gendun”

“Ta primera y segundan kamiñoan erdixen. Kotxe gitxi ibiltzen zan orduen...”

“Gero cielos Maríaka be bai...”

“Ta txistorrien asko! Txistorrie izaten zan han ipini fila bat intxurrek ta txiki txiki...”

“Ein kuadrue ta erdian txistiñe ta hurrunetik beste intxur bat bota ta a einez gero danak irabazten ziren.”

Jolas batzutara, mutilak neskak baino gehiago jolasten zuten baina futbolera neskek ere jolasten zutela jakin izan dugu, bereziki Barriadako eskola mixtoan.

“Joko batzuk bardiñak baina...”

“Kaniketara mutilek ibiltzen ziren asko”

Batzutan Sukarrietara joaten ziren eta bidean honako abestia abesten zuten: *“En tren de recreo de Guernica salen las chicas y los chicos para Pedernales...”*.

Hizkuntza bakarra, espainola

Aipatutako izenetan eta kantetan espainolaren presentzia nabarmentzen bada ere, ikasle gehienak euskaldunak ziren eta espainolez nahiko gaizki moldatzen ziren. Eskoletan ordea, espainola inposatu egin zen, gehien bat gerratik aurrera.

Karmelitetako argazki bat

Herriko eskolen mapa

XX. mendearen lehenengo urteetan, 400 neska mutil inguruk ikasiko dute eskola publikoetan Gernikan. 1927. arte, mutilen eskola bi zeuden *Paseo de la Unión* kalean, beste bi neskenak *Santa María* eta *Ocho de Enero* kaleetan. 1888.tik ere, Lumoko udaletxe zaharrean haur hezkuntzako beste eskola bat ere bazen *Sagrada Familia Elkarteko Ahizpek* bideratutakoa. Eskola honen zuzendaria Eugenia Sierra izan zen. Eskola dominikalak ere baziren, oinarritzko

jakintzak zabalduko dituztenak 1932.rarte. Amaitzeko, irakaskuntzako beste bi instituzio publikoak Arte eta Lanbide Eskola, 1905.an sortua, eta Barriadako eskola izango dira. Eskola hau 1924.an zabaldu zuten eta irakaskuntza elebiduna eskeintzen zuen. Gernikako nesken eskola publikoa, 1927. urtean ireki zituen bere ateak, mutilen eskola publikoa baino 42 urte beranduago.

Argazkia: nesken eskolaren inaugurazio bazkaria

Eskolen mapa, eskola pribatuek osatuko dute. 1894.ko *Memoria del extracto general de la Primera Enseñanza de la Provincia de Vizcaya* delakoan, eskolaurreko eskola pribatu bat eta neskentzako Lehen hezkuntzako beste eskola bat zeudela argitzen digu. Lehen hezkuntzako eskola hau Kaltzada Egotetxean zegoen eta Sor Ana Gorosabel Ama nagusia zen irakaslea. Baina eskola pribatuen artean garrantzitsuenak dudarik gabe 1896an sorturiko Agustinoen mutilentzako eskola eta neskentzako Karmeliten eskola (gaur eguneko San Fidel ikastola) izango dira. Eskola hauek, herriko eliteen laguntzarekin sortuko dira. Eliteek eskola publikoak baino zerbait bereziagoa nahi zuten euren seme-alabak heitzeko eta Bigarren hezkuntza burutzeko kanpora joan behar izatea ere arrazoi garrantzitsua zen eskola pribatu hauek sortzeko.

1927.rarte, nesken eskola publikoa sortu arte, nesken irakaskuntzari dagokionez eskola nagusia Karmeliten izango da. Karmelitak 1901eko irailan hasi ziren Artekalen klaseak ematen eta sei urte beranduago gaurko San Fidel ikastolak duen eraikuntzan ezarriko dira. Agustinoak 1896an sortutako mutilen eskolaren eskaintza neskei zabaltzeko sortuko dute karmelitek eskola hau. Artekaleko lehenengo eraikuntza, Teofila de Aguirre y Olaeta andreak eskeiniko du bertan neskentzako klaseak eman zitzaizten. San Fidel izena, Teofilaren amaren omenez jarri zitzaion, Fidela de Olaeta y Salazar. Eskolan ikasten hasiko den neska kopurua ikusirik, laster behar izango dute eraikuntza berri bat eta Ramón de Goiria y Basterretxeak Txorraburun zuen etxe bat eskeiniko die.

Argazkia: Fidela

Eskolak barne-ikasle, pentsio erdiko ikasle eta kanpo-ikasle moduan ikasteko aukera eskeintzen zuten. Ikasleak onartzeko baldintzak honako hauek ziren: mediku baten ziurtagiria gaixotasunik ez zuela baieztatuz, bataiatua zegoela ziurtatzen zuen agiria (*Fe de Bautismo* delakoa), *Bula de la Santa Cruzada* delakoa eta abinentziako indultoa. Guraso edo tutoreei, barne araudiaren liburuxka ematen zitzaizkien eta bertan argi geratzen zen erlijioan oinarrituriko hezkuntza eskeintzen zuen eskola zela *“la religión es el primer deber de la mujer y la base de la familia y de la sociedad”*.

Deigarria da karmeliten eskolaren eraikin berriari oneritzia emateko, klaseetako altzariei buruz txostenean agertzen zen esaldi hau: *“Mobiliario escolar: Las mesas, dispuestas para dos alumnas cada una, están construidas de manera que se evitan las actitudes viciosas, y para que las niñas tengan el cuerpo recto y estén sentadas sobre ambas nalgas, los muslos doblados en ángulo recto sobre el tronco y las piernas sobre el muslo correspondiente...”*. Garaiko pentsakeraren eredu bat baino ez bada ere, oso esanguratsua da.

Eskolako sortzaileak Josefa Labaca de los Querublnés (Ama Nagusia), Gabina Elustondo de San José, Francisca Pedrol de los Santos Inocentes, Josefa Antonia Irureta de Santa Teresa, María Uriarte de la Ascensión eta Caridad Sáenz de San Estanislao izango dira.

1923. urtean, Primo de Riveraren argitaldiarekin, politika berri bat martxan jarriko da. Gizarte mailako politika berri honen emaitza, 1927.ko Nesken eskolaren sorrera izango da. Nesken irakasleak Magdalena Hernando, Agustina Pia Obieta, Modesta Alcalde, María Sagarbarria, Pilar Lacalle, Pilar Apezetxea, eta Dolores Ruiz Porras izango dira. Nesken heziketarentzako aldaketa garrantzitsua suposatuko du eskola honen sortzea, eta bereziki, alfabetatze tasetan.

D^a Magdalena Hernando Etxebarria (1848-1932)

Gernikan egon ziren lehenengo maistretako bat izan zen Magdalena. Bere gurasoak Gasteizkoak ziren eta ziurrenik han aterako zuen magisteritza titulua 1865ean. Urte horretan etorri zen Gernikara eta 1914rarte eman zituen klaseak “Escuela de Niñas del Distrito Norte” delakoan.

48 urte lanean egon eta gero erretiratu zen eta urte horretan bertan, 1914an, Udaletxeak “hija adoptiva de la Villa” izendatu zuen burututako lanaren omenez.

Irakasle gehienak, emakumeak

Mende hasierako irakasleei dagokionez, datu batzuk batu ahal izan ditugu. Irakasle lana, emakumeek bereganatu zuten lehenengo lanbideetako bat izan zen. Hauei errespetu handia izaten zitzairen, batzuk merezi zutelako baina beste batzuren kasuan, erabiltzen zuten metodo

disziplinarioengatik: *tente tieso o palo seco*. Ikasleak *gaizki* portatzen baziren, arotzak egindako puntero batekin konpontzen zen arazoa.

Irakasle gehienak, familia aberatsetako alabak izaten ziren. Argi dago, garai honetan irakasle izateko adina irakaspen jasotako emakumea, famili ahaltsu batekoa izan ohi zela. Asko ezkonduak egoten ziren eta umeak izaten zituzten. Hauekin eta etxeko eginbeharrekin laguntzeko neskameak izan ohi zituzten.

Aurkitu ditugun irakasleen artean honako hauek daude:

- Lumoko Eskola:
 - Eugenia Serra. Zuzendaria. 1888.
 - Juana Tere Basabe. 1897-1900.
 - Jesusa Irazabal. 1901.
 - M^a Nieves Gomeza. 1928-1934.
- Artes y Oficios:
 - Celestina Agilexpeiti. Mende hasieran erraldoien jantziak egin zituen jostuna.
 - Francisca Olaeta.
 - Telesfora Mintegia.
- Nesken Eskola:
 - Distrito Norte:
 - D^a Magdalena Hernando Etxebarria. 1865-1914.
 - D^a Agustina Pía Obieta. 1914-1935.
 - Distrito Sur:
 - D^a Modesta Alcalde. 1879-1902.
 - D^a María Sagarberria. 1903-1916.
 - D^a Pilar Lacalle. 1916-1920.
 - D^a Pilar Apezetxea. 1920-1925. Isabel Katolikoaren zintarekin saritua.
 - D^a Dolores Ruiz Porras. 1925-1935.

- Concepción Ortiz. Musika irakaslea. 1929.
- Karmelitik:
 - Sortzaileak: Josefa Labaca de los Querublnés (Ama Nagusia), Gabina Elustondo de San José, Francisca Pedrol de los Santos Inocentes, Josefa Antonia Irureta de Santa Teresa, María Uriarte de la Ascensión eta Caridad Sáenz de San Estanislao
 - M^a Carmen Alvarez Sobrino. Zuzendaria. 1932. Magisteritzako lizentziatura.
 - H^a Felisa Berraondo Berezibar. 1933. Magisteritzako lizentziatura.
 - H^a M^a Paula Ugarriza Inzunza. 1944. Magisteritzako lizentziatura.
 - H^a M^a del Carmen Coello. 1944. Filosofia eta letretako lizentziatura.
 - H^a M^a del Carmen Alvarez. 1944-45. Magisteritzako lizentziatura.
 - H^o M^a Benedicta Agirre. 1944-45. Magisteritzako lizentziatura.
 - H^a Carmen de Abasolo. 1944-45. Hizkuntzetako irakaslea.
 - Juana Ortuzar de San Rafael. 50. hamarkadan serora nagusia.

Errepublika eta guda (1931-1939)

Irakaskuntza publiko eta laikoaren aldeko neurriak

Errepublika garaian, irakaskuntza gizarte berria eraikitzeko oinarritzko elementu bilakatu zen. Hau dela eta lehengo helburua analafabetismo tasa altuekin amaitzea izango da. Kultura eremu eta pertsona orori heltzeko saiakerak etengabea burutu zuen gobernuak 1931 eta 1936 bitartean. Instrukzio Publikorako Ministerioak milaka eskola eta liburutegi publikoak sortu zituen eta milaka irakasleen prestakuntza ahalbidetu zuen. Errepublikaren helburua, irakaskuntza sistema publiko bat eratzea zen baina 1936ko altxamenduak ordurarteko saiakera guztiak zapuztu zituen.

Aldaketa nagusien artean honako hau dugu: Estatu laikoa ezartzeak irakaskuntzan izango duen eragina. 1933.an kongregazio erlijiosoek irakaskuntza arloan klaseak ematea debekatu zuen gobernuak eta karmelitetan lehen hezkuntzako klase batzuk soilik mantendu ahal izango dira. 1936.an eskolaren itxiera aginduko da. Eskola pribatuek Bigarren Hezkuntza mailan utziko zuten hutsunea aurreikusiz, udaletxeak dirulaguntza bat eskatuko dio 1933.an Aldundiari Bigarren Hezkuntzako Institutua zabaltzeko. *Karmelo Etxegarai Institutua* 1934-1935 urtean klaseak ematen hasiko da. Eskola publikoei dagokionez, Gernikan zeuden eskolak batu egingo dira eta neskak hiru taldetan banatuko dituzte adinaren arabera.

Guda eta geroko basamortua

Guda garaian, karmeliten eskola izandakoa, ospital bihurtu zuten zaurituak sendatzeko beharrari erantzuteko eta gerra amaitu eta gero soilik bueltatu zen eskola izatera. Bonbardaketa eta gero, egoera guztiz aldatu zen. (Ikus bonbardeaketaren atala)

“Institutoa erre ein zan ta ikasten jarraitzeko Bilbora jun bihar ta Bilbora joateko diru asko bihar! Orduen ume guztixek Gernikera harri artera joan ta inuxentekerixek eitten, egunero berdiñe!”

Frankismoaren eskola, garaileen eskola (1940-1975)

Eskola, balore frankisten transmisiorako tresna

Okupazioa eta gero, irakaskuntza erregimen berriaren baloreak transmititzeko tresna bilakatu zen. Disziplina, obediencia, moralitasun zorrotza eta erlijioarekiko atxikimendu osoa lortzeko tresna zen eta honetarako edukin eta pedagogia konkretuak erabili zituzten.

“Gure maistra batek atzamarrak elkartu ta regliegaz, esku guztixe... jakin ez ta berak erregliegaz pa, pa!”

Irakasleen artean depurazioak egon ziren. Maistra asko kartzelaratu zituzten eta gorriak izateagatik errepresio latza pairatu beharko dute. (Ikus bonbardeaketaren atala)

Erljioa, hezkuntzaren oinarri

Kongregazio erlijiosoen eskolak berriro ere zabalduko dira eta gobernu berriak laguntza berezia emango die eskola hauei. 1937ko urrian jaso zuen Karmeliten eskolak zabaltzeko baimena. Lehen eta Bigarren Hezkuntzako klaseak eskaintzen hasiko dira. Batxilergoko azterketa ordea, Bilbon egin behar izaten zuten ikasleek. Magisteritzako gai batzuk ere eskaintzen hasiko dira.

Gerran gertatutakoa eta euskalduntasuna, tabu

Bonbardeoan gertatutakoaren inguruan garaileen bertsioa inposatu zen eta eskola erabili zuten euskara eta euskalduntasuna ezaugarri folklorikoetara murrizteko.

“Eskolan “Cara al sol” eta “Viva España” kantatu behar izaten gendun eskua altxeta. Eskolan maistra erdaldune euki gendun ta guk ez gendun erdararik jakin bape ta guk euskaraz eiten gendun ta “¡no hablar en vascuence!” ta 100 biderrez idatzi behar izaten gendun...”

“Ez bien ixten euskaraz eiten...”

Eskolak zabaltzen zuen mezueta bat, euskara eta euskalduntasuna kulturarik gabeko pertsonentzako zirela izan zen. Euskararen erabilpena debekatu eta espainola erabiltzera derrigortu zituzten gernikarrak. Honen ondorioz, elkarriketatutako emakume asko, ez euskaraz, ez erdaraz ondo hitzegiteko gai ez direla diote.

Eskolan ere, emakume berria

Estatu Berriaren oinarri garrantzitsuenetako bat familia zen, honen barruan gizona eta emakumearen papera oso ondo bereiztu zituztelarik. Amatasunaren eta etxeko andrearen papera ondo bete ahal izateko bideratu zen, beraz, nesken heziketa. Ondorioz, gizona arrazoimenarekin identifikatzen bazen eta emakumea sentimenduekin, irakaskuntzak gizonak mundua gidatzeko prestatu beharko ditu eta emakumeak etorkizuneko emazte eta ama izateko.

“El problema de la educación femenina exige un planteamiento nuevo. En primer lugar se impone una vuelta a la sana tradición que veía en la mujer la hija, la esposa, la madre y no la “intelectual” pedantesca que intenta en vano igualar los dominios de la Ciencia. Cada cosa en su sitio.” (Maillo, A.: Educación y revolución. Los fundamentos de una Educación Nacional.1943. Pags 93-94)

Elizak ere ideia hau behin eta berriz errepikatuko du. Fray Luis de León, *Perfecta casada* liburuan honako hau idazten zuen:

“así como a la mujer buena y honesta la naturaleza no la hizo para el estudio de las ciencias ni para los negocios de dificultades, sino para un solo oficio simple y doméstico, así les limitó el entender, y por consiguiente les tasó las palabras y las razones” 55 DE LEÓN, Fray Luis, La perfecta casada, edición de 1949, p. 145.

Sexuen araberako papera eta ikasteko gaitasuna desberdina zela defendatzen zutenez, sexuak banatzearen beharra agerikoa zen hezkuntza administrazioarentzat. Banaketa fisikoa ezartzeaz gain, edukinei dagokionez ere, oso bideratuak egongo dira sexu batera edo bestera. *Formación del Espíritu Nacional* delakoan, soinketan adibidez, mutilek soldaduen formakuntzarako ariketak egiten zituzten bitartean, neskek etorkizuneko emakume indartsu eta osasuntsua izatera bideratutako ariketak burutuko dituzte, etengabeko haurdunaldietarako prestakuntza lortuz.

Testu liburuetan, emakumea ama eta etxeakoandre moduan agertzen zen. Neskentzako bereziki prestaturiko liburuetan oso era argian banatzen zituzten amari eta aitari zegozkien funtzioak eta aita autoritatea eta dirua irabazten zuena zen bitartean, ama etxean eta familiaren zainketaz arduratzen zena zen. Eredu moduan erabiltzen zituzten emakumeen oso ezaugarri konkretuak goraiatzen zituzten: amatasuna, prudentzia edota sakrifizioa...

“Es la familia sana, fundamento de la sociedad; y la española es todavía la más sana del mundo; precisa preservarla de contagios disolventes, y para ello, educar a nuestras mujeres con esa aspiración: que sean ante todo, mujeres, el alma del hogar y aglutinante de la familia; que ellos son el trono y el reino de la mujer cristiana y española; y sin que con ello se proscriba la cultura femenina deseable, hay que tener en cuenta ante todo, que el sistema educativo de la mujer, debe mirar fundamentalmente al hogar; y que esto no debe olvidarse en ninguna escuela.” (Ministerio de Educación Nacional. *Circular a las Juntas Municipales de Educación PriMaría*. 1941)

Urtean behin gainera *Ejercicios Espirituales* deiturikoetan partehartzen zuten. Aste bat irauten zuten ariketa hauek eta etorkizuneko emakume eredugarria izateko oinarritzko edukinak barnerarazten zizkieten gazteei.

“Y había que ir a los ejercicios espirituales. Se hacían todos los años antes de Semana Santa y duraban unos 8 días.”

“Había que estar sin hablar en el colegio también...”

1945. urtean, *Ley de Enseñanza Primaria* onartu zuten irakaskuntza formala arautzeko. Lege honen bidez, 1970. urterarte indarrean egon zen sexuen arteko bereizketa eta irakaskuntzaren

feminizazioa ezarri zen. Lehen hezkuntza bi epealditan banatu zuen lege honek, orokorra 6 urtetatik 10 urtetara eta berezia, 10 urtetatik 12 urtetara. Neska gehienak, 12 urte ingururekin uzten zuten eskola. Bigarren hezkuntzari dagokionez, matrikulazioek behera egin zuten oinarritzko heziketa nahikoa zela zabaltzen zuen politikaren ondorioz.

“Mutilek izaten ziren inportantiagoak etxien eskolara joateko. Neskak etxeko biharra jakinez gero ba beno...”

Unibertsitateari dagokionez, gernikar emakumeen artean oso gutxi burutu zituzten goi mailako ikasketak eta beti familia aberatsetako alabak eta emakumeentzako egokiak kontsideratzen ziren ikasketetan. Garai honetako emakumeen hitzetan, neska bakarra dute gogoan ikasketekin jarraitu zuena.

“Neska bakarra egon zan gure denborien estudixoagaz jarraitu bana. Maestrarako ikasi ban.”

Hezkuntza ez-formala

Erregimenaren doktrinazio lanetarako oso tresna eraginkorra *Sección Femenina* delakoa zen. Erakunde hau *Falange Españolako* emakumeek osatzen zuten eta Pilar Primo de Rivera izango da burua. Frankok erakunde honen ardurapean jarri zuen mezu falangistaren zabalpena familia guztietara heltzea. Hau lortzeko, herri guztietan bertako emakumeen gidaritzapean egongo diren zentruak zabaldu zituzten. Gernikan, Artekale kalean egon zen *Sección Femeninaren* zentrua, Adolfo Uriosterekin izkina egiten duen etxean.

Hezkuntza ez-formalean lan egin zuen herriko taldearen bidez, *Servicio Social Femeninoa* bideratzen zuten. Falangisten ustez, mutilek soldaduzka egitera behartuak zeuden moduan, neskek ere aberriarekiko zerbitzuren bat bete behar zuten eta honetarako *Servicio Social Femenino* delakoa sortu zuten. Zerbitzu hau karidade ekintzetan, gaixo eta nagusien zainketan eta etxekoandre on baten heziketan oinarritzen zen. Zerbitzuaren gutxieneko iraupena 6 hilabetetakoa izaten zen baina 3 urtetan zehar tartekatzea posible zen.

“Nosotras no podemos hacer nada más que interpretar lo que los hombres han hecho. La imposición del Servicio Social a la mujer española, ha de servir para

aplicar las aptitudes femeninas en alivio de los dolores producidos por la lucha y las angustias sociales de la postguerra.” (Pilar Primo de Rivera, 1943)

Talde lokalak hezkuntza ez-formalean lan egiten bazuen ere, esan beharra dago Sección Femeninaren kontrolpean zeudela magisteritza eskolak. Hau dela eta, irakasleak oso norabide konkretuan bideratzen zituzten. Bigarren hezkuntzan ere, euren ideiak ezartzeko 1953eko *Ley de Ordenación de Enseñanza Media* legea onartu zuten. Honen bidez, *Escuela de Hogar* derrigor ezarri zuten eta rebalidan titulua lortzeko ezinbesteko baldintza, jakintza hauen inguruko froga espezifiko bat gainditzea zen. Esaldi honekin laburbiltzen zen ereduia ezarri zuten: *“Mujeres para Dios, Para la Patria y para el hogar”*.

Maila sozialen arteko bereizketa

Elkarrizketatutako emakumeek oso argi zutena, eskola barruan zegoen banaketa da. Gizartean zeuden klase desberdinen arteko aldea, oso nabarmena zen eskolan ere. Alde batetik, familia gehienen alabak zeuden eta bestetik, familia aberatsetakoak. Banaketa arlo guztietan nabarmentzen zen: edukinetan, irakasleetan... Batzuk lurra garbitzen jartzen zituztela ere esan izan dute baina beste batzuk ezeztatzen dute. Banaketa handia egon zela ordea, denek azpimarratzen duten zerbait da.

“Karmelitan “Las de sin pago”, esaten bien: “Atzeko atetik sartzen ginen ta denbora guztixen beiri brilloa ataten ibiltzen ginen! ” Baña ez dot sinistuten... berezitate egon zirala bai.”

Nesken matrikulazioen hazkundera

Frankismoaren erdialdean emandako aldaketa nagusien artean, bigarren hezkuntzan matrikulatutako emakume kopuruaren handitzea izan zen. Errealitate berri honi erantzuteko, 1957. urtean *Bachillerato Laboral Femenino*a sortu zuen Hezkuntza Ministeritzak.

Herrian egondako hazkunde demografikoak, eragin zuzena izan zuen irakaskuntzan. 1959. urtean zeuden 8089 biztanleetatik, 1968.ko 13469 biztanleetara pasatu zen Gernika eta eskola zentsuari dagokionez, 1960ko 893 ikasleetatik (464 mutil eta 429 neska) 1968ko 1734 ikasleetara. Hazkundearen arrazoiak, inguruko herrien anexioa izan zen. Egoera berriari erantzuteko, haur hezkuntzako gela berriak ireki ziren, nesken gelak *Sagrado Corazón*

eraikuntzaren goiko aldean kokatu zutelarik. Nesken eta mutilen eskolak, *Agrupación Escolar Mixta* delakoa osatzen zuten. Honen zuzendaria Florencia Landaluze izan zen.

Nesken sarrera Bigarren hezkuntzan

Karmelitetan batxilergoa irakasteko baimena jaso zutenetik, erdi mailako ikasketak burutzen zituen neska kopurua gero eta handiagoa zen. Gerraostetik martxan zegoen prozezua zen nesken matrikulazioen hazkundea. Goi mailako batxilergoa ere, laster eskaini zuten eta idazkaritza eta kontabilitatea bezalako ikastaroak, oso onarpen handia izan zuten ikasleen artean. Elkarrizketatutako emakumeen artean, prozezu honetan aintzindari izandako emakume bat dugu. Gerraosteko ikastaroetan ikasi zuen eta idazkari moduan lana topatu zuen lehengo emakumeetako bat da.

“Herrixer apur bat biribilduten hasi zanienez monja karmelitik mekanografia ta takigrafia irakasten bien ta hara joan nintzen. Han ikasi neban ta suertez neure bururako tokixe ein naben.”

Ekonomi hazkundeak eta modernizazioak, formazio sakon eta espezializatuagoa eskatzen zuen eta honi erantzuteko, *Campaña Nacional de Alfabetización* martxan jarri zuten gobernutik. Honen ondorioz, nesken matrikulazio tasa ordurarteko kopuru altuenetara heldu zen. Lehen hezkuntzan neskak %50a izango dira, Bigarren hezkuntza %45,6a eta Unibertsitatean %26a.

Karmeliten eskolako datuak bilduz, 1967.an 289 ikasle zituen lehen hezkuntzan eta 215 ikasle bigarren hezkuntzan. Dударik gabe, bigarren hezkuntzan nesken matrikulazio masiboa, hamarkada honetako lorpenik handiena izan zen. Karmeliten eskolaren garrantziarekin batera, berebiziko garrantzia izan zuen ere, 1963.an bere ateak ireki zituen Bigarren Hezkuntzako Institutuaren inaugurazioa. 1964. urtean, beste eskola bat ere sortuko da, La Merced ikastetxea. Ikastetxe honekin, Errenterian 1625. urtetik kokatuta dagoen Mertzediakomunitatea, hezkuntza arloan lanean hasi zen.

Akademien garrantzia

Akademia partikularren presentziak ere garrantzi handia izan du Gernikan. Akademia hauen artean Otazua aizpena eta Miren Endeizarena aipa ditzakegu. Formakuntzaren balioaz jabetutako gurasoek, euren alaben heziketari aurreko garaietan baino inportantzia handiagoa

emango diote. Ondorioz, nesken formakuntza 18 urte bete arte luzatuko da kasu gehienetan. Akademietaz aparte, eskolan ere klase partikularrak ematen zituzten irakasleek. Klase hauetara umeak bidaltzeko joera gaur egunerarte mantenduko den zerbait da.

Argazkia: Miren Endeizaren akademia

“Gure amak etxien euki ban nahiko talar! 6 ume ta denok ikasi genduzan amak jakin bazan gauza guztixek! Gure gurasoak nahiz ta baserritarrak izan buru argikoak ziren ta guretzat nahi izan bien bizimodu lasaiago ta jakintsuagoa. Denori eskolara ta gero partikularretara ofizixo bat topetako. “

“Hasta los 18 a la escuela. Íbamos a clases de francés y mis hermanas de música. También a costura. Todo el día teníamos ocupau. Yo tenía un padre

que nos ocupaba bien el tiempo, o sea, no nos dejaba con mucho tiempo libre para andar.”

Sevicio Social Femenino

Sección Femenina taldea ere errealitate berrira egokituko da, gizarte tradizionaletik kontsumo gizartera. *Escuelas de Hogar* kultura zentruak bilakatu zituzten konferentziak eta ikastaroak eskeintzeko. Edozein tramite burutu ahal izateko *Servicio Social Femenino*-a eginda edukitzea ezinbestekoa izaten jarraitzen zuen, gida baimena ateratzeko, pasaporte eskuratzeko edota unibertsitatean matrikulatzeko. Unibertsitatean matrikulatzeko, 1978-1979 ikasturtean zerbitzu soziala eskatzeari utzi zioten lehenengoa izan zen.

“Yo me saqué el carnet a los 18 años. Había que hacer el servicio social en la Falange. Era obligatorio.”

“Yo hice sin saber mi padre, o sea, fijaros hasta que esto... Fue un secreto entre mi madre y yo. Si no lo hacías no podías sacarte el pasaporte ni nada pero... mi padre antes de hacer opinaba que no había que sacar nada.”

Gernikako Sección Femeninako egoitza Artekale kalean zegoen, Adolfo Uriosterekin izkina egiten duen etxean. Zerbitzuan, etxeko lanak egiten ikasteko klaseak ematen zituzten baina ez zen horretara mugatzen, *Falange Españolaren* oinarriak ere ikasi behar izaten ziren. Gernikar neska gazte gehienek burutu behar izan zuten.

“El primer piso, donde está Gernika Gogoratuz, allí daban. Labores, un librito de la Falange... Necesitabas para todo. Los chicos iban al Servicio Militar.”

“Duraba un curso... ¡y no se si dos! Igual luego se acortó pero cuando nosotras era largo. Una canastilla también había que hacer por que luego al primer niño que nacía el día 1 le daban la canastilla... decían que le daban...”

“Punto de cruz hacíamos...”

Ikastaro eta klaseak, Falangeko kideek ematen zituzten. Normalean, herriko emakumeak izaten ziren. Elkarriketetan jarrera desberdinak agertzen dira emakume hauekiko. Batzuren ustez,

emakume hauetako batzuk klaseak emateko arrazioa titulazioa zutela zen baina beste batzuren ustez, emakume hauek falangistak izan ziren.

“Era gente de aquí. Esa porque iba a un curso de costura y ella tendría la titulación que pedían para ese puesto y se habría presentado.”

“La jefa tenía fama de que era familiar del Regimén.”

“Ellas destacaban. Normalmente yo sí que creo que eran del Movimiento.”

Frankismoaren amaiera, kontrastez beteriko garaia

Kontrastez beteriko garaia izango da honako hau. Emakumeen artean independentzi ekonomikoaren beharra barneratua egongo bada ere, aldaketa nahiak, ordurarteko errealitatearekin egiten zuen topo. Gero eta heziketa maila altuagotara helduko badira ere, ezkondu orduko, asko izango dira etxeko lanetara mugatuko diren emakumeak.

“Fui a las carmelitas, como todas, ¿no? Ibamos a las carmelitas con uniforme y con cuello blanco tieso tieso de plástico. Después de eso hice el bachiller elemental y luego a la tienda. Tenía una tienda mi tía y la llevábamos entre mi hermana y yo, de artículos de regalo y así. ¡Y hasta que me casé!”

“Gure heziketa hain izan da holakoa holakoa, ez dakitela... buruan hain sartunda deko...”

Beraz, eskola frankistak zabaldu zuen emakume ereduaren eragina nabarmena zen. Irakaskuntza maila altua eskuratzeak ordea, Franko hil eta geroko irakaskuntzaren egoeran eragin zuzena izango du. Haur eta lehen hezkuntzan, nesken eta mutilen matrikulazio kopuruetan ez da desberdintasun nabarmenik egongo. Daturik deigarrienak unibertsitatetako matrikulen orekatzea eta lanbide heziketetan emakumeen partehartzea izango dira. Lanbide heziketan, nesken presentzia idazkaritza moduloan nabarmenduko da eta unibertsitatean, emakumeen presentzia ia erabatekoa duten karrerak (magisteritza, erizaintza...) eta gizonen presentzia nagusia dutenak (ingenieritzak...) egongo dira mendearen bukaerararte.

Ikastolen sorrera

Frankismoaren bukaeran euskal irakaskuntzaren alde sorturiko mugimenduari esker, euskarazko klaseak klandestinitatetik atera ziren. Mugimendu honetan emakumeek paper nagusia bete zuten, hauetako batzuk urte luzeetan klandestinitatean euskarazko klaseak eman eta gero, ikastolaren sorrera lanetan laguntzen ibili zirelarik. Alicia Intxausti eta Juliana Berrojalbiz ajangiztar irakasleak, beste batzuren artean, etxeetan euskarazko klaseak era klandestinoan eman zituzten irakasleen artean daude.

Ikastolen sorrera, irakaskuntza mailan herritarrek burututako proiekturik handiena izan dela esan beharra dago. Euskal Herri osoan zabaldu zen mugimendu honen helburua, irakaskuntza euskaldun bat sortzea izan zen eta mugimendu honen protagonistak gurasoak ziren. Ikastolen filosofia, guztiz berritzailea zen ordurarteko eskola nazionalen aldean. Filosofia orokorraren ezaugarrien artean honako hauek aipatu daitezke: irakaskuntza euskalduna hizkuntzaz eta edukinez, pedagogia partehartzailea, mixtoa, hezkidetzaren aldekoa eta abar luze bat.

1966. urtean Seber Altube ikastola sortu zuen guraso talde batek. Lehenengo klaseak Gizarte Etxean eman zituzten eta beranduago, gaurko egoitzan zabaldu zuten gaur ezagutzen dugun ikastola. Lehenengo zuzendaria Elvira Iturri izan zen, idazkaria M^a Angeles Basabe eta irakaslea Pili Alberdi Etxeandia. Ikastolak, 12 ikaslerekin ireki zituen ateak baina urtez urte, bere ikasle kopurua gorantza joan da etengabe. Hiruzpalau kurtsoan 300 ikasle matrikulatuak zeuden ikastolan. Baina Seber Altube ez da herriko ikastola bakarra. Hamar urte beranduago, 1979-1980 ikasturtean, ordurarte karmeliten San Fidel eskola izandakoa, San Fidel Ikastola bihurtu zen. Irakaskuntza publikoari dagokionez, 1979.ko ikasturtean, D eredua Allende Salazar eskola publikoan ezarri zuten.

Seber altubeko argazkia.


Frankismoa eta gero... (1976-)

Frankismoa eta gero, estatu mailako irakaskuntza sistema berria definitzeko, edukinen eta pedagogiaren inguruko eztabaida nagusituko da. Irakaskuntzaren helburuak eta antolaketa guztiz aldatzeko prozesua martxan jarriko dute. Prozesu honen lehenengo pausuetarikoa, irakaskuntza mixtoa berrezartzea izango da. Zentru erlijioso batzuk kenduta, 1978.tik neskak eta mutilak elkarrekin ikasiko dute eskola publikoetan. Beste aldaketa nagusia, edukinetan eta hizkuntzan oinarrituko da. Balore desberdinak bultzatzeko hezkuntza sistema martxan jartzen saiatuko dira eskoletan.

Gernikako eskolak bi fenomenori erantzuna eman behar izango die, masifikazioari eta hezkuntza lege berriari. Eskolarako eraikuntza berri baten beharra nabarmena zen eta udaletxeak, Allendesalazarri erositako lurzorua, eskola berria eraikitzeke eskeini zuen. Bi urte beranduago, klaseak hasiko dira eraikin berrian baina honek ez zituen masifikazio arazoak konpondu. Inguruko herrietako ikasleak eskola honetan ikasten zuten eta osotara 2.200 ikasle izatera heldu zen. Inguruko herrietan zabaldu ziren eskolei esker, amaiera eman zitzaion arazoari. Barrutiako eskola 1979.an, Altamirakoa 1980.an eta Muxikakoa 1984. an.

Emakumeek, heziketa maila eta ikasketa mota guztietan eskuratutako presentzia, XX. mendeko lorpen nabarmenetakoa izan da. Garapena handia izan bada ere, oraindik eman beharreko pausu asko geratzen dira. Benetako irakaskuntza hezkidetzaillea eta edukinetan, genero ikuspegiaren kalitatezko lanketa burutzea, mahai gainean dauden apostuak dira.

LANA



Argazkia. Industriako bat

LANA

Gernikar emakumeak, emakume langileak

Mende hasierako Gernika, zonaldeko komertzio gune nagusia zen eta industriaren ezarpenerako oso eremu erakargarria. Mende osoan zehar ordea, nekazal populazioaren garrantzia ukaezina izan zen. Gernikarrak, nekazaritza, industria eta komertzioaren artean bizi ziren.

Gernikar emakumeak, ahal zuten jardueran ibiltzen ziren diru apur bat etxera eraman ahal izateko. 13 edo 14 urterekin eskolara joateari uzten zioten eta baserriko lanetan burubelarri, neskame, lantegi edota komertzio zein tabernetako zerbitzari moduan hasten ziren lanean. Hauek izaten ziren lanbide arruntenak baserri zein herriko neska gazteen artean.

“A la mujer vizcaina se la ve compartir con los labradores rudas faenas que exige la agricultura en los estériles campos de Vizcaya. En la clase obrera, o atendida a un jornal puramente eventual, no se limita la mujer de esta provincia a vivir dentro de su casa, cuidando tan sólo de las labores puramente domésticas, sino que, además, después de llenar aquéllas, se dedica a trabajos, a las veces demasiado rudos y excesivos, pero que sin duda alguna contribuye su producto a aumentar la holgura de las familias y a hacer más difícil la miseria en los casos de enfermedad, crisis industriales, etc.”

Lana arautzeko saiakera legislatiboak

Burutu zuten lana aztertzeko arazoak ordea handiak izan dira. Boteretik bultzatu nahi zuten eredu soziala eta benetako praktika ez zetozen bat eta zentsoetan bildutako datuek ez dute garaiko egoera erreala islatzen. 1900 urtetik aurrera, burges idealaren eredua langile eta nekazarien artean ezartzeko saiakera politikoak ugaritu ziren, honen adierazle nagusienetakoa 1900. urteko *Dato Legea* izango delarik. Martxoaren 13an onartutako lege honen helburua, emakume eta umeen lana arautzea izan zen eta hurrengo urteetan onartuko diren legeen oinarria hauxe bera izango da. 1902an 11 ordutako lan eguna ezarri zen eta 1913ko *Ley de Trabajo de Mujeres y Niños* delakoaren bidez, 10 urtetik beherakoen lana debekatu zen.

Lege hauek tailer eta fabrika eremura mugatzen ziren eta beraz, neskame, komertzio eta nekazal eremuko langileen lan baldintzak arautu gabe jarraituko dute, emakumeen artean gehien burutzen diren lanak hain zuzen ere.

Baserriko lanak

Mende hasieran, emakume gehienak nekazal eremuan egiten zuten lan, baserrietan. Emakume baserritarrek, etxeko lanen ardura izateaz gain, soroan eta ikuiluan ere egiten zuten lan. Egin beharreko lan gehienetan hartzen zuten parte: landaketan, zainketan, bilketan... Dena dela, etxe askotan bazen lan bat emakumeek egiten ez zutena: kortakoa. Animaliekin normalean gizonak egoten ziren eta emakumea soroko lanak egiteaz arduratzen zen. Honako hau ez zen ordea baserri guztietan betetzen.

“Etxien be jatekoak eiten ta artajorran ta ibiltan giñen. Danatakoa ein dot nik, klase guztixetako biharrak! . Bihar klase guztixek baserrikoak. Behiak jaitsi eta holakorik ez eh, horrek ez nebazan inoiz ein. Baina artajorran ta horrek... danak!”

Beste lan garrantzitsua baserrian ekoiztutako produktuen salmenta zen. Gernikara hurbiltzen ziren euren produktuak plazan saltzera otzara buruan zutela. Lan gogorra zen burutzen zutena eta normalean etxeko lanak eta ume txikien zainketa alaba nagusien artean banatu behar izaten zuten dena aurrera eraman ahal izateko.

Jasotako produktuak astelehenetako azokan saltzen zituzten eta horretarako goiz jeikitzen ziren. Oso normala zen emakumeak otzarak buruan zutela Gernika inguruko bideetatik ikustea. Diru apur bat irabazten zenean astoa eta gurdi bat erosi ohi zuten bidean salgaiak eramaten laguntzeko.



Baserritarrak azoka egunean Gernikako ¿ kalean. 19??

“Forukoa naz ta 14 urte euki nebazan gerrie hasi zanién ta gure aita hil ein bien ta gero amari laguntzeko ni hasi nintzen biarrak eiten. Joaten ginen gu astotxoagaz Bermiorarte, ze orduen Gerniken ez zan ezer saltzen, astoa kargau ta astoan atzetik joaten ginen. Goizeko 10tan urtenda 15 urtegaz hasi nintzen ta dana neu ze bestiek txikiak ziren: txikiénak urte t’erdi eukiko ban.”

Gerraostean Gernika suntsiturik zegoen eta beraz produktuak saltzera beste herri batzuetara joan ohi ziren: Bermeo, Lekeitio, Durango...

“Nik 13 urtegaz ama barik geratu nintzen ta astelehenetan etorten nintzen plazara karroa ta astoagaz. Karroa bete-bete ipinie oiloakaz ta karroa ixteko lekue be egoten zan plaza ondoan. Inoiz etorri nintzen txahala eraiten atzetik

akuluegaz oinez Belendiztik Bermiorarte eroateko txahala ta bakizue zelan eroan naben txahala Bermiora? Hemen egoten ziren gabarrak, ba hartun txahala, lotu gabarrara ta uger eiten uretik pla pla... Uretan uger joaten zan txahala!"

Janaria prestatzea ere emakumeen lana zen. Mende hasieran Gernikan nahiko ondo jaten zela esan beharra dago. Baserrietan ekoiztutako produktuak plazan saltzen ziren eta Gernika nahiko ondo hornitua zegoen. Haragiari dagokionez, txerri eta txahalen garrantzia handia zen, gehien bat txerriena. Urte osorako iraun behar zuen hiltzen zen animaliaaren haragia.

"Zezinie eiten zan etxien. Txahala hiltzen zan ta gazunezkixe deitzen zan kaja baten gordetzen zan. Izaten zan kaja bat zementoz edo einje ta txahala hiltzen zanian gatz asko asko askogaz alzan moduan ipinie, gatz inpernukoa! Gero makileu bihar ta halere gazi! Oin ere saltzen da pernile zezine moduen. Lehen etxien eiten zan. Jan be oingo moduen ez zan eiten. Taloa, ta taloa... Txerrixek urde mehie eukitzen bien "urde mehie dekona txerri txarra!". Aintxinako txerrixe hiltzen zanian urdaixek holakoak izaten ziren ta urde mehie eukiten bien txerrixek, txerri txarra! 15 zentimetrotako urdaixe ataten zanian ama pozik! A urdai txurixe!"

"Tripiegaz einje patata prijidute lapikoan ta goxo egoten ziren ganera!"

Lurrak ematen zituen fruituen bilketak ere garrantzi handia zuen. Hauen artean gaztainak azpimarratu dituzte elkarriketatutako emakumeek. Fruituak lurrean zeuden, nor batu zain. Kosturik gabeko produktu hauek ordea ondo baino hobeto saltzen ziren merkatuan.

"Gurien fruta asko egon zan, klase guztietako frutiek. Gaztañak batzen joaten nintzen atsaldien basora ta sakukadiegaz etorten nintzen etxera. Gero hurrengo goizien harek eta hartunde joaten ginen astoakin ta ondo saltzen zan han. Hainbeste diru ekarten gendun! "

Esneketariak, etxez-etxeko esne saltzaileak

Baserritarrek saltzen zuten oinarritzko produktuetako bat esnea zen eta emakumeak izaten ziren etxez etxe saltzen joaten zirenak: esneketariak. Herrira egunero joaten ziren gerrian kantina eta

neurtzeko metalezko ontzia eskuan zutela, esnea etxez-etxe saltzera. Normalean ibilbide bat jarraitzen zuten bezero finkoak izaten zituztelako.

Esnea beraz, etxez etxe saltzen zen eta aipatu beharra dago orain gutxirarte, produktu konkretu batzuk etxez-etxe saltzeko ohitura handia egon dela. Esneketariak, arrain saltzaileak, okinak, karbonerak edo koltxonerak kaletik saltzen edota euren zerbitzuak eskeintzen ibiltzeak, bizi handia ematen zien Gernikako kaleei.

Emakumea baserriko erdigune moduan agertzen zaigu eta hauen kopuru handia dela eta, izen propioak aipatzen hastea ezinezkoa izango litzateke baina azken esneketarietako bat Josefina Odriozola Bidaguren dugula esango dugu.

Itsasoaldetik etorritako arrain saltzaileak

Arrain saltzaileak Bermeotik, Mundakatik eta Elantxobetik etorri ohi ziren “Gernikaxun” (izen honekin ezaguntzen zen Gernika Bilbo eta Bermeorekin lotzen zuen tren). Oso trebeak ziren otzarak eramaten eta esku bakarrarekin maneiatzeko zituzten. Kolpe handiak ematen zizkieten, arrainak fresko mantentzeko otzaratan zeuden izotz zatiak apur zitezen. Trapu beltza biribilkatzen zuten buruan, gainean otzara jarri eta “Freskue! Freskue!” oihukatzen geltokiko eskaileretan behera erdiko kaleetarantza abiatzen ziren.

“Vinieron unas primas mías americanas y haber, te estoy hablando de hace 38 años o así, y vino “la antxoera de Bermeo”, la pescadora de Bermeo, con un carro y bajabas con un plato a por las anchoas y la otra que no había visto nunca venga sacar fotos ¡y oye! Todas las casas y los portales iban...”

Batzutan ortozik ibiltzen ziren eta artile sendoko lepoko beltzak erabiltzen zituzten lepoa eta bularra babesteko. Ia beti beltzez janzen ziren amantalaren muturra gerriari eta patrikari lotuta zeramatarik. Patrikan dirua gordetzen zuten.

“Más que nada llevaban delantal de mahón hasta atrás, todo cogido. Ropa normal y delantal.”

“Eso las de Elantxobe pero las de Bermeo iban de más oscuro, de negro o... o eran viudas...”

“Yo la única vez que he visto pegarse a dos mujeres era a dos pescateras de esas a cuenta de que cada una tenía su calle. Cuando cogían el pescado de Bermeo pues a ver quién venía más rápido porque la que venía primero se llevaba la mejor tajada y una parece que se adelantó por nuestra calle, apareció la otra y... se agarraron, se estiraron de los pelos, del moño que llevaban... Yo asustada... ¡me fui a casa! Dos mujeres tirándose de los pelos y pegándose... Ya no he vuelto a ver nunca a dos mujeres pegando. ¡Y los hombres no te digo nada! ¡Les hicieron corro y animándolas! (en la calle Industria)”

Bermeoko peskaterak, famatuak ziren euren antxoengatik eta Elantxobekoak, ekartzen zituzten txipiroiengatik.

“Yo he comido los últimos txipirones pero bueno buenos los de Elantxobe que venían. ¡Que maravilla! No tiene nada que ver con lo de ahora...”

“Bueno, eso los txipirones de Elantxobe pero las de Bermeo eran las que venían en el tren con un carro y tres cajas. Traerían tres cosas diferentes...”

Okinak

Okinak ere, euren gurdiak ogiz beteak ibiltzen ziren kaletan barrena. Negozio familiarra izaten zen okindegia eta emakumeek ogiaren elaborazio fase guztietan hartzen zuten parte. Normalean ogiaren salmenta emakumeen esku geratu ohi zen. Kanpaia noiz jo itxoiten egon ohi ziren bezeroren bat zetorrela adierazten baitzuen. Okindegian saltzeaz gain, etxez etxe banatu izan zen ogia. Familiako kideetaz aparte, askotan neska gazteak kontratatzen zituzten ogia banatzen laguntzeko. Gurdiarekin edo otzara eskutan zutela ogia banatzen zuten ate bakoitzean. Bazekiten familia bakoitzari ze ogi eman eta astean kobratzen zuten.

Francisca Llantada Llano “Paca la Chata” (1903-)

Paca, Gernikako ogi banatzaile ezagunena izan da zalantzarik gabe. 1903an jaio zen emakume honen ahotsa herri osoan zehar entzun izan da hamarkada luzeetan. 14 urte zituenean hasi zen ogia saltzen etxez etxe bere txakur eta gurdi txikiarekin.

“Si vieseis aquella carretilla, aquello era txirene, ¿enei! Era un carro como un cajón donde llevaba unos 40 o 50 panes y pencitos pequeños de peseta, de libra, de media libra y de todo”.

ARGAZKIA

Hasieran Bilbora joan zen josten ikasteko baina ez zitzaion gustatzen eta Gernikara bueltatu zenean Gomeza okindegian lanean hasi zen. Okindegi hau itxi zutenean Bertarekin lanera joan zen. 50 pesetatako soldataz gain propinak ere jasotzen zituen. Astelehenetan plazara joaten zen “Tremesa” ogia saltzera. Ogi mota hau borobila zen eta oso goxoa.

“La verdad es que tuve que trabajar muy duro”

Ikazkinak

Ikazkinak ere etxez etxe ibiltzen ziren txirloraz beteriko sakuekin. Ikazkin ezagunenaren artean Petra Santiago Legarreta daukagu. Petra 1890 urtean jaio zen eta 40. urtean karbonera zen, 50 urterekin. Izatez Arrietakoa zen baina 15 urtekin Gernikara etorritakoa. 4 seme-alaba zituen, hauen artean 1914. urtean jaioakoa Margarita Santiago ileapaintzailea. Alarguna zela aipatzekoa

da, askotan, alargunei soilik egozten zitzaizkiela lanbide konkretua. Ezkondutako emakumeak, gizonaren laguntzaileak ziren.

“Había otra señora también que traía los sacos de txirlora... para hacer la txirlora. La txirlora era para encender el fuego. Ella nos venía con el saco. Y la leña también traían los de Olazar ¿no? Aquel con el carro, “el carretero”. ¡Claro! ¡Es que hemos visto con el carro y el caballo!”

Koltxonerak

Koltxonerak egon bazirela jakin dugu bildutako testigantzetan horrela baieztatzen dutelako baina ezin izan ditugu hauen inguruko ez izenik ezta daturik ere bildu. Lan hau burutzen zuen emakumeetako bat pasialekuan zegoen “Sacafaltas” balkoian egoten zen koltxoiak astintzen.

“Había una señora que se dedicaba a limpiar la lana. En el balcón de sacafaltas solía estar con un palo... Mi madre también le mandaba a ella.”

“Le llamábamos “la colchonera” pero creo que ya se ha muerto. No hace mucho...”

Udako hilabeteak aprobetxatzen zituzten koltxoien forroak askatzeko eta ondoren, forroak garbi zeudela, barruan zabaltzen zuten artilea. Forroa josi eta artilea lotzen zuten zuloetan galartzuzko zinta batekin, zuloak eta burdinezko orratz luzeak egokituz. Mende hasierako koltxoiak lumazkoak ziren. Baserrietan hiltzen ziren oiloen lumak erabiltzen ziren hauek egiteko. Gero hasiko dira artilea erabiltzen.

“Koltxoie lumazkoa izaten zen”

“Lumetxa deitzen jako.Oiloa hiltzen genunien lumak koltxoiere! »

“Ariñau kapatzezkoa egon zan, ni ume-umie nintzala”

“Gero lanazkoak hasi ziren eiten. Harek bai ziren onak leporako!”

Komertzioaren bizitasuna

Etkez etxeko salmentaz gain, saltokien kopurua ere, oso handia zen. Lehen aipatu dugun moduan, Gernika zonaldeko komertzio gune garrantzitsua zen. Erdiko kaleak dendaz eta tabernaz beterik zeuden eta produktu konkretu batzuk saltzen emakumeek nagusitasun osoa zuten, janari eta oihalen salmentan adibidez. Askotan komertzio propioa zuten etxetan familiko kide guztiak lan egin behar izaten zuten negozioa aurrera atera ahal izateko eta askotan neska gazteak kontratatzen zituzten dendan laguntzeko.

Elkarrizketatutako emakume baten hitzetan nabarmena da denda bat zabaltzeko egin behar izaten zuten esfortzua.

“Gero dendie idi gendun ta pentseu nabon “nora etorri naz ni hona...”, batek arrautzatxu bat , beste batek sardina zahar bat, beste batek... ta gu holan, alantxik! Gero igo gendun apur bat.”

Aldaba aldizkarian argitaraturiko 1928. urteko komertzioen zerrenda batean, sektore honetan emakumeek zuten garrantzia agerian dago.

- *Ultramarinos*-ak:

- 1928 inguruan: Teresa Cobeaga, Josefa Uribarren, Juana Bilbao, Casimira Martitegi, Rosario Garatxena, Vda de Lauzirika, Juana Uribe, Vda de Arriola...



¿ Taberna. 19?? 28

- Oihal dendak:

- 1928-29 inguruan: Eduarda Uriagereka, Josefa Etxebarria, Gerbasia Guarrotxena, Dorotea Uribe, Cruz Isusi, Dolores Arana, Jesusa Garcia, Filomena Aranguena...

- Zapata eta alpargata dendak:

- 1928-29 inguruan: Salomé Aberasturi, Vda de Unda, Vda de Darío Iturbe (alpargateria)...

- Merzeriak:

- 1928 inguruan: Juanita Mugartegi, Florentina Uribe, Vda de Irazabal, Angelina Amunategi... (Juanita Mugartegi mende osoan zabalik egon den denda da eta Dionisia eta Adela Garteizekin batera herriko emakume izen ezagunenetakoak dira)

Dionisia Ojanguren (1895-1968)

Emakume honen izena ezaguna da edozein gernikarrentzat. Mende honetan emakume izena izan duten dendetatik hiru mantendu dira gaur egunerarte: Juanita Mugartegi, Adela Garteiz eta Dionisia. Dionisia Ojanguren Lumoko Garratza baserrian jaio zen 1895 urtean. Ezkondu eta gero denda bat zabaldu zuen Asilo Calzada kalean, foralen ondoan eta bertan denetarik salduko du. Beranduago kartzela berriaren ondora eramango dute denda. Bonbardeoan denda galduko dute baina 1939an Merkurio iturriaren ondoko txabolatxu batean irekiko dute berriz ere (gaur egun oraindik mantentzen den lekuan).

- Konfiteriak:

- 1928 inguruan: Vda de Sebastian Lauzirika, Vda de Isaac Arzanegi...

- Estankoak:

- 1928 inguruan: Vda de Candina, Vda de Arzanegi...

- Haragitegiak:

- 1928 inguruan: Vda de Ignacio Gameza, Manuela Ceana...

- Karamelerak: Pepa Benavente "La caramelera". Lizeoan egoten zen zinerako gozokiak saltzen, Josefa Manteca Lizeo aurrean saltzen zituen...

- Denetarik:

- 1928 inguruan:

- Francisca Idoyaga "Patxa" . Bere malbabiskoengatik oso ezaguna. 30
- María Navarro. Gaseosas Azketa.
- María Abaigar "La boterosa": Boteria.
- Vda de Gabriel Otaña: Ferreteria, loza eta portzelana.

Hemen aipatu ditugun izenen kopuruak, garaiko Gernikako bizitasuna erakusten digu eta komertzioan emakumeek zuten garrantziaren isla besterik ez dira. Emakumeak gehien bat janariarekin, etxearekin edota arroparekin zerikusia zuten produktuak saltzen zituen, baina egon

ziren salbuespen batzuk ere. Bitxidenda, inprenta edota liburudenden jabe moduan emakumeak ere agertu izan dira.

- Vda de Antonio Egurrola: 1928 inguruan inprenta baten jabea
- Vda de Gabriel Toña: 1928 inguruan kristaleria baten jabea
- Sabina Garechana: 1928 inguruan altzari almazen baten jabea



Lana denona, jabetza gizonena

Izenetan oso agerikoa den zerbait zera da, jabeak ziren emakumeen artean asko alargunak zirela. Aztertutako zentsuetan gizonen izenak agertzen dira negozio familiarretako jabe gisa, baina emakumeek gizonak beste lan eta ardura zutela badakigu. Emakume hauen izena ordea, soilik alarguntzean agertu ohi zen idatzi ofizialetan. Hau dela eta, emakumezkoen izenen bila agiritegietan murgiltzerakoan, alargunen kopuru handia agerian geratzen da.

Datuen manipulazioa

Honek, datuen azterketen emaitzak, errealitatearekin bat ez egitea eragiten du eta udal agiritegiko zensoetan agertzen diren datuetan bakarrik oinarrituz gero, mende osoan zehar etxetik kanpo lan egin duten emakume kopurua oso txikia izan dela ondorioztatu dezakegu. Pena bat da lanbideen inguruko datuak ateratzeko dugun iturri eraginkorrena emakumeen kasuan balio handirik ez izatea, baina honek ere, beste ondorio batzuk ateratzea ahalbidetzen digu: mendean zehar emakumeen jardura ekonomikoak estaltzeko saiakera.

Sukaldari, Tabernari eta ostalariak

Komertzioarekin batera, tabernetan eta jatetxeetan ere, emakume langileen kopurua oso garrantzitsua da. Tabernerak, tabernetako barran eta ostatuetako sutebietan lan egiten zuten. Gainera almazena ere zaintzeaz arduratzen ziren. Egur zati sendoekin barra txikiak prestatzen zituzten erromerietan ardoa, sagardoa, gaseosa... saltzeko. Edariak fresko mententzeko, zinkeko baldeetan gordetzen zituzten. Honetarako izotz barra handiak serrinarekin nahasten zituzten, horrela, beranduago urtuko zela uste zutelako. Emakume hauek oso ezagunak ziren herri osoan, jende askorekin kontaktuan zeudelako.

Sukaldariak jatetxeetan lan egiten zuten. Askotan tabernen atzeko aldean edo goiko solairuan egoten ziren jatetxeak eta bertan egoten ziren sukaldariak. Etxe aberatsetatik jaunartze edota esku hartze eta despedidak ospatzeko hauen zerbitzua eskatzen zen. Aberatsenek sukaldari propioa ere izaten zuten. Etxe barruan asko agintzen omen zuten eta euren eginbeharrarekiko nahiko perfekzionistak izaten zirela diote. Gernikan sukaldari apartak egon ziren.

Ezagunenak direnen artean honako hauek ditugu: **Edurne Argintxona** (Erreketa Tabernako jabea), **Jesusa Meabe** (17 urtez lanean Erreketan), **Natividad Jayo** (Casa Social-eko taberna, geroko Nekazari), **Leandra Gaztelu** (Taberna Vasca-ko sukaldaria), **Juliana Monasterio**

(Taberna Vasca-ko sortzailea), Teresa, Hermenegilda eta Vitoria Zabaleta aizpak (La Vasca-ko kamarerak), Fernanda Arrien (Katarro)...

ARGAZKIA . Sukaldari guztiak batera.

Juliana Monasterio

1928an *Taberna Vasca* izeneko taberna ezaguna zabaldu zuten Gernikan Julianak eta bere senarrak. Taberna honen sortzaileak Juliana Monasterio eta bere gizona izan ziren, Pedro Arrien. Pasealekuaren ondoan zegoen hiru pisutako etxe honetan taberna eta fonda jarri zuten. Beheko solairuan taberna zegoen eta goiko solairuetan 34 logelak. Hau izaten zen pelotari eta langileek aukeratzen zuten hostaletako bat eta jatetxean Leandra Gazteluak prestatzen zituen bazkariak oso ezagunak ziren. Gernikako bonbardeoan erre zen azken etxea izan zen Julianaren taberna. 1948an berriro ere bere sorrerako lekura bueltatu zen eta 1991 arte zabalik egon da. Julianak zabaldutako tabernak, beraz, historia egin du Gernikan.

Ostatu askoren jabeak ere emakumeak izaten ziren, edota, nahiz eta jabeak ez izan, askotan euren gidaritzapean egoten ziren. Ez ziren zertan izan behar gaur ezagutzen ditugun ostatuak. Oso normala zen etxe partikularretan logelak alokatzea eta gehienetan emakume rentistak izaten ziren diru sarrera osagarri bat lortzeko logelak alokatzen zituztenak.


Gernikan egon ziren etxe partikular eta ostatueta lanean jardun zuten emakumeen artean, honako hauek ditugu: Vda de Esteban Makazaga (1928ko posada), Victoriana Iturri Goitia (Hotel Comercio, 1928), Trinidad Anglada (Hotel Anglada) Agustina Urkidi (Don Tello), Angela Ansotegi (Iparragirre), Arantza Legarzegi (Fray M^a Murua), Esperanza Jayo (Iparragirre), Feli Ansotegi (Erreterria)...

Industria langileak

Industriari dagokionez, industri lantegietan emakumeen partehartzea nahiko garrantzitsua zela esan beharra dago. Gernikako bi enpresetan egin zuten lan bereziki emakumeek, *Los Pirineos S.A* lantegian eta *Industrial Vizcaina* delakoan. Gernikan industriak izan duen garrantzia ikusita, emakumeen partehartzea sektore honetan ere nabarmena izan dela azpimarratu behar dugu eta gehien bat gerraostetik aurrera.

« Emakumeak fabrikatan lan eitea ez neban esango normala zenik. Gerra ostien bai ze dana zan behar izana ta orduen edozertara jotzen zendun. Gerra aurretik be batzuk egoten ziren baina gerra ostean gehitu ta gero orokortu egin zan. Ezkondu ta gero ere jarraitzen bien umie amumagaz itxita. »

1913.an *Los Pirineos* fabrikak bere ateak zabalduko ditu. Esne kondentsatua eta esne lehorra ekoiztuko duen enpresa hau Gernika-Lumoko lehenengo fabriketako bat izango da eta emakume ugari lan egingo dute bertan. 30 urtetan euren produktuak merkatuko garrantzitsuenetakoak izango dira eta Gernikako fabrika garrantzitsuenetako bat izango da *Los Pirineos*. Gerra Zibilean bere ateak itxiko ditu eta gaur egun soilik bere ur depositoa ikus dezakegu trenbidearen beste aldean.



Los Pirineos fabrikan esnearen esterilizazio lanak. 19??

Los Pirineos fabrikan gurina, esne kondentsatua, kafe goxokiak, esne hautsa, txokolatea eta gazta bezalako produktuak ekoizten ziren. Mestikabason kokatutako enpresa honetan, emakume kopuru handia lan egiten zuen. Langile batzuen izenak berreskuratu ahal izan ditugu 1939ko argazki bati esker: M^a Angeles Egileor, Begoña Barrenkua, Carmen Torrealdei, Eusebia Uriarte, Miren Irala, Dionisia Galdos, Josefina Irala, María Kalzakorta, Mertxe Santolaria, Nieves Zaldibar, Carmen Torrealdei, Bonifacia Ojanguren...

Agian, enpresa honekin konparatu dezakegun bakarra emakume kontratazioari dagokionean, *Industrial Vizcaina* da. Fabrika honetan alpargatak egiten ziren. *La Vegan* zegoen enpresa honek 100 langiletik gora izan zituen bere garaian, eta gehienak, emakumeak ziren, hauen eskuak egokiagoak omen zirelako, euren ustez, lan hau burutzeko. Hilabetean 290 pesetatako soldata kobratzen zuten eta bizitzeko justuan heltzen zitzairen diru honekin. Alpargata berezi bat egiten zuten, normalaz aparte, "La bonita" zeritzona. Honek ezaugarri bereziak zituen eta izena hartu zuen merkatuan

Hainbeste emakume lanean egoteak koadrilako harremana egotea bultzatu zuen. Hala ere kontrola nahiko handia zela ere oroitzen dute, ezin zen hitzegin eta komunera joateko denbora mugatua izaten zuten.

“Mi madre trabajó desde los 11 años en lo que fue la alpargataría, la industria.”

“Nik uste dot alpargatak eiten andra asko hurbildu zirela Gernikera. Lan erraza zan josi edo, zintak ipini... Gizonak ere baina emakume geixau. Reglamentaziñoak egon ziren einde ta según ze lekutan zengozen soldata bat zendun. Esate baterako Industrias Siderometalurgicas bat, Artes Gráficas beste bat, Calzado beste bat baina Calzadoren barnean ere zatiketa. Loniegaz egiten bazendun prezio bat eta zapatak larruzkoak izaten baziren reglamentaziño bi fabrika baten barruan.”

Gernikatik ere, emakume asko joaten ziren Zornotzara La Textil zeritzon fabrikara lan egitera. Gernikatik autobus oso bat ateratzen zen fabrika honetako langileekin.

“Ni jostera etorten nintzen Gernikera. Gero dana apurtu zan ta nik joan behar izan naben fabrikara biharrien ta ein nabazan 9 urte bertan, Textilien Amorebietan. Umiek aitittegaz geratuten ziren. Goizien 6etarako joan behar izaten gendun. Amorebietara autobusa beterik urtetan zan La Textilerara. Gizonak be joaten ziren baina gehienak andrazkoak. Han asko bizan! Gero ni eskatu neban trenien joateko ze trenien joan ta etorri ordu gitxiau eiteko ziren. 8 ordu ein biharrean 6 ordu eiten nabazan. Ahaztute dekot zenbat kobretan gendun baina 20 peseta hilean edo kobreko genduezan. Alargun 30 urtegaz geratu nintzan ta 4 ume txikitxugaz biharrien hasi behar.”

1917.an JYPSA fabrika sortzen dute Joyería y Platería de Gernika S:A. Fabrika honetan orfebreria eta bereziki zilarrezko eskulanak eta urrezko estanpatuak egiten zituzten. Lanean hasteko Unceta y Ciaren pabiloi bat alokatu zuten Industria kalean, trenbidearen ondoan. Joyería y Platería S.A. lantegian ere, hasieratik sartu ziren emakumeak lanera. Postu desberdinetan egiten zuten lan: estanpadoa, leunketa...

1920. urterako, lanpostuen %20a emakumeek betetzen zuten, eta 1934an, 86 langileetatik 28 emakumeak ziren. Lan baldintzak gizonen antzekoak baziren ere, soldata txikiagoa jasotzen zuten, eta honek berdintasunaren aldeko aldarrikapenak etengabeak izatea ondorioztatu zuen. “Jurado Mixto de Metalurgia” delakoan desberdintasun salarialen kontrako salaketa ugari erantzunez, 1932an emakumeen jornala peseta 1an igotzea erabaki zen esmeriladoan, gizonena 65 zentimo igotzen zen bitartean. Honetaz gain, 1933an desberdintasun hauen ordainketa retroaktiboa gestionatu zen zuzendaritzaren aurrean.

Desberdintasun salariala mende osoan zehar mantenduko den zerbait izango da. Honen adibide garbia dugu 1950eko zentsoko hurrengo datua: emakume batek peoi lanetan 11 pesetako renta zuen bitartean, bere semeak lanpostu berdinean 14,40 peseta irabazten zituen.

Diskriminazioa nabarmena zen. Guda ostean emakumeek lortutako aurrerapausoei mugak jartzen hasi ziren. Frankismoaren lehenengo urteetan CNS sindikatu falangistaren aginduz, emakume ugari euren lanpostuetatik bota zituzten ezkontuta zeudelako. Emakume ezkondu gabeak edota alargunak soilik onartzen ziren, emakume ezkonduak etxea eta euren gizona zaintzen egon behar baitzuten. Emakume hauetako bat Carmen Agirre Otazua izango da. 40. hamarkadan kalera botako dute ezkontuta zegoelako.

Fabrika honekin amaitzeko esan beharra dago osasun arazo ugari egon zirela emakumeen sekzioetan, bereziki “pulido”an. Metalen zati txikitxoak eta honek distiratsuak uzteko sustantziak oso kaltegarriak izango dira langileentzat eta nahiz eta etengabeak izan bentiladoreen eskakizunak, 1940. hamarkadararte ez dira ipiniko. Antrakosisa, neumonia kronikoa eta tuberkulosia izango dira egoera honek sortuko dituen gaixotasunak.

1920. urteko JYPSAko langileen zerrenda bat eskuratu ahal izan dugu eta emakumeek zuten adina urte honetan: Concepcion Bermudez, María Arbaiza Urizar (16 urte), Eustaki Idoiaga, Amalia Barcena, Dorotea Sagarberria Aranburu (56 urte), Marina Etxebarria, Emilia Campillo Landeta (13 urte), Adelaida Aurre Alegria (23 urte), Teresa Zallo Txopitea (17 urte), Juliana Obieta Basabe (13 urte), Jacinta Rebolledo, Blanca Salegi (13 urte), Filomena Kanaletxebarria, Estefania Makazaga, Carmen Bilbao Ozollo (53 urte), Dominga Ansotegi Basterretxea (59 urte), Eulalia Alberdi, Mercedes Ajuria Txopitea (13 urte), Isabel Zabala,

Martina Garcia Garcia (35 urte), Hilaria Undabarrena, María Arriaran, Juana Telleria Odiaga (39 urte)...



Astra lantegian emakumeak

Erregimenaren mezua: ezkontutako emakumea etxera

Gerraostean elizak eta frankismoak bultzaturiko emakume eredu 1938ko *Fuero del Trabajo* bezalako lekeen bidez ezarriko dute. Lege hauen helburua, emakumea etxera lotzean datza. Ezkontzerakoan, etxetik kanpo burutzen zuten lana uztera bultzatzen zituzten eta etxea eta umeak zaintzeko ardura euren esku geratzen zen.

“El Estado se compromete a ejercer una acción constante y eficaz en defensa del trabajador, su vida y su trabajo. Limitará convenientemente la duración de la jornada para que no sea excesiva, y otorgará al trabajo toda suerte de garantías de orden defensivo y humanitario. En especial prohibirá el trabajo nocturno de

las mujeres y niños, regulará el trabajo a domicilio y liberará a la mujer casada del taller y de la fábrica.”

Lege honekin zuzenean erlazionaturik agertzen zaigu lehen aipatu dugun datua: Carmen Agirre Otazua 40. hamarkadan JYPSAtik botako dute ezkondata zegoelako.

Kasu gehienetan ordea ezinezkoa izaten zen emakumeen diru sarrerari uko egitea eta garaiko ereduaren eta beharraren arteko irtenbideak nagusitu ziren: diru sarrera osagarriak lortzeko lan egin baina posible izanez gero emakumeentzako *egoki* ikusten ziren lanetan. Lan hauen artean jostunak, neskameak, umezainak edota irakasleak zeuden, beti ere etxeko lanekin edota ume eta nagusien zainketarekin loturiko lanak. Dena dela, komertzioan eta industrian lan egiten jarraituko dute baina beti ere familiak bizi irauteko behar duelako eta ez independentzi bide bezala.

Kontraesan honen adierazle da 1938ko *Fuero del Trabajo* bera ere. Lehen aipaturiko artikuluan emakumeak umeekin konparatu eta *“liberará a la mujer casada del taller y de la fábrica”* argi utzi eta gero, amatasunaren inguruko gizarte-segurantzen areagotzearen beharra azpimarratzen du. Nabarmena da beraz, emakumeak lanean jarraituko dutela.

“Se incrementarán los seguros sociales de vejez, invalidez, maternidad, accidentes del trabajo, enfermedades profesionales, tuberculosis y paro forzoso, tendiéndose a la implantación de un seguro total. De modo primordial se atenderá a dotar a los trabajadores ancianos de un retiro suficiente.”

Etxeko langilea, etxekoandrea eta neskamea

Famili aberatsetako eta komertzio batzuetako emakumeak kenduta, gainontzeko emakume guztiek burutzen zuten lana zen etxea zaintzea eta kasu hauetan ere, emakumeak kontratatzen zituzten etxeko lanetaz arduratzeko. Lan hauek oso gogorrak izaten ziren. Egunero sukaldean sua prestatu, gosaria egin, etxea garbitu, erosketak egin, ura eraman... Arratsaldetan arropa josi, garbitu eta lisatzen zuten.

Urtaroaren arabera desberdintasun nabarmenak zeuden. Neguan adibidez, arropak errekan edota iturrietan garbitzea lan gogorra izaten zen eta etxeak berotzeko egurra biltzen ere denbora

luzea eman behar izaten zuten. Etxeko lan asko kalean egiten zen: arropen garbiketa, erosketak, arropen konponketa... Honek emakumeen arteko harremanen sakontzea eta inguruko bizilagunen arteko elkartasun sareen eraketa ahalbidetzen zuen.

“Lengusina etorten zan arropa tinikuen, egurrezkoa izaten zan, ta hantxe ipini beratzen ur beroagaz, isarak lodi lodixek, bixen artien emon biher jakien bueltie, ta ganera botaten sutondon heutze. Hurrengo egunien etorten zan enjabonetan ta gero erre kara! Ta errekan harrixen holan einje, noizko sikatu barik... Lehengo isarak oso onak ziren baina ligorrak ziren harek!”

“Gero kanbixeu barik harek gaurko moduen ostantzien eurek garbituten egun osoan!”



Emakumeak Juan Kalzadako “Fuente del pino”-n arropa garbitzen. 19??

Emakumeei egotzitako beste eginbehar nagusia umeen heziketa eta zainketa zen. Zentzu honetan, jaiotze tasa altua kontutan hartzekoa da. Emakumeek ume bat bestearen atzetik izaten zuten eta hauen garbiketa, zainketa eta heziketak esfortzu handia eskatzen zuen.

Emakumeen egunerokotasunean eragin nabarmena izango duten elementuak etxeko lanak egiteko askatasun berriak izango dira. Egutero burutu beharreko lan gogorrek errezatuko dituzte eta emakumeek denbora irabaziko dute. Estatuan, 1904. urtean Miele etxeak lehenengo garbigailua merkaturatuko du eta 1929.an ontzi-garbigailu mekanikoa. 1917. urtean lurrinezko plantxak alboratuko dituen lehenengo plantxa elektrikoa agertuko da eta lau urte lehenago, 1914.an etxerako lehenengo hozkailua . Beranduago, 1948.an, lehenengo lapiko expressa eta 1949.an gasezko labexkak. Nahiko oinarritzko tresnak izango dira eta etengabeko berrikuntza prozesuan egongo dira.

“Nos tocó el cambio. De no tener a empezar a haber, la lavadora que estaba pegada a la fregadera, el desagüe iba a la fregadera.”

“Y la chapa también. Del carbón al butano. De limpiar a mano a la lavadora esa de...”

“Gero labadora heldu zani en jabonetakoa ta gero aklareu norberak. Plantxie be halako handi bat egoten zan, txingorrekin bete... Ta gero txapa gani en ipinteko txikitxuek. Guk kozina ekonomiek euki gendun nahiko arin. Ostantzien beko-sue, txapie.”

“La calefacción era de serrín. Había en la chapa un tubo alto que se llenaba de serrín y se calentaba. Luego la otra, la que se apoyaba en el suelo que tenía una chimenea que iba hasta el techo. En el colegio también había una de esas y luego se llenaba todo de humo y teníamos que abrir las ventanas.”

Familia aberatsetan edota komertzioak zituzten familietan, neskame eta umezainak kontratatzen zituzten etxeko lanak egin zituzten. Hau izaten zen emakume gazteen artean lanbide zabalduenetakoa. Gehienetan hurbileko baserri eta herri txikietatik etorri ohi ziren

Hamabost urtekin hasten ziren lanbide honetan eta asko Bilbora joan ohi ziren hango burgesiaren etxeetan lanean jarduteko. Hauen lana etxean egin beharreko lan desberdinak egitea izaten zen: sukaldari, laguntzaile, zerbitzari, lisatzaile, umezain, garbitzaile...

Urte askotan egon ohi ziren etxe berdinean eta askotan etxeko andereñoa ezkontzen zenean euren etxera joan ohi ziren neskame gisa. Neskame askoren izenak ditugu besteak beste: Justa Uriarte Bilbao, Juana Almeida Martitegi, Emilia Sanz Barrena, Asunción Lekuona Beitia, Estefanía Urizar...

Etxean zituzten tresnei buruz zera aipa daiteke, ezinbestekoa zena soilik erabiltzen zutela. Bazkaria txapen gainean prestatzen zuten azpian egurra edo ikatza egoten zelarik. Arropa eskuz garbitzen zuten errekan edota iturrian.

“Balda zabala hartun buruen ta erre kara, hara beheraino be, etxien jaboneu ta hara eiten pla, pla, pla... beherantza ederto baina gorantza, haregaz pisuagaz kantxe kantxe einde etorten nintzen ta halantxik.”

Kosturera eta jostunak

Emakumeek tradizionalki bete duten beste lan bat arropen konponketari dagokiona da. Jostunek garrantzi handia zuten. Dendetan oihalak erosi eta arropak egiten zituzten. Baina lan gehien ematen ziena arropen konponketa zen. Arropak behin eta berriz konpontzen ziren. Familiako alabaren bat josten jakiteak aberastasun moduan ulertzen zen arropak konpontzeko dirua aurrezten zutelako eta famili askotan alabak josten ikastera bidaltzen zituzten.

“Aizpa josten ikasten zegoan ze hainbeste etxien egonda aberastasune zan josten jakitea.”

“20 urte euki nebazanien edo josten hasi nintzen ta Gernikera etorten nintzen bizikletan... Gero nobixoa tope neban ta 29 urte gaz ezkondu ein nintzen. 50 edo urte daroataz Gerniken”

“Arratzun jaio nintzen. 13 urte euki nebazanien ama hil jaten ta eguenetan josten ikasten etorten nintzen.”

Honen froga, mende hasieratik Gernikan hain ezagunak izan diren modista eskolak ditugu. Hauen artean ezaguna izan zen Gloria Domingez-ena. “Escuela de modistas” delakoa gerra baino arinago Taberna Vasca aurrean egon zen, pasialekuko eskolen gainean eta bertan gazte

askok ikasi zuten. Denek ez zuten fama berdina eta honen arabera lana edukitzen zuten egun berezietan.

Argazkia: escuela de modistas

Garai honetan, *lehendabiziko egunez*, egun oso konkretuetan janzen ziren (eta ez etxe guztietan): Errege egunean, Domu Santu egunean, Pazko egunean... Premiazko lanak ere egiten zituzten, lutuetarako arropen prestaketa gehien bat. Jostun batzuk oihal dendak zabaldu zituzten ere. Brodatzaileek neskailentzako arropa zuria egiten zuten, mahai zapi sakratuak...

Modista eta kosturera desberdinen artean ere Florentina Uribe Undabarrena nahiko ezaguna zen mende hasieran. Horrela baieztatu dezakegu 1915 inguruko disfraz askoren egilea bera izaten zelako. XX. mende erdialdean, Jesusa Garcia Cafranga eta Vda de Tomas Ortuzar bezalako modistak ere aipatzekoak dira.

Lisatzaileak, kortinak, mahai zapiak, barrenetako izurrak zituzten bataiorako faldoiak, ume zapiak, jaunartzerako jantziak, uniformeak... lisatzeko ardura zuten emakumeak ziren. Lanik zailena ere bete egiten zuten, burdinezko lisagailu eta sutan jartzen ziren tenazillak erabilia. Lisatzen zen arropari distira ateratzen ikasteko, Durangora joan ohi ziren.

Celestina Agilexpeiti (-)

Mende hasieran Gernikan egon zen kosturerarik ezagunenetakoa zen. Bere kostura tailerran ikasteak ospea ematen zion edozein gazteri. Urtero eskeintzen zuen “*Escuela para el perfeccionamiento teórico-práctico menestral*” ikastaroan, Celestinak klaseak ematen zituen kosturera batzuekin batera: Francisca Olaeta, Filomena Zendokiz, Telesfora Mintegia, Irene Lasagabaster, Jesusa Garcia, Petra Gorostiza, María Arana Etxebarria... Celestinaren ospearen erakusle da herriko erraldoien jantzien egilea zela.

Ileapaintzaileak

Ileapaintzaileen ogibidea mende erdialdean zabalduko den lanbidea da. Hasieran, kolore ilunekin egindako jantziak erabiltzen zituzten eta ilea bilduta eraman ohi zuten baina gero hasiko dira emakumeek euren irudiari garrantzi gehiago ematen. Oihaletan kolore gehiago sartzen hasiko dira, makilatzen hasiko dira eta ileapaindegira gehiagotan hurbilduko dira.

Gernikako ileapaintzaileen artean Atxabal aizpak zeuden. *Ocho de Enero* kalean zeukaten lokala, “Peluquería de señoras” errotuloarekin, Iruña tabernaren gainean 30. hamarkadan. Mende erdialdean ileapaintzaile lanetan ibilitako beste emakume batzuen izenak ere bildu ditugu: Carmen eta Teresa Bilbao Altube aizpak, María eta Mercedes Marrodan Arce aizpak, Dolores Elordui Zarandona, Vicenta Urkiza Beobide, Rosa Monasterio Bilbao, María Santos Bilbao, Itziar Goiriena Aldekoa, Secundina eta Rosa María Ortuzar Miangolarra aizpak, Cruz Bereziartu Gandarias, Carmen Lopategi Lauzirika, Itziar Basabe Uribe, Basilia Gezuraga Bastegieta, Concepción eta Begoña Olano Agirre, Anastasia Ibarra Garetxana...

Lanbide hau, emakumeen artean hain normala izango bada ere, hasieran betiko beldur eta errezeloak sortuko ditu.

“Gure aiztie pelukerian hasi zan hemen, Gerniken, ta gure aita haserre, ia gauza garbixe zan...”

Idazkariak

Industria barruan bulegoko lanak ere emakumeek beteko dituzte. Hauen artean honako hauek daude: M^a Pilar Legarra Jaio, Milagros Soloaga Basarte, Pilar Carrero Algarate, M^a Luisa Garaioa Arizkuren, M^a Begoña Garaioa Arizkuren, M^a Araceli Uribe Arana, M^a Dolores Basterretxea Etxeandia (Elizako bulegoan), Rosa María Izagirre San Seberino... Bulegari moduan lan egin zuen emakumeetako bat M^a Angeles Basabe dugu. 1924 urtean jaiotako gernikar hau 16 urterekin hasi zen alpargateriako ofizinetan lanean.

“Ta orduen 16 urterako ofiziña baten sartu nintzen. Hasieran laguntzen ta 2 hiletan plantilakoa ein ninduen. Abarketak, zapatilak.. eitten ziren ta fabrika itxi arte bertan, 35 urtetan. Neure bururako tokixe ein naben. Iñundik iñora be ez zan normala emakume bat ofiziñan lan egitea! Nik gogotan dekot beste lantegi bateko zuzendarixek gure lantegiko zuzendarixeri deitutzola esanez bere ofiziñarako behargiñak behar ebazala ta neskak gure bazela baina ez zekiela konfidantzakoak baziren eta bere esperientzia ia zelakoa zan... Ataraixu kontuk! ¡Toda la vida de pionera! Ta esantzon: “Lasai! Gure moduan gauzak urtetan baiatzuz lasai.” Ta bueno, hori entzunda be poztu eiten zinen nahiz ta gitxi irabazten gendun... Gitxienez aixe dirutxue etxera eroateko...Denporiegaz ni biharrien hasi nintzen ta ganera ofiziña batean! ¡Triunfo total!”

Oraindik ez da izango oso ogibide zabaldua emakumeen artean baina urtez urte, gero eta emakume gehiago kontratatuko dira fabriketako ofizinetan. Lan merkatuko ogibide berriek prestaketa maila handiagoa eskatzen zuten eta neska gazteek mekanografia eta administrazio ikasketak burutu ahal izateko akademiak ugarituko dira. Akademia hauetaz gain, karmelitek ere mekanografia klaseak emango dituzte eta han ikasiko dute neska askok.

“Monja karmelitak mekanografia ta takigrafia irakasten bien ta hara joan nintzen. Han ikasi neban ta suertez neura bururako tokixe ein naben. Noiz ta orduen, alde batetik ez zegoanian lanik ofizina batien ta emakume batentzat ospabe gitxiau, oin baiño maila beheragokoan egon giñen ta!”

Beste bulegari batzuen izenak ere aurkitu ditugu: Crucita Astelarra Arzanegi, Juana Onaindia Totorika (serrerian), M^a Teresa Otazua Legarreta (Iejien fabrikan), M^a Pilar Zabarte Goitia (Armen fabrikan), Luz María Iturri Zabaleta (Agentzi administratibo batean), M^a Pilar Aranberri

Zelaia (serrerian), M^a Carmen Esturo Sangroniz, Margarita Amador-Karrandi Toña (Juntetxeko idazkari laguntzailea), M^a Angeles eta M^a Pilar Basabe Uribe (Alpargaten fabrikako administrazioan), Trinidad Etxebarria Bastegieta (Armen fabrikako administrazioan), Itziar Ortuzar Gomeza (esmalterian), Gloria María Mateo Cubas (Armen fabrikako administrazioan), Vicenta Zorroza Loroño (Armen fabrikako administrazioan)...

Garapen ekonomikoaren ondorioz, politika aldaketa

60. hamarkadan teknokratek martxan jarriko duten plangintza ekonomikoak gizartean eragin nabarmenak izango ditu. Efikazia eta errentabilitatearen oinarriek emakumearen irudia ere aldatuko dute: aurrezten ezin hobe zen emakume tradizionaletik, kontsumitzaile efikaz eta ordenatura. Egoera sozioekonomiko berrira egokitzeko, *Sección Femeninak*, 1961ko *Ley de Derechos políticos, profesionales y de trabajo de la mujer* aurkeztuko du. Kontraesanez beteriko lege honetan, emakumeen lana onartzen zen baina beti ere argi utzirik beharragatik lan egiten duela emakumeak.

“¿Qué más quisiéramos que el salario del hombre fuera lo suficientemente remunerador para que la mujer, sobre todo la casada, no tuviera que trabajar por necesidad! Yo os aseguro que si la vida familiar estuviera suficientemente dotada, el 90% de las mujeres no trabajarían. Para nosotras es mucho más comodo y apetecible tener todos los problemas resueltos.” (Primo de Rivera, Pilar. *Discurso previo a la Ley de Derechos políticos, profesionales y de trabajo de la mujer*. Madrid, 1961.

Lan munduratze orokorra

Garapen ekonomikoak garaiko gizarte itxiaren irekiera suposatu zuen. Emakume belaunaldi berria Elizak eta Sección Femeninak ezarritako emakume idealaren iruditik aldenduko da. Gero eta emakume gehiagok lan egingo dute etxetik kanpo eta honek, gizartean aldaketa sakonak eragingo ditu. Ordurarte etxera mugatzera bultzatutako emakumeak, kalera ateratzen hasiko dira eta aurreko belaunaldiarekiko apurketa emango da. Lan egiteko arrazoia ez da izango jadanik familiaren bizi iraupena ziurtatzea. Garai honetako neska gazteen helburua bestelakoa izango da: euren independentzia lortzen hastea.

“Yo pa mi que fue un retroceso después de la guerra. Mi madre y, de jóvenes en la República yo creo que eran más abiertas y tenían otra mentalidad. Y luego la religión también fue un freno muy grande... mucho más conservadoras. Hasta que murió Franco no podías abrir una cuenta a tu nombre... ¡Ahora parece increíble!”

Hitz hauek islatzen digute beraz zein zen egoera. Alde batetik lehengo errealitatearekin apurtu nahi zuten emakume gazteak eta bestetik mantentzen ziren arau legal eta moralak.

“Hasta el año 75-76 la cuenta teníamos que tener a nombre del marido o del padre.”

“Podían tener las cuentas a su nombre pero luego no podían sacar “

Soldatapeko lan munduratze orokorrak ez du suposatuko beraz independentzi ekonomikoa lortzeak. Irabazitako soldata bankuan sartuz gero, gizonaren sinadura beharrezkoa zen kontutik ateratzeko eta beraz euren menpe jarraituko dute emakumeek. Dena dela, badira garai honetako emakumeek egoera hau bizi behar izan ez dutenak.

“Yo no he tenido esos problemas. Yo tenía mi cuenta de soltera y cuando me casé seguí teniendo la cuenta a mi nombre donde me ingresaban la nómina y todo eso... Trabajé en Acerinox y Metalúrgicas y allí trabajaban bastantes mujeres. Hacíamos baterías de cocina, pucheros... y siguen haciendo.”

Gainera, esan beharra dago, lan munduratze orokorra eman bazen ere, aurreko garaietan bezala ezkondu orduko neska gazte asko soldatapeko lana utzi eta etxeko lanetara pasatzen zela. Etxekoandre papera beregain hartzen zuen ordurarteko moral eta tradizioaren eraginaren indarra baieztatuz.

80. hamarkadan, emakumeen independentzia pertsonal eta ekonomikoa oraindik gizarte mailan guztiz onartuko ez den zerbait izango da. Emakume aske eta independentea errealitatetik hurrin egongo den irudia izango da. Emakumeek lan munduko sektore batzutura bakarrik mugatutako lanbideak izango dituzte eta askotan sozialki eta ekonomikoki gutxien baloraturiko lanak izango

dira. Gainera lantegi berdinen barruan eta postu berdinean lan eginda ere soldata txikiagoak jasoko dituzte emakumeek.

Denbora eta emakume askoren indarra beharrezkoa izan da gauzak aldarazteko. 81 urte dituen emakume baten hitzekin amaitu nahi izan dugu atal hau, bere hitzetan laburtu baitaiteke azken mendean emakumeek lan egin behar izan dutena ez bakarrik bizi irauteko, baizik eta gauzak aldatzen joateko.

“ Guk gure ahalmena agertute aldatu diez gauzak. Zure ahalmen guztixek atara ta apurke apurke bagoaz. Uste dot asko ein dala baina oin be lege aldetik itzelezko banakuntzak dauz. Oin gizartea politto. Ganera agertu ein dogu euren besteko balioa dekogule edozertako, baina agertu ein biher ta horretarako burruka gogorrak.”

EMAKUMEAK HERRIAN EGINDAKO EKARPENETAN

Bigarren atalean emakumeak gizartean izan duten papera aztertzen dugu politikan, gizarte mugimenduetan, artean eta kirolan. Atal honen garrantzia handia dela uste dugu emakumeak normalean gure imaginario kolektiboan okupatu duten lekutik ateratzen dituelako. Emakumeek prozezu sozialetan izan duten garrantzia baloratzeko oinarrizko proposamen bat izan nahi du eta izen propio batzuk berreskuratzeko aukera eman dezakeela pentsatzen dugu.

Emakumeak eta politika

Politika arloan, argi dago gizonak izan dutela monopolio osoa. Emakumeen partehartzea beti egon da gizonen nahien menpe. Mende hasieratik, talde politikoen inguruko emakume taldeak existitu dira. Hauen ekimenak oso aberatsak izan dira arlo kultural eta sozialan. Dena dela, talde hauek, emakumearen inguruko ikuspegi konkretua defendatuko dute, garaiko emakume eremuan oinarrituriko ikuspegia. Frankismoan zehar, erregimenaren mezua defendatzen eta bultzatzen zuten emakumeak soilik izango dute antolatze aukera. Honen bukaeran ordea, emakumeei egotzitako paperaren ondorioz, emakume asko aldarrikapen eta kritikotasunetik aldendu baziren ere, beste asko, gizarte berri baten eraikuntzan burubelarri sartu ziren. Hauen ekimenari esker, politikagintzan gizonen monopolioarekin amaitzeko urrats eraginkorrak eman ziren.

Emakumeen papera gizarte mugimenduetan

Besteekiko ardura emakumeek zuten balore bezala kontsideratua izan da mendearen zati handi batean. Hau dela eta, emakumei egotzitako eginbeharra zen obra sozialen ardura. Politika aldiz, zerbait serioagoa zen eta beraz, gizonen ardurapean egon behar zuen alorra izan da. Hau dela eta, XX. mendeko gizarte mugimendu edota talde sozialetan, emakumeen antolaketa oso nabarmena izan da. Dena dela, errukitasunarekin loturiko gaia zen eta soilik Errepublikan eta frankismoaren bukaeran lotuko da aldarrikapen sozial eta politikoekin. Gizarte mugimenduen atalean, emakumeek mugimendu eta talde desberdinetan jokatzeko paperera hurbilpen bat egin nahi izan dugu. Ezinbestekoa iruditzen zaigu etorkizun batean atal hau osatzea eta gaiari merezi duen sakontasuna ematea.


Emakumeak eta artea

Artean emakumeek izan duten garrantzia ez da izen propioetan islatzen. Gizonezkoen kasuan hain agerian geratzen diren protagonismoak, ez du eraginik emakume sortzaileen kasuan. Hau dela eta, literaturan, pinturan, antzerkigintzan, musikan eta dantzan, besteak beste, bigarren mailan egondako emakume gernikarren ekarpena aztertzea garrantzitsua dela uste dugu.

Emakumeak eta kirola

Kirola ere, mutilen esparrua izan da historian zehar. Emakumeek oso berandu sartu dira aktiboki kirolaren munduan eta beti ere, kirol batzuetan partehartzea zailagoa izan dela argi dago. Horrexegatik, mendearen azkeneko hamarkadetan mundu honetan sartzeko esfortzua egin duten emakumeei leku bat eskaintzea ezinbestekoa iruditu zaigu.

POLITIKA



Argazkia. Inauguración del círculo carlista?

POLITIKA

Mende hasiera eta Errepublika, eztabaida garaia (1900-1939)

Botu Eskubidea

Emakumeen sufragio eskubidearen gaia, 1902 eta 1907an sortu zen lehenengo aldiz era ofizialean. Urte hoietan, bi lege proiektu aurkeztu ziren Gorte espainoletan botu eskubidea onartzearen proposamenarekin baina biak, baztertuak izan ziren. 1908an ere, parlamentuz kanpoko proposamen bat egon zen, adin nagusiko emakume emantzipatu eta famili buruei mugaturikoa, eta hau ere baztertua izan zen. 1931 urterarte, hau da, emakumeen botu eskubidea onartu zen urterarte, gai honek polemika sortuko du.

Mendearen hasieran, alderdien barruko jarduera politikoa, apenas existituko da. Emakume aberatsek, eliza eta administrazioaren benefizentzia jarduerak burutzen zituzten baina erakunde ofizialeko arduradunak gizonak ziren eta Primo de Riveraren diktadurararte, ezin izango dituzte postu hoiek emakumeek bete.

20. hamarkadan, emakumeen botu eskubidearen inguruko eztabaida zabaldu egin zen. Primo de Riveraren diktadurapean, 1924ko Udal Estatutuarekin, emakumeen partehartzea bizitza politikoan handitu egin zen. Estatutu honen 51. artikulua araberak:

“Serán electores en cada Municipio, los españoles mayores de 23 años y elegibles los mayores de 25, que figuren en el censo electoral formado en el centro correspondiente del Estado. Tendrán el mismo derecho de sufragio las mujeres de cabeza de familia, con cuyos nombres se formará un apéndice al censo electoral de cada municipio. Figurarán en ese apéndice, las españolas mayores de 23 años que no esten sujetas a patria potestad, autoridad marital ni tutela.”

Diktadurak ere, *Juntas de Beneficencia* delakoetan emakumeen partehartzeari ateak ireki zizkion, *Consejo de Instrucción Pública* eta *Consejo de Emigración* delakoetan ere. Organu publikoen goi postuetan partehartzeko eskubidearekin batera, emakumeek udaletxe desberdinetan ere partehartzen hasiko dira. Rene Castellón eta Ibarrenaren alarguna Bilboko

udalan; Josefina Oloriz Arzelus, Concepción Pérez Baturones eta Carmen Resnés Donostiako udalan.

1927.an Donostian Alfonso XIII.k sinatutako lege dekretu baten bidez, Asanblada nazionalen 15 postu emakumeentzako gordeko dira. Gainera, alargun eta ezkongabeez gain, ezkonduetako emakumeek ere partehartzeko eskubidea izango dute.

“ Varones y hembras solteras, viudas o casadas, estas debidamente autorizadas por sus maridos y siempre que los mismos no pertenezcan a la Asamblea.”

Emakume hoien artean, hiru zeuden Euskal Herriarekin erlazio zuzena izango dutenak. María de Maeztu irakaslea izango da hauetako bat, zuzenbidean lizentziatua eta emakumeen hezkuntzaren defendatzaile sutsua izango da; Micaela Diaz y Rabaneda, Iruñeako Zientzia historikoko Seminarioko partaidea eta Madrileko zinegotzia; eta Josefina Oloriz Arzelus, Gipuzkoako Eskolako ordezkaria eta Donostiako Udaleko zinegotzia.

Diktadura dena dela, nahiz eta emakumeen partaidetza publikoa bultzatu, era artifizial eta interesatuan egin zuen. Atzerritik heltzen ziren aldaketen berriak eta zirkulu konkretuetako emakumeen prestakuntza gero eta altuagoak, politikagintzan emakumeen partehartzeari buruzko eztabaida piztu zuen eta honi erantzuna emateko burutu ziren aldaketa hauek.

1931.an Errepublikarekin, emakume asko erakunde politiko desberdinetan mobilizatzen hasi ziren eta hauen aldeko lege ugari onartu ziren, sufragio eskubidea besteak beste. Lehenengo pausua, Maiatzak 8ko dekretuarekin eman zen. 23 urtetik gorako gizon guztiei onartuko zaie bozkatzeko eskubidea eta Gorteetako partaide gisa emakume eta apaizak onartuko dira.

Clara Campoamor Alderdi Erradikalekoa, Victoria Kent Alderdi Erraldikal Sozialistakoa, biak Madriletik, eta Margarita Nelken Alderdi Sozialistakoa, Badajozetik. Clara Campoamor izan zen kongresuaren aurrean emakumezkoen boto eskubidearen proposamena defenditu zuena eta Victoria Kentekin eztabaida sutsua sortu zen. Hauen arteko eztabaidak, emakumeen kontrako alusioak eragin zituen: “*bi emakume ganbaran eta ez daude inondik inora ados*”.

“Combate oratorio entre la señorita Kent y la señorita Campoamor. Muy divertido. La señorita Kent está porque no se conceda el voto a las mujeres, que

en gran número siguen las inspiraciones de los curas y los frailes, y si votasen, se pondría en peligro la República. La señorita Campoamor es de la opinión contraria. La Campoamor es más lista y elocuente que la Kent, pero también más antipática. La Kent habla para su canesú y acciona con la diestra sacudiendo el aire con giros violentos y cerrando el puño como si cazara moscas al vuelo. La Campoamor es radical pero todo su partido y el radical socialista, se oponen a que las mujeres tengan el voto. En cambio, los socialistas quieren que lo tengan. Yo creo que tiene razón la Campoamor y que es una atrocidad negar el voto a las mujeres por la sospecha de que no votarían a favor de la República.”

Desadostasunak egon baziren ere, proposamen sufragistak garaile atera zen 160 aldeko botorekin, 121 kontrakoekin eta 188 abstentzioekin. Esan beharra dago, emakumeen boto eskubidea ez zela opari bat izan, borroka luze eta gogor baten ondorioz lortutako garaipena baizik.

II. Errepublikan, emakumeak lan eta hezkuntza esparruan nabarmen parte hartzen hasi ziren. Aldi berean, beren lan eskubideak, eskubide zibilak eta politikoak gogor aldarrikatzen hasiko dira. Esparru honetan bi izen nabarmenduko ditugu: Dolores Ibarruri diputatu komunista eta Federica Montseny anarkista, Estatuko historian ministro kargua izan zuen lehen emakumea (1937). 1931ko Konstituzioak eskubide asko bermetu bazituen ere, hurrengo urteetan eskubide horiek lege bihurtu ziren.

25. Artikulua: Berdintasuna legearen aurrean.

40. Artikulua: Diskriminazio eza postu ofizial eta kargu publikoetan.

43. Artikulua: Ezkontzaren sekularizazioa.

46. Artikulua: Emakumearen babesa lanean.

Lege hauen bidez, berrikuntza garrantzitsuak lortu ziren emakumeen mesedetan: gurasoen agintea desagertu zen; prostituzioari buruzko araudia ezeztatu zen; zaindari izateko eta beren ondasunen administrazioaileak izateko aukera sortu zen; edo amatasuna babestu zen lan legerian.

Euskal Herrian ordurarte, prentsan gutxitan eta, oso gai zehatzen inguruan agertzen ziren emakumeak: iragarkiak, ekitaldi erlijioso edo kulturaletan, modan eta abar. Botu eskubidearen onarpenarekin batera ordea, garai elektoralean emakumeei zuzendutako mezuak agertzen hasi ziren. Euskal Estatutuaren proposamenaren aurrean, emakumeen botua erakartzeko lehenengo saioak egin ziren. Nazionalisten aldetik, kanpaina oso bat jarri zen martxan:

“Mujer católica: La autoridad eclesiástica autoriza a votar a favor del Estatuto. Tus hijos no irán más a África si lo obtenemos. Po catolicismo y por instinto femenino debes votar el Estatuto.”

“Mujer nacionalista: Eres además de católica, patriota. Por razones de catolicismo y por patriotismo debes votar el Estatuto que reconoce la estructuración de Euskadi como pueblo tuyo.”

Hiru herrialdetako emakumeei botua emateko aukera eman zien Estatutuaren aukeraketak lehenengo aldiz. Hau dela eta, emakumeek bozkatuko zutenaren inguruko kezka zegoen eta *La mujer ante el Estatuto* izeneko artikuluan, aldeko botua emango zutela esaten zuen idazleak, kontrakoa, euren herriarekiko maitasun falta adieraziko bait luke.

“La mujer tiene que elevar el tono de este plebiscito poniendo todo su corazón y ternura en su consecución”

Kartela: Estatutuari bai, zure semea soldaduzka ez

Bistan denez, sentimendua eta bihotza dira emakumeei bozkatzeko egozten zaizkien arrazoiak. Bozkatu bai, baina *era femeninoan* bozkatu behar zuten.

1931ko Azaroaren 19an, Hauteskunde Orokorrak ospatu ziren eta politikagintzan, emakumeen partehartze aktiboa bultzatzeko momentu garrantzitsua izan zen. Botu femeninoaren zeinuaren inguruko kezka nabarmena bazen ere, talde guztiek emakumeen onespena eskuratzen saiatu ziren eta zerrendetan ere, lau emakume aurkeztu ziren: Pilar Careaga *Conjunción Monárquica de Vizcaya* zerrendan; Dolores Ibarruri, *La Pasionaria*, Bizkaiko Komunisten zerrendan; M^a Rosa Urraca Pastor *Unión de Derechas* zerrendan; eta Julia Alvarez Gipuzkoako eta Nafarroako sozialisten zerrendan. Diputatu akta lortu ez bazuten ere, euskal politikagintzan emakume aintzindariak izan ziren.

Militantzia Politikoa

Errepublikan emakumeen partehartze politikoaren isla, zeinu politikoa zuten elkarteen sorreran aurkitzen dugu. Lege berri eta emakume konkretuek egindako lanari esker, emakumeen partehartze politikoaren inguruko eztabaidak bere fruituak ematen hasiko da eta talde desberdinen sorreran gauzatuko da.

Emakume gernikarrak, herri askotan bezala, politikoki antolatzen hasi ziren talde desberdinen inguruan. Hauen artean garrantzi handikoa izango da *Emakume Abertzale Batza*. Euskal nazionalismoarekin lotura zuten jarduerak mende hasieratik burutu baziren ere, talde honen sorrerarekin, emakume nazionalisten antolaketa hazkunde izugarria izan zen.

Nazionalismo tradizionalak emakumeari egotzitako eginbeharra espazio familiarraren barruan kokatzen zen. Emakumea zen arrazaren gordeleku eta familiaren ardatza. Hau dela eta, bere eginbeharra euskal kultura eta hizkuntza zabaltzeko bazen ere, kutsu politikoa zuen edozein jardueratik banatuta egon behar zuen. Robustiana Mujikak, *Tenek*, abertzaletasuna eta politikaren arteko desberdintasuna azpimarratzen zuen. Politika arrazoimenaren eremuaren barnean zegoen eta beraz, politika gizonen espazio naturala zen bitartean, abertzaletasuna sentimenduekin erlazionaturik agertzen zen eta emakumeen espazioaren barruan kokatzen zuen. Emakumeen bigarren mailako papera urte asko iraun arren, aldaketa nabarmenak eman ziren emakumeen partaidetza gauzatu eta garapen eta nortasun handiagoa eskuratuz zihoan heinean.

1907an, Purificación Gorostizak, *Garbiñek*, *Aberri* eta *Gipuzkoarra* aldizkarietan artikulak argitaratzean, emakumeek prentsan idazteari bidea zabaldu zion. Honekin batera, Rakel Aldak, *Kattalin*, *Asociación Femenina Nacionalista Vasca* antolatzea proposatu zuen eta honek fruiturik eman ez bazuen ere, emakume hauen ahaleginei esker, *Libek* proposatutako *Ropero Vasco* erakundearen sorrera posible izango da. Talde honen eginbeharra, behar zuten familientzako laguntza ekonomiko eta materiala bideratzea zen, hau da, eginkizun politikoa baino, benefizientzia lanetan jarduten zuen. Honen eragina ordea handia izan zen. Emakumeen partehartzea eta inplikazioa herrietan handitu egin zen eta antolaketa mailako ikaspenak lortu zituzten.

1922an, *Juventud Vasca* taldeak, konferentzia bat antolatu zuen Irlandako esperientziaren inguruan eta hemen agertu zen emakume talde bat sortzeko lehenengo ideia. *Emakume Abertzale Batza* (EAB) Bilbon sortu zen 1922an. Nazionalismoa eta erlijioa oinarri hartuta gizarte, erlijio, kultur eta ongizate jarduerak burutu zituzten. Familia tradizionala defendatzen bazuten ere, askoren kontzientziak astinduko dituzte eta emakumeen gizarte partehartze aktiboari ateak zabaldu zizkion. Emakumeen hezkuntza, lan eskubidea eta sufragio eskubidearen aldeko mezua zabaldu zuten.

“A los 7 años hice la primera comunión (para 8) y ya había grupos de niñas de 10 en EAB. La mayor de nuestro grupo era Encarnita Ortenetxe y era la que nos dirigía. Todas aportábamos nuestra paga que entonces era de 10 céntimos. Estos multiplicados por 10 que éramos en cada grupo hacía una peseta y con cada peseta de cada grupo conseguíamos comida para los chicos que tenían presos en el ayuntamiento por las broncas que solía haber. (1916)”

Talde honen aportaziorik nabarmenena, emakumeen protagonismoa esparru sozialera eramatea izango da. Bere manifestuan islatzen den moduan, EABk gizartearen nazio heziketari garrantzi handia ematen zion.

“Esta institución se propone cultivar, con todo el cariño, la educación cultural del pueblo estableciendo cuantos organismos sean precisos para que nuestros hermanos, y especialmente los niños, desarrollen sus facultades para el porvenir dentro de un ambiente patriótico. A este efecto creará clases y fundará escuelas para niños; fomentará su literatuta apropiada con cuentos, narraciones,

lecciones... Iniciaré el teatro infantil; cultivaré su inteligencia con clases de solfeo y piano; ordenaré sus aficiones con grupos de hilanderas, ezpatadantzaris y juegos propios; creará el amor a su lengua estableciendo clases de euzkera y preparará a la mujer patriótica...”

Talde honek sorturiko jardueretan garrantzi handikoa *Euzko Ikastola Batza* izango da. Ikastola hauetako maistra guztiak EABko afiliatuak izan ziren. Baina Gernikan nagusitasuna, hezkuntza ez formalean oinarritutako ekimenek izango dute: dantza, kanta, antzerki, ibilaldi eta festen antolaketa.

“Organizábamos excursiones, teatros, estampas vascas (Pedro Mari...)... Las estampas vascas eran muy bonitas. Una canción que cantábamos mucho empezaba con “Euskadiko neskiek ez dau mutilen beharrik...”.”

Umeentzako Gaztetxoen Batzarren sorrera ere bideratuko dute eta emakumeen heziketarako ikastaroen sorrera. Hauen artean maistrak eta erizainak formatzeko ikastaroak garrantzi handia izango badute ere, formazio orokorra lantzeko tailerrak ere antolatuko dituzte (erlijioa, nazionalismoa, euskal historia, euskara...).

“Azken orduen Gaztetxo ein nintzan. Gaztetxo zan batzokiko ume taldetxue ta gaztetxo ein nintzen. Emakumeak EABn ta langileak La Solin “La Solidaridad de Trabajadores Vascos””

Gudaren hasieran, EABk euskal herri gehienetako taldeetan antolaturiko 28.500 emakume biltzen zituen. Taldeen egoitzak arropa tailer eta iheslarientzako aterpetxe bilakatu ziren. Erizainen ikastaroak bikoiztu ziren, zaurituak, haurrak eta nagusiak zaindu zituzten... Erizain lanetan ospitalean ibilitako emakume batzuen izenak aipa ditzakegu: Arantza Arzanegi, Teresa Argintxona, Miren Zameza, Mirentxu Isasi, Soledad Gorriño, Agustina Uranga, Juanita Foruria eta M^a Ángeles Atxabal. Ebakuazioan, hauetako asko atzerrira eta Iparraldera joan behar izan ziren. Arantza Arzanegi adibidez, hiru urtez egongo da Iparraldean.

Guda amaitzerakoan, borrokarekin lotura handia izan zuten emakumeak atzerrira joan behar izan zuten eta asko ile mozketak eta humilazio basatiak pairatu behar izan zituzten. Atxilotu eta herbesteratutakoen arteko enlaze moduan aritutakoen atxiloketak ere egon ziren.

Gernikan, EABren partaideak 300 inguru izatera heldu ziren, 1931ko 184 afiliatuetatik 1934ko 316 afiliatuetara pasatuz. Gernikako lehendakaria Dolores Argatxa izan zen, diruzaina Gregoria Gangoiti eta bokalen artean Sekundina Larruzea, Irene Irala, Teodora Lopez de Larruzea, Juana Pertika, María Abaigar, Erundina Gomeza eta Nile Astelarra egon ziren. 1933. urteko argazki baten bidez, beste izen batzuk ere lortu ahal izan ditugu: Miren Basabe, Eulalia Pertika, Donata Legina, Engarche Arrien, M^a Luisa Salutregi eta Irune Arrien.

EABko emakumeen argazkia: Estandarteak...

Emakumeen antolaketa ez da alderdi nazionalistara mugatuko. Emakume tradizionalistak ere, balore tradizionalak defendatzeko antolatu ziren. Talde ezagunena *Agrupación Femenina Tradicionalista* izango da baina emakume hauek margarita izenarekin ezagunagoak izango dira, *Margaritas Carlistas*.

1873an Margarita de Borbónek sorturiko *La Caridad* instituzioaren ondorengo zuzena izan zen talde hau. Instituzio honen helburua, II. Guda Karlistako zaurituei laguntza ematea izan zen baina

beranduago zonalde karlistako behartsuei ere laguntza eman zien. 1919an, *Comunión Tradicionalista* *La Caridad* taldeko sortzailearen izena eman zion bere emakume taldeari. Sorreran bete zuten lana, tradizionalista familiei laguntzea izan zen, eta bereziki, zirkuluko bazkide edota gudan merituak lorturiko tradizionalistei. Gernikan, *Sociedad Tradicionalista* “*Tradl*” batzen. Eztabaida politikoez gain, dantza eta antzerki talde propioa izan zuten eta kultur ekitaldien antolatzaile ere baziren.

Margaritak, espiritu tradizionalistan oinarrituz bizitzeko ardura hartzen zuten eta karlisten lemaen menpe biziko zirela agintzen zuten, *Dios, Patria, Rey y Fueros*. Emakume tradizionalistak birtute kristauen eredu izan behar zuten eta era berean, seme-alabak oinarri karlistetan heitzeko ardura ere bazuten.

1933 urteko argazki batean, Foruako Zirkulu Karlistaren inaugurazioan, emakume hauek agertzen dira: Mertxe Azkondo, Rosario Zubiaurre, Carmen Iturriarte, Mari Loli Toña, M^a Luisa Cervera, Isabel Mateo, M^a Tere Ezenarro, M^a Carmen Omaetxebarria, Clotilde Amurrio, Margarita Iturriarte, M^a Pilar Iturriarte, Dolores Iturriarte, Purificación Agirre Madariaga, Piedad Alberdi, Encarna Rojo, Josefina Abaunza eta Evangelina Omaetxebarria.

1934 urterarte, zentru karlisten sekzio baten moduan funtzionatzen bazuten ere, urte honetan berrantolaketa sakon bat eman zen *Margariten* barruan. Konpetentzi mailaren handitzearekin batera, sekzio desberdinen sorrera ere eman zen, hauen artean Hezkuntza, Profesionala edo Politika egon zirela. Urte honetan ere, partaide kopuruaren handitzea eman zen eta Estatu osoan zabaldu ziren. Dena dela, esan beharra dago hego Euskal Herrian izan zutela eragin nabarmenena.

Margariten buruzagi nagusien artean M^a Rosa Urraca Pastor izan zen. La Constancia egunkariaren hitzetan:

“Propagandista incansable. Vibra en su alma el temple de acero de la mujer de Vasconia. Y en su corazón el sentimiento de fervor monárquico y religioso... Ni un desmayo ante la amenaza.”

1937ko apirilaren 19an, talde honetan eragin handia izan zuen erabaki bat hartzen dute. *Decreto de Unificación* delakoren ondorioz, *margarita* karlistak emakume falangistekin bat egin zuten, *Sección Femenina* taldearekin. Buruzagi nagusiaren postua falangisten esku geratu zen eta zehazki, Pilar Primo de Riveraren esku.

Gerra garaian, errepublikaren laizismoaren kontra altxatu ziren eta altxamenduaren alde agertu zen emakume mugimenduari *Quinta Columna* izena eman zitzaion. *Margaritek* eta falangistek osatu zuten mugimendu hau eta errepublikaren aurkako ekintza askotan protagonista izan ziren: gezur eta zurrumurruen zabalpena kontrakoak adoregabetzeko, sabotaje txikiak, iheslariei laguntza... 1937ko martxoan egondaka sarekada batean hauetako asko atxilotu zituzten. Salatuak eta ikertuak izan ziren, kartzelaratuak eta baita fusilatuak ere. Gernikan Primitiva Amesti, Soledad Altube, Isidora Villanueva, M^a Rosa Obieta, M^a Dolores Enderika, Emilia Allende Salazar eta Juana Omaetxeberria ikertuak izan ziren eta María de Zarrandikoetxea, Pía Obieta Amesti eta Dolores Ruiz Porras *Significada enemiga de la República* moduan salatu zituzten. *Margarita* batzuei ere, isunak ezarri zitzaizkien. Hauen artean Sofía, Teresa eta Casilda Gandariasi 250.000 pesetetako isuna eta Julia Izari 50.000 pesetetakoa. Gernikako *margaritak*, 280 afiliatu biltzera heldu ziren.

Argazkia: depuraciones... mujeres

Ezkerreko tendentzien barruan, emakume sozialistak ere, talde desberdinetan antolatu ziren. *Circulo Femenino* izan zen talde hauetako bat. Bilboko emakume sozialistek sortu zuten 1934ko martxoaren 1an eta laster Bizkaiko herri garrantzitsuenetako emakumeak ere, taldeko partaide izan ziren. Burutu zuten lehenengo lanetarikoa, langileek fabriketan burututako Urriko iraultzako preso eta senideei laguntza ematea izan zen. Lan hau klandestinitatean burutu behar izan zuten eta beraz, zailtasun ugari aurre egin behar izan zioten, batzuk atxilotuak ere izan zirelarik. Umerzurtzentzat familia aurkitzea ere, taldeko helburua izan zen *Grupo Pro-Infancia Obrera* sortuz.

Langileen artean kultura maila handitzeko ikastaroak eta propaganda beraien ekimen garrantzitsuenak izan ziren baina gudarekin batera, jarduerak biderkatu egin ziren. Ospitale, eskola, haurtzaindegi eta arropa osaketan lanean aritu ziren eta baita lan klandestinoetan ere, informazioen enlaze moduan edota sabotajetan parte hartuta.

Gernikako emakume sozialisten artean María Bilbao, Marina Insunza, Virginia Aragon, Carmen Arbaiza, Bienvenida Bilbao, Carmen Blazkez, Cándida Cabezón, Catalina Cabezón, María Cabezón, M^a Felisa Txertudi, Inés García, María Garrido, Juana Iñigo, Emilia Maguregi, Nieves Royo eta Salvadora Torrealdei izenak lortu ahal izan ditugu.

Acción Nacionalista Vascako emakumeen taldea ere azpimarratzekoa da. 1937ko urtarrilan sortu zen altxamenduaren aurkako borrokan parte hartzeko eta eredu moduan I. Mundu Gudan partehartutako *Lotta Sivard* finlandiar emakume taldea izan zuten. ANVko emakumeak ordea, nahiko gutxi izan ziren eta euren ekimena gudarien arropa eta ikurren osaketa lanera murriztu zen. Talde honetako emakume gehienak Bilbo eta Ezkerraldekoak ziren eta adinaren batzbestekoa aztertuz gero, EABko afiliatuak baino gazteagoak. ANVko emakumeen lehendakaria Florentina Taxendeiza izan zen, *Asociación de Mujeres Antifascistaseko* partaidea. Gernikan, ANV alderdiaren presentzia egon zela ezaguna da eta beraz, emakume talde bat ere egongo zela ziur gaude. Dena dela, esan beharra dago izen konkreturik ez dudula aurkitu.

Emakume komunisten eta anarkisten izenik ere ez dugu aurkitu baina honek ez du esan nahi emakume komunista edo anarkista egon ez zirenik. Euskal Herriko komunisten artean emakumerik ezagunena Dolores Ibarruri izan zen *La Pasionaria*. Ezizen hau, bere hitzaldi eta mitinetan erakusten zuen pasioagatik ezarri zitzaiola esaten da eta guda eta gero ere, bere hitzak entzun izan dituzten emakumeek, ezin izan dute ahaztu bere hitzen indarra.

Anarkisten artean CNTko emakumeek, talde ezagun bat sortu zuten, *Mujeres Libres*. 1936ko apirilean sortu zen emakume libertarioen taldea. Emakumeek arazo zehatzak zituztela uste bazuten ere, gizarteak eragindako arazoak zirela uste zuten. Hau dela eta, arazo hauen gainditzea gizartearen aldaketa eskatzen zuela defendatzen zuten. Garaiko emakume taldeen artean azterketa sakon eta orokorra egiten zuen talde bakarrenetarikoa izan zen honako hau eta gaur egungo ideiei asko defendatuko dituzte. Esate baterako, emakumearen askapena bere independentzia ekonomikoari lotuta dagoela defendatzen zuten eta amatasuna pertsona moduan garatzeko aukera baten moduan aurkeztzen zuten, ez ezinbesteko baldintza bezala.

Altxamenduarekin batera, ezkerreko taldeen zabalpen handia eman zen. Errepublikan, ordurarteko emakume eta gizarte tradizionalaren aurrean, beste emakume eta gizarte bat posible zela agerian geratzen hasia zen. Emakume gazte asko, balore berrien alde borrokatzeko prest agertu ziren.

Dena dela, Gernikan nabarmena da talde tradizionalen nagusitasuna. EAB eta Margaritak gai askotan desberdintasun nabarmenak zituzten baina emakumearen paperaren inguruan nahiko ados zeudela esan beharra dago. Familia, erlijioa eta gizartearen antolaketaren inguruko mezu antzekoak zabaltzen zituzten. Bi taldeen arteko desberdintasunik handiena Aberriaren ideia zen. Bi erakundeek, ongiegite lanetan hasi ziren eta errepublikan zabaldu ziren. Zabalpen honen arrazoi nagusienak bi ziren, alde batetik erlijioa sutsuki defendatzearen beharra eta emakumeen partehartze sozial eta politikoaren inguruan eman zen garapena.

Frankismoa (1940-1975)

Guda eta gero, emakume nazionalista eta ezkertiarren kontrako errepresioa sistematikoa izan zen. Bakoitzaren inplikazioaren arabera zen errepresio mota eta inplikazio maila jakin ahal izateko ezinbestekoa zen garaileen alde zeuden emakumeen informazioa. Hauen zurrumurru eta salaketak emakume bat baino gehiago eramango dute kartzelara. (Ikus *Emakume begiradak bonbardaketan* atala).

Eskubide urraketa

Errepresioarekin batera, ordurarte lorturiko eskubideen desagertzea ere eman zen. Berdintasuna legearen aurrean, diskriminazio eza postu ofizial eta kargu publikoetan, ezkontzaren sekularizazioa, emakumearen babesa lanean eta sufragio eskubidea bertan behera geratu ziren. 1939tik aurrera emakumeak bigarren mailako eginkizun pasiboa zuen gizarte eredua nagusitu zen, betiere gizonezkoaren osagarri gisa.

Talde bakarra, Sección Femenina

40 urtetan zehar emakume talde bakar batek izan zuen nagusitasun osoa, *Sección Femenina* taldeak. *Falange Españolako* emakumeek osatzen zuten talde hau eta burua Pilar Primo de Rivera izango da. Frankok erakunde honen ardurapean jarri zuen mezu falangistaren zabalpena familia guztietara heltzea. Hau lortzeko, herri guztietan bertako emakumeen gidaritzapean egongo diren zentruak zabaldu zituzten. Gernikan, Artekale kalean egon zen *Sección Femenina*ren zentrua, Adolfo Uriosterekin izkina egiten duen etxean (gaur egungo Gernika Gogoratuz).

Erregimenak oso argi identifikatu zituen ez soilik etsaiak, baita bere jarraitzaileak zintzoenak ere. Hurrengo dokumentuan, 30 gizonen atzean zazpi emakume agertzen dira. Irudi honen azterketan, garaiko gizartearen antolaketaren oinarriak islatzen dira. Mailarik bajeunean emakumeak, erdian gizonak eta guztien gainetik, kaudilloa. Argazki honetan Errepublikan atxilotutako emakumeak agertzen dira, ezkerretik eskuinera: Natividad Arzanegi, M^a Paz Aguirre, Irene Fano, Juana Mugartegui, Josefina Omaechevarria, Emilia Sanz eta Felisa Tellaeche.



Sección Femeninaren barne mailako antolaketan oinarrituz, Gernikako taldearen arduradura *Ordezkarri lokala* izena jasotzen zuen. Postu hau bete zuten emakumeen artean, Mari Carmen Olazar egon zen.

Herrietan ere, kultura, gazteria eta gizarte-osasun arloetan arduradunak egoten ziren. Baina dudarik gabe, talde honen eginbehar nagusia, estatu berria lortzeko emakume berria hezitzea zen. Erregimenaren ideologia zabaltzeko, *Escuelas de Hogar* sortu zituzten herri guztietan eta etxeko lanak egiteko beharrezkoak ziren irakaspenekin batera, formazio erlijioso eta politiko sakona bideratzen zuten herriko nesken artean. Gainera, gizarte berria sortzeko, Falangearen baloreak emakume eta beraz, familia guztietara zabaltzeko tresna oso eraginkorra sortuko dute: *Servicio Social Femenino*. Zerbitzu hau betetzea ezinbestekoa zen gida karneta atera ahal izateko, unibertsitatean matrikulatzeko edota pasaportea lortu ahal izateko. Hau dela eta, hamarkada luzeetan emakume gehienek burutu behar izango duten ikastaroa izan zen.

Politikarekiko interesa etxeetan

Burututako elkarrizketetan, 55 urte inguru dituzten emakumeek, frankismoan zehar politika etxeetan nola bizi zen kontatu digute. Politikarekiko interesa handia zela gogoratzen dute. Kalera begira normaltasuna nagusi zen bitartean, erregimenaren aurkako sentimendua nagusi zen. Gerra garaian bizi izandakoa, bonbardaketa, humilazioa, kartzelaratzak, hizkuntza eta

kulturaren kontrako errepresioa gernikarrengan bizirik mantentzen baziren ere, izuaren kultura oso zabaldua zegoen eta isiltasuna nagusi zen. Familiaren eta oso hurbileko lagunen aurrean soilik adierazten ziren frankismoaren aurkako ideiak.

“Yo me acuerdo que éramos crías y que no nos dejaban ni hablar a las 10 de la noche, cuando se oía Radio Euskadi. Que había que oír bien y ponían una antena así por la pared... una que se enroscaba así... no os acordáis... por toda la pared que si no, no se oía cuando hablaba la Pasionaria. ¡¿No os acordáis?! ¡Que rollo! Yo tendría de 8 a 10 años. Radio París era. Se oía pero callando, que no lo oigan ni los vecinos... ¡por sí acaso! Nosotras igual estábamos jugando a cromos y teníamos que estar callando, callando. En mi casa nadie ni mu, pa oír aquello. Y yo de la Pasionaria también me acuerdo... yo sé que era una que hablaba alto. Eran dos emisoras. Una en la que hablaba la Pasionaria y la otra la del PNV. El PNV en el exilio. ¿Radio París se llamaba?”

“¿Desde Rusia o así no era?”

“Esa era la de la Pasionaria. El Independiente ese... ¡Pero claro no prestas atención porque tienes una edad que no estás para oír aquello!”

“Todo lo que decían aquellos bien y lo que decía Radio Nacional mal.”

Irratia izaten zen nazioarte mailako informazioa lortzeko iturri bakarrenetakoa, baina irrati klandestinoak noski. Irrati nazionalak ematen zituen parteenguruan, honako hau gogoratzen dute emakumeek.

“Y cuando daban el parte... ¡apagaba! Hasta que pase el himno nacional.”

“En mi casa el parte se oía pero cuando empezaba el himno se apagaba”

“Cogía mi madre y apagaba. En mi casa el que más interés ponía era mi padre... ¡porque pasó más!”

Aldaketen hasiera

60. hamarkadarekin batera gauzak aldatzen hasiko dira. Aurreko hamarkadan lan munduan egondako gatazkei erantzuteko erabilitako errepresio bortitzaren ondorioz, langileriaren artean sistemaren aurkako jarrera gero eta handiagoa izatea eragin zuen. Arazo sozialekin batera, arazo politikoen garrantzia nabarmena zen kolean, eta euskalduntasuna aldarrikatuko duen euskal kulturaren berpizteak, eragin handia izan zuen Euskal Herrian. euskararen irakaspenera zabaltzeko ekimenak, euskal kantarien kontzertuetan sorturiko giroa, ikastolaren inguruko mugimendua...

Gernikar gizartean, elizaren babesean lan egiten zuen sare zabal bat zegoen. Gizarte Etxea, 1959an eraikitzen hasi zen Elizaren lokaletan gernikarren aportazioari esker eta honen babespean elkartzen ziren talde eta mugimendu sozial gehienak. HOAC, JOC eta Herri Gastedi bezalako taldeen bilerak bertan burutzen ziren. Herri Gastedi taldeko liberatua 1972 urtean, Begoña Oleaga gernikarra zen, ETA-VI erakundeko liberatua ere zela.

1974an, Gizarte Etxean ETAVI-LCR , Liga Comunista Revolucionaria, eta PC taldearen arteko bilera klandestino batzutan gernikar langile mugimenduaren berrantolaketa bideratzeko saiakerak martxan jarri ziren. ETAVI-LCR taldearen aldetik Pilar Totorikak hartu zuen parte beste bi kiderekin batera. Pilar Totorika oso emakume ezaguna zen herrian. Kosturera lanak burutzeaz gain, katekista ere izan zen eta herriko ekimen askotan partehartze zuzena izan zuen: OTAN-en kontrako mugimenduan, ikastolen sorreran, Santa Maria elizan Burgoseko prozezuaren kontrako itxialdian eta abar luze bat.

Erregimenaren kontrako sentimendu hau erlijioaren inguruan sortuko diren gizarte mugimenduetan nabarmentzen hasi zen. Aurreko hamarkadan *Hermanidad Obrera* eta HOAC, Acción Catolica barruko langileen anaitasuna, zeregin sozialetan lanean hasi ziren eta honekin batera, erlijioa ulertzeko modu berriak sortzen hasi ziren. 60. hamarkadan talde batek bereziki islatu zuen pentsakera berri hau Gernikan, *Juventudes Obreras Católicas* (JOC) taldea, hain zuzen ere. Talde hauen dinamizazioan apaiz batzuk jokaturako paperak, autoritateen begiradapean egotea eragin zuen, gernikar apaiz batzuren atxiloteta ere eman zela. Vatikanok harturiko erabaki batzuk, jarrera hauen bultzatzaile izan ziren, 1961ko *Mater et Magistra* oinarri soziala eta *II. Kontzilioa* garrantzitsuenak izanik.

Emakumeen partehartze politikoa

Emakumeen partehartze politikoa, ingurune pertsonal eta familiarraren arabera izan ohi zen. Gernikako familia gehienek gerraostean errepresioa era batean edo bestean pairatu izanak eta bonbardaketak suposatu zuena memoria kolektiboan bizirik mantentzeak, erregimenaren aurkako sentimendua oso hedatua izatea suposatzen zuen. Honek ordea, ez zuen esan nahi oposaketa aktiboa orokorra izatea.

Emakume bakoitzaren bizipen pertsonalek eramango dute inplikazio maila zuzenak izatera eta orokorrean, hurbileko ingurunearen gaineko errepresioa izango da politikan bete-betean sartuko dituen. Errepresioaren gogortasunak, elkartasun sareen osaketa eragin zuen eta kartzelaratutakoen emazte, alaba eta amen artean esperientziak trukatzeko konpromisoa eta ideiak sendotzea eta euren burua zuzenki inplikaturik senti zezaten eragin zuen.

1975ko apirilaren 25an, diktaduraren azken *estado de excepción* pairatu zen Gernika-Lumon. Gaurdian, Guardia Zibila gernikar etxebizitza desberdinetan atxilotetak burutu zituen. Hurrengo egunetan institutuko 30 ikasle baino gehiago atxilotuak izan ziren ODEM, *Organización Democrática de Estudiantes de Enseñanzas Medias*, taldeko militante izatea leporatuz. ODEM taldeko atxilotutako militanteen artean Marisa Sainz de la Maza eta Paloma Undagoitia ikasle gernikarrak egon ziren.

Miaketak, kontrolak, jarraipenak eta tabernen desalojoak eguneroko bihurtu ziren. Hasieran ETA-pm eta ETA-m erakundeek kontrako neurria zena, erregimenaren aurka ageri zen edozein talde edo pertsonen kontrako bihurtu zen. Maiatzaren 6an, Astran lan egiten zuen Andrés Segovia Guardia Zibila, hila gertatu zen. Errepresioa oraindik bortitzagoa bihurtu zen, atxilotetei pertsona konkretuen kontrako atentatuak gehituz. Beldurra herriko biztanle guztien artean zabaltzeko saiakera argia zen. Asteburuetan Gernikako kale, plaza eta tabernetatik uniformerik gabeko Guardia Zibilen taldeak ibiltzen ziren herritarrek mehatxatuz.

Atxilotutako gernikarren kopurua handia izan zen eta pairatu behar izan zituzten torturak oso gogorrak izan ziren: kolpeak, aulkia, ejekuzioen simulazioa, bainera eta abar. Emakumeen kasuan, tortura hauei beste bat ere gehitzen zitzaion, emakume izateagatik eraso eta bortxaketak.

Maiatzaren 14an, goizeko sei t'erdietan, Guardia Zibilak Juan Kaltzadako 47 zenbakidun etxea inguratu zuen. Tiroteo gogor baten ostean, etxearen jabea zen Iñaki Garai Legarretak, atea ireki eta etxean inor ez zela izkutatzen oihukatu zuen baina ametrailadora baten tiroek bere ahotsa isilarazi zuten. Bien bitartean, ETA-m erakundeko bi militanteek leihotik ihes egiten saiatu ziren. Domingo Sánchez Muñoz Guardia Zibila jauzi egin zen tiroek jota. Iñakiri gertatutakoa ikusirik, Blanca Salegi Allende, leihotik oihuka hasi zen ¡asesinos! ¡asesinos!. Guardia Zibila etxebizitzan sartu eta ahots bat entzun zen ¡que la maten! ¡matarla! Azken tiro hotsak entzun ziren. Bi tiro zituen Blankaren buruak.

Ihes egin zuten bi ETA kideetako bat Mendietako baserri batera hurbildu zen. Baserriko bizilagunek zauriak garbitzeko laguntza eman zioten. Hau dela eta, atxilotu eta kuartelera eraman zituzten. Han basatiki torturatuak izan ziren. Hauen artean bi emakume zeuden, 51 urtetatko Juliana Silloniz eta 47 urtetako Francisca Badiola.

Errepresioari aurre egiteko, ETAVI-LCR, *Euskadi eta Askatasuna* eta *Liga Comunista Revolucionaria*, erakunde bateratuko militanteek bultzatuta, *Errepresioaren aurkako Komiteak* sortu ziren. Errepresioari ihes egiteko, inguruko mendietan biltzen ziren. Jarduera nagusienak atxilotu, preso edo iheslariekiko elkartasuna eta propaganda lanak izan ziren. Guztien gainetik gailendu zen ekimena, abuztuaren 14an, jaietako bisperadan burututako manifestaldi jendetsua izan zen.

Abuztuaren 27an, dekretu bidezko eszepzio egoera permanentea ezarri zen. Hidalgo, Guardia Zibilaren kapitain ezagunak, iraila eta urria bitartean errepresio bortitza ezarri zuen gernikarren artean hamarnaka herritar atxilotuz. Hauen artean, ETako militantea zen 30 urtetako Kontxi Arana Martija eta LCRko militantea zen, eta lehen ere aipatu dugun, Pilar Totorika.

Emakumeen bizitzan militantzia politikoak izandako garrantzia handia izan zen eta militanteek euren bizitzan haustura handia bizi izan zuten alderdi desberdinetan. Emakumeak senar eta inguruko gizonen militantziazatik aldendu eta nortasun eta aldarrikapen propioak garatzen hasi ziren. Esperientzia handia lortzeaz gain, askapen sozialaren borroka, askapen pertsonalerako atea zabaltzen lagundu zuen. Formazio teorikoa gainera, feminismoaren ideien bereganatzea ahalbidetu eta euskal talde politikoek eraketan oinarri feministen zabalpen prozesuan protagonistak izan ziren.

Frankismoa eta gero... (1976-2000)

Frankismoa eta gero, oinarritzko eskubide sozial eta politiko gehienak berreskuratu eta emakumeen bizitzan eragin nabarmena izan zituzten askatasun pertsonalerako aldaketak eman ziren. Legalki, emakume eta gizonen arteko desberdintasunak bertan behera geratzen ziren. Praktikan ordea, oraindik bide luzea geratzen zen.

“Geixau gitxiau, momentu hori izan zan demokrazian hasikera, hor izan zan eskema apurtze bat eta ondiño ez genekien gure kabuz pentsatzen, ze gengozan hezitxe norbaitek ze pentse biher dogun bideratzen. Ta ordun egon zan holako eskema apurketa bat eta ekarri ban holako desoreka bat, familia berdinean egozen lau alderdi desberdin!” Mila

“Trantzisiño garaian guretzako, andrantzako, erronka handixe izan da partehartzia, ezta? Konpromisoa hartzie gizarte mailan, konpromisoa hartzie politika mailan... Hor ekiñian batera ta bestera.” Amagoia

Erregimenaren kontrako eta gizarte berri baten eraikuntzaren aldeko borrokan emakumeek burututako partehartze aktiboa, maila guztietara hedatzen hasia zen.

“1976-1977, hor izango zan, gogoratzen naz elekziño batzuk zirela, eta orduen Errenterin nengoen ni eta etorren kotxe bat Euskadiko ikurriñiegaz gañien! Altabozak, lehenengoz gerniken, agertzen zan kotxe bat horrela propaganda bat eta dana papelak ipinitxe! Euskadiko mugimentu komunista zan kotxe hori, ta altabozetan Rosa zegoen berbetan eta botua eskatzen euren alderdixentzat. Pasirolekuen zegoen mitin bat, ezda, ta inpaktantia zan herrixen a! Ze ordurarte, ba klaro eixuze kontu, Franco hil zala denbora gitxi zala e! Urte bete t’erdi bazan, ta klaro, a subersiboa izan zana egunek aurrerau, ta a kotxea Daliarantz, Idurgorantz, langiliek ta jentie egoan lekuetatik. Niretako izan zan krak bat! (Mila)

Emakumeen askatasuna aldarrikatzen zuten mezuek, erreakzio desberdinak sortu zituen. Emakume batzurentzat, begi aurrean mundu berri baten irekiera suposatzen zuen bitartean, beste emakume batzurentzat ideiei hoiak bekatu ziren.

“Nik pentsatzen dot, ez zala reakzionatzen. Zan zerbait apurtzen zuena dana! Orduen ez dotzun emoten astirik egoteko besterik baino... zelanik esango dotzut. Ze klaro, ba elizarekin de la nada al todo zan. Klaro, ba emakumeen askatasune, pentsamendu askeagaz, erabaki askeak hartzeko berak sentitzen ditun bezala, bueno bueno, hori plantieu be ez zan ein inor buruen! Gauza bat da esan, baina zuk plantieu ein ez bazara aurretik antzerako gauza bat pentsa al dozule, pues son pensamientos prohibidos! Zugan ez dau azeptatute hori zuk sentitu ahal dozunik ondiño, fregada askotik pasa bi zara hori sentitzen dozune onartzeko, ze hori galazota dau hori sentitzia, ta galazota dauen hori sentitzen zauzela, ba konflikto nabarmen bat da, ez. Izan zan subkonzientea iditzialako zerbait.” Mila

Askatasunaren inguruko diskurtso garbi eta ozena emakume baten ahotik entzutea, zerbait berria zen Gernikako kaleetan. Emakume bat dute gogoan elkarriketatutako emakume askok, Rosa Olivares, Euskadiko Mugimendu Komunistako militantea.

“Badau bat erreferentziazkoa Gerniken, esto.. Olivares, Rosa Olivares. Saso horretan... Nire aitte izan zan PNVkoa total ta esate ban ederto baten eitten bala berba ¡A Rosita Olivares hay que oir, e! Gero, de acuerdo, sekula bez, baina beno, ikusten ban, ekin eiten ebana. Indar handiko pertsona ta geure generaziñoko jentientzat erreferentziazko pertsona.” Amagoia

Mugimendu politiko eta sozial etengabeek, talde eta erakunde desberdinetan militantzia aberats eta gogotsua ekarri zuen.

“Apur bat ardura izanez gero, partehartu zer desberdinetan. Ni kontzejal moduen egon nazenien eta, bueno, ez dot euki errez, ni egon nintzen legealdi baten, 83tik 87ra.” Amagoia

*“Kontzientzia politikoa izan nuen gaztetik, etxetik, baina soziala gero hartu nuen.
“(Marieli)*

“EIA (Euskadiko Iraultzarako Alderdia) edo horretan be, aurretik akorduen dekot, Komite Pro Amnistian parte hartu nabela esate baterako. Ta horretan ibili nitzen

ta orduen, ba, oso gaztia nintzen, ze hori izan zan 77 baino arinau. Ta hor, ba alde desberdinak dauz, batetik militantzia politikoa, ta gero, beste era bateko konpromiso sozialarekin geixau lotzen dana, ezta?” (Amagoia)

Arazo sozial orokorraz gain, talde politiko batzutan emakumeen egoera eta arazo zehatzen inguruko hausnarketa garai honetan hasi zen.

“Akorduan daukat 79an, izan zien lehenengo elekziñoak, ta hor atal bat egin gendun emakumien problematika aztertuko ebana ta partidu barruko beste andrazkoen artien pentseu genduzen gauzek, geure artien ein gendun.” Amagoia

Militantzia politikoa, emakume batzuren bizitzaren zati nagusi bat izan da azkeneko hamarkadetan. Gernikan, talde politikoetako militanteak asko izan dira. Hauen artean, udaletxean zinegotzi lanetan ibilitako batzuren izenak aipatzen ditugu:

- EA: Begoña Landa, M^a Begoña Lasa
- EE: Amagoia Lopez Larruzea
- EAJ: Josefina Barrojaetxebarria, M^a Angeles Pradera, Marina Abadia
- HB: Maite Zúñiga, Amaia Mallea, Arantzazu Foruria
- PP: Margarita Santo Domingo

“Amaia Aristizabal, PNVkoa, geroko Eakoa, egon zan lehenengo legilaziñoan, 79tik 83ra. Gero, PNVko Josefina Barrojaetxebarria ta EEko Amagoia bigarrenie, 83tik 87ra. Ta hurrengoetarako HBko Amaia Mallea eta Maite Zúñiga, PNVko Inma Ansotegi, Arantza Foruria HBkoa, uste dot gerokoa dala.” Amagoia

Udaletxeak burututako ekimenen artean, emakumeen bizitzan eragin handiko proiektuak bideratu ziren garai honetan, baina elkarriketetan argi geratu da herri mailan egondako aldarrikapen eta talde ezkertiarrek burututako lanari esker burututako proiektuak izan zirela. Bi proiektu esanguratsuenen artean, haurtzaindegia eta planifikazio sexualerako zentrua egon ziren. Maila desberdinetan izan bazen ere, argi dago hauen sorrerari esker, emakumeek askatasun handiagoa eskuratu ahal izan zutela.

“Ayuntamientoan aurrera atara diren gauza batzuk eta badakit danon botuekaz urten dabela ezta, baia nortzuk ein daben indar geixau esate baterako haurtzaindegixe aurrera atateko, ba argi dago. Ze sensibilidade dauen argi dago.” Amagoia

“Saso baten esate baterako, sexualitatea apur bat lantzeko ta planifikaziño zentrua aurrera atateko hori PNVren ekimenez ez zan ein... hori ein zan beste jente baten ekimenez. Ayuntamientoan haurtzaindegian kasuan EEko Toño egon zan horretaz arduratzen eta HBko Joseba Mandaluniz. Aurrera bai, danon botuekaz, baia nortzuk ibili diez hor horrek bultzatuten, ba argi dago! Jakina! Hor gizarte mailan taldeak eta jentea ibili zan horren atzetik. Kontserbadoreen eskutik ez da askorik aurreratu.” Amagoia

Politika mailan partehartzen hasi ziren lehenengo emakumeentzat, bidea ez zen erraza izan.

“Politikan beti emon dotzie hitza gizonei. Emakumiek no han podido destacar. Baloratzekoa da hor ibili dien andrak.” (Marieli)

“Batzutan sentitzen dozu, andrazkoa moduan zeure ahotsa agertzerakoan edo, ba beno, gitxietzi edo egiten daurie, ezta, ta andrazko batek esateko ez da, en fin... holako zerak. Nik uste dot, horren kontran beti erakutsi bihar izan dogu ekimen igual argixau, ezta. Gizon bati eskatzen bajako zati bat, ba guk zati bat eta erdi.”(Amagoia)

“Andrazko bat sartzen danien ordurartean gizonezkoena izan dan eremu batean, ba zeozelan, a ver, hau zetan dator eta ganera dator ideia berriekin ta ze pentzetan dau honek. Ta uste dot holako inpresioak ba danok euki doguzela gutxi asko, ezta?” (Amagoia)


“Politikan banaketa handia egon da. Ez dabe itxi. Gizonak oniño pentsetan dabe horrek gauza inportantiek diela ta gizonenak diela. Y lo que es más trabajo social, trabajo asistencial es de otra categoría más inferior. Ta gero baita ere ikusten dot sarritan politikan andra batzuk sartzen dira ta hartzen dute papel

masculino, ta hori ere ez. Yo por ser empresaria, por ser la viceconsejera no tengo que tener el papel adoptado del un hombre.” (Marieli)

Gaur egun, emakumeen partehartzea politikagintzan eta emakumeen eskubide politikoak bermatuak badaude ere, goi mailako postuak eskuratu ahal izateko neurri politikoak hartu behar izan dira. Gernikan adibidez, hainbeste urte eta gero, udal gobernuko goreneko postua ez du inoiz emakume batek bete.

“Aurrera ein dogu baia bueno, igual gauza batzutan ez pentsatu dogun beste, ezta, baia bai ein dogu apuke apurke.” Amagoia

GIZARTE MUGIMENDUAK



Argazkia.

GIZARTE MUGIMENDUAK

Mendearen bukaerarte, erlijio eta folklore taldeak

Mende hasieratik frankismoaren bukaerarte, politikarekin, erlijioarekin edo kulturarekin loturiko taldeetan partehartze handia izan dute emakumeek. Ikusi besterik ez dago liburuaren atal desberdinetan aipaturiko talde kopurua eta hauen partaide ziren emakumeen izenak.

Erlijioarekin loturiko antolakuntzen artean katekistak, sakristanak edo Acción Católica zeuden; Politikan Emakume Abertzale Batza, Margaritak, emakume karlistak edo Sección Femenina; Eta kultur mailan Elai Alai, Santa Zezilia korala edo burututako antzerki lan ugarietan emakumeen partehartzea. Talde hauetan, emakumeek, ekimen askoren antolatzaile izan dira eta herriarekiko izan duten kezkaren erakusgarri dira. (Ikus *Erlijioa*, *Artea* eta *Politika* ataletako azalpenak).

Frankismoaren bukaeratik, aldarrikapen sozialen eztanda

Frankismoaren bukaeran, egoera politikoaren kontrako mugimendu zabal bat sortu zen kalean. Urte hauetako gertakari konkretuen aurrean, euskal gizartea antolatu eta kalera atera zen bere nahiak adierazi ahal izateko.

Gizarte Etxearen babespean taldeen eztanda

Lehenengo gizarte taldeak Gizarte Etxearen babespean sortu ziren: Labayru, Andra Mari korala, Zinea, Bizilagunen elkarteak, San Isidro Kooperatiba, EHNE sindikatua, Ciclista Gernikesa, Martin txistu akademia, Arte Eskola, Eskola sozialak, Seber Altube Ikastola, Goizale Mendi Taldea eta abar luze bat. Garaiko gertakari konkretuen kontrako ekimenak antolatzeko erraztasuna ere eskeini zuen Gizarte Etxean zeuden baliabideen erabilerak.

“Orduen bai sortzen ziren talde desberdinak gauza guztietarako, egon zien harek ASK ta harek batzarrak eiten genduzenak Casa Sozialien eta bestelako taldiek izenbako ta nik zer dakit ba! Beste gauza batzutarako sortzen zien Asociación de Vecinos, izena ez dakit ez ba ban euki Zuzen. Bai existitzen zien taldiek baia iraupenik euki ez dabienak.”

“Andra Mari koralak, bere egoitza euki ban ta han ASKko batzarrak eitten ziren. Bueno batzutan ez zekixen ondo a ASK edo ze talde zan... Igual gauzak arin hasi ta arin desmonteu ta eitten zalez ba egoera ere holakoa zalako, ta eskerrak elizaren menpe gauzak ein ahal izaten ziela baiian en fin. Niri ez jat suertatu handik harrapaladan urten biher izatie baia nik ezatzen dodazen beste batzuk urten behar izan diez harrapaladan edo goardia zobilak dagozela. Zelan edo halan... “

Gizarte Etxearen garrantzia ukaezina da gizarte mugimenduen sorreran. Elizaren babesean lan egiten zuten talde asko zeuden eta biltzeko lokalak Gizarte Etxeak eskeintzen zituen. Etxe hau, 1959an eraikitzen hasi zen gernikarren aportazioari esker eta honen babespean sare sozial zabala antolatu zen herrian. Gizarte Etxean garrantzi handiko emakumea dugu, Dolores Basterretxea. Dolores, Santa Maria parrokiako idazkaria eta Gizarte Etxearen zuzendaria izan zen urte askotan.

Elizaren inguruan zeuden emakume askoren partehartzea gizarte mugimenduetan, oso garrantzitsua izan zen. Katekista asko, talde desberdinen edota ekimen askoren sortzaile izan ziren. Hauen artean **Blanca Salegi Allende** aipatzekoa da. Blanca, Acción Catolicako kidea izateaz gain, Gizarte Etxean burutzen ziren ikastaro askotan irakasle lana bete zuen. Gainera Santa Zezilia koraleko kidea, zarzuela desberdinetan antzezle lanetako partaidea eta ikastolen mugimenduan lanean aritutako herritarra izan zen.

Blanca Salegi Allende (1933-1975)

Blanca Gernikan jaio zen 1933ko martxoaren 17an. Lau urte zituela, aita eta ama gabe geratu zen. Aita Gernikako pregoneroa zen eta bonbardaketan hil zen. Ama handik gutxira. 14 seme-alaba umezurtz geratu ziren Blanca gazteena zela. Bere familia tradizio karlistakoa zen.

Karmelitetan ikasi zuen 17 urte izan zituen arte. Gero Lizeoko takillan eta familiaren estankotan lanean hasi zen. Lizeoan lanean aritzeak, herri osoan ezagun izatea ahalbidetu zuen.

Sinesmen katoliko sakona zuen Blancak eta gaztetik elizaren inguruko ekimenetan hartu zuen parte *Acción Católica* taldeko kide bezala. Katekista lanetan eta ezkontza aurreko ikastaroetan irakasle lanak egiteagatik ere oso ezaguna izan zen.

1962an Iñaki Garai Legarretarekin ezkondu zen. Iñaki eta berak afizio berdinak zituzten. JOC taldeko partaideak ziren, Santa Zezilia koralean (gaur Andra Mari) abesten zuten eta zarzuela desberdinetan parte hartu zuten: Los Gavilanes, La verbena de la paloma... S^a Antonioko erromeriekin, kuadrilako afariekin eta koralaren entsaioekin betetzen zuten euren denbora. Ikastolen mugimenduan ere, parte hartu zuen..

Giro desberdinetan ezaguna zen Blanca eta zeinu politiko desberdinetako pertsonen errespetua izateak, alkatesa izateko proposamena jasotzeak ere, eragin zuen. Kargua betetzen zuten pertsonak, erregimenaren baimena izan behar zuten eta Blancak herriak askatasunean eskatuz gero onartuko zuela erantzun zuen.

Eliza ofizialarekiko kritikoa zen baina beti ere Elizaren barrutik. Kontzilioa denbora berrietara egokitzea ezinbestekoa zela uste zuen. Gernikako komunitate kristauaren ordezkari moduan, garaiko hainbat gertakarietan hartu zuen parte. Hauen artean 1966ko Banden Greban eta 1974ko Añoveros apezpikuaren defentsan apaizen sinaduren bilketan herriz herri.

Blancaren pentsakeran, nazionalismoa eta abertzaletasuna gailentzen ez baziren ere, injustiziaren aurrean zerbait egitera behartzen zuten balorez jantzia zegoen eta honek eramango du bere etxean jendea babestera.

Blanka eta Iñakiren hilketak, herri osoa astindu zuen. Andra Mari elizan ospatutako hiletan milaka herritarrek hartu zuten parte.

Ikastolen mugimendua eta Guraso elkarteak

Dudarik gabe, herri mugimenduen artean emakumeen presentziaren garrantzia azpimarratzekoa bada, ikastolen sorreran izango da. Guda Zibila piztu aurretik, Eusko Ikastola Batzak aurrerapausu batzuk eman zituen, 1934.ko Gernikakoa hauen artean, baina guda eta gero, 1966. urterarte itxaron beharko da Gernikan ikastola berri bat sortu ahal izateko.

Elvira Iturriren zuzendaritzapean sorturiko ikastola, beste batzuren artean garaiko alkatea zen Seber Altuberi esker jaio zen. 1966.an, hogeit hamar pertsona ikastola sendotzeko lanetan saiatu ziren herriaren laguntzarekin. Seber Altube Ikastola izendatu zuten eta bere lehenengo irakaslea, gaurko institutuko historia irakaslea izan zen Pili Alberdi Etxeandia. Urrian, ikasturteari hasiera eman zitzaion 12 ikaslerekin. Lehenengo zuzendaritza batzordeko kideen artean, M^a Angeles Basabe idazkari lanetan, Manoli Bikandi diruzain postuan eta Andone Ortuzar eta Tere Argintxona batzordeko kide moduan, egon ziren.

Emakume hauen izen konketuak ipintzen baditugu ere, gernikar askoren indarra eta bultzada ezinbestekoa izan zen ikastolaren sorrera gauzatzeko. Gurasoek bideratutako ikastoletan, guraso elkartearen papera ezinbestekoa zen eta denetarik egon bazen ere, alor honetan emakumeek izandako papera ezin aipatu gabe utzi.

“Ikastolak sortu zirenetik, gurasoak ziren ikastolen antolatzaile eta bultzatzaile eta batez ere, emakumien halako batzar esperientzixe hor zan. Hezkuntza hobetze, harremanak extraeskolarrak eta komedorak antolatze hori, hor ein zan upelako lana.” (Mila)

“Guraso Elkartetan gehixen baten andrazkoak izaten dire.” (Amagoia)

Eskola publikoko guraso elkartean ere, emakumeen lana azpimarratzen dute elkarrizketatutako emakumeek.

“Gero guraso elkartietan, gehien bat emakumiek, eskola publikoan nire esperientzixen, emakumiek izan zien kalitatezko eskola publiko baten alde. Geixen bat emakumiek zien.” (Mila)

Euskarazko helduen alfabetatzea

Ikastolen mugimenduarekin batera, beste euskarazko irakaskuntza baten aldeko mugimendua ere sortu zen, helduen euskarazko alfabetatzearen aldeko mugimendua. Gernika zonalde euskalduna bazen ere, euskararen inguruko ezagupen falta kanpotik etorritako herritar askoren hutsunea zen. Baina ez hori bakarrik, euskaldun zaharren artean ere, alfabetatzearen beharra

handia zen. Honi erantzuna emateko, Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundea (AEK) erakundea sortu zen. Irakasleen artean Pili Ibarra dago.

Mugimendu antimilitarista

90. hamarkadan, objezioa eta intsumiso kopurua ikaragarri hazi zen eta Euskal Herri osoan ohiartzun handiko mugimendua sortu zen, antimilitarista. Emakumeek mugimendu honen partaide izan ziren eta Gernikan neskez osaturiko talde antimilitarista bat sotu zela dakigu.

1991.an herriko Kontzientzi-objezioaren bulegoa martxan zegoen eta honen arduradunetako bat Zuriñe Gandarias izan zen. 1994.ko abuztuan, 1991.ko intsumiso kopuruaren bikoitza zegoen. Gernikar emakumeen artean, antimilitarista baten izena azpimarratu beharra dago, Lukarte Areskurrinaga. Lukarte, guda kontseilu batean enkausatu izan zen ekimen antimilitarista batean parte hartzeagatik.

Mugimendu feminista

70. hamarkadaren bigarren erdialdean agertzen da mugimendu feminista Hego Euskal Herrian. Bertan parte hartzen duten emakumeak, borroka antifrankistaren esperiantziatik zetozen, esperientzia politikoa zuten emakumeengandik.

Mugimendu feministaren sorrera ahalbidetzen duten hiru faktore azpimarra ditzakegu. Alde batetik emakumeak lan munduan sartzeak emango dien independentzia. Bestetik nazioarte eta estatu mailako aurrerapausuen eragina. (1975. urtea, Emakumeen Nazioarteko urtea izan zen eta abenduan Madrilén I. Emakume Topaketak burutu ziren.) Hirugarren faktorea, herri mugimenduak Euskal Herrian zuen indarra ikusirik, antolaketa eta mobilizazioen bidez emakumeen errealitate soziala eraldatzeko mugimendu baten beharraz jabetzea.

Feminismoa deskubritzeak, emakume askoren bizitza aldatu zuen. Ordurarte izandako kezka eta kontraesanen aurrean ideiak sendotu eta euren beldurrei aurre egiteko baliabideak eskeini zizkien. Gainera, beste borroka sozialetan emakumeen ikuspegia txertatzeko balio izan zuen. Dena dela, Gernikako errealitate soziala dela eta, militantzia feminista ez da oso zabaldua egongo.

“Gernika oso burgesa da eta ez da erreza jentea mugitzea. Edozein gauza sortzeko ez da erreza. Mugimendu feminista oso gutxi. Ez dau indarrik.”

“Badakit existitzen zala Bizkaiako Emakumeen Asanblada ta segidu ein dot apur bat horren diskursoak eta ekintzak, baina nik zuzenenan ez dot sekula partehartu holako talde batean.”

Bi talde feminista egon dira Gernikan: Gernikako Emakume Taldea 80. hamarkadan eta Eperlanda 90. hamarkadan. Gernikako Emakume Taldeak herrian mezu feminista zabaldu zuen bere ekimenen bidez. Talde honetako partaideetako bat Arantza Mendia izan zen. Eperlanda taldea, emakume gazteek osaturiko asanblada moduan antolatu zen. Talde hau oso zabala izan zen eta partaide asko izan zituen.

“Arrano inguruen talde feminista bat egon zan.”

“Hor Arranon Eperlanda dala, emakume talde bat ere bazeuen.”

Informazio eta planifikazio sexualerako zentru eta programa baten lorpena, mugimendu feministaren aldarrikapenetako bat izan zen. Gernikako Emakumeen Taldeak aurkeztutako mozio bati eta udaletxeko talde politiko batzuen ezinbesteko laguntzari esker, Gernikan zentru bat irekitzea lortu zen. Asmoa heziketa sexuala eta emakumeen laguntzarako zentroa eraikitzea zen eta sortutako komisioren bidez, *Haur eta Amarekiko Osasungintza programa eta plangintza familiarra* herriko emakumeei eskeintzea lortu zen. Emakumeen atentziorako zentruari *Osasungintza* izena eman zioten. (Aldaba 83-85, p.8) (Honen eragina sexualitatearen atalean)

“Aurrera bai, danon botuekaz, baia nortzuk ibili diez hor horrek bultzatuten, ba argi dago! Jakina! Hor gizarte mailan taldeak eta jentea ibili zan horren atzetik. Kontserbadoreen eskutik ez da askorik aurreratu.”

“Emakumeentzako zerbitzu berezi bat zan. Ta a medikue ondo prepareta egon zan. Andrarentzat deskubrimentu bat izan zan.”

“Centro de Planificación andrazkoen interes handiko gauza izan zan. Hor egon zan eztabaida handixe ta behar izan handixe.”

Emakumeez osaturiko talde bi

Garapen honetan eragin nabarmena izan dute emakumeek osaturiko taldeak. Emakumeak elkartzea eta euren esperientziak trukatzeko oso osasungarria izan da bertan bildu diren emakumeentzat eta Gernikako errealitatea eraldatzeko gain, euren askapen pertsonalerako baliagarri ere izan dira. Talde hauen artean, Gernikako Emakume Taldea eta Eperlandaz gain, Emakide eta Alargunen Elkartea ere daude.

Bizian Gora

Bizian Gora alargunen elkartearen bidez, alargunak kolektibo mailan batu ziren lehenengo aldiz herrian. Elkartearen eragina euren bizitzan oso handia izan zen. Askok azpimarratzen duten fenomeno, adibidez, etxetik atera eta euren artean elkartzearen ondorio baikorrak dira. Aisialdia aprobetxatzeko aukera desberdinen lanketak ere, oso azpimagarria da emakume askorentzat: ateraldiak, bazkariak, jaialdiak, ikastaroak eta bestelako ekimenak ere. Elkartean garrantzi handiko emakumea Maria Agirre da. Bizian Gora sortu zenetik gaur arte, elkarteko arduraduna bera izan da.

“Elizan inguruen bati egon zan, katekesis dala... beti egon zan. Emakumiek izaten zien. Gero alargun taldiek ere batu zien, ta hor jarraitzen duen Bizian Gora, alargunen elkarte.” (Mila)

Emakide

1990. urtean Emakide sortu zen. Elkarrekin honen sorreran EPAn ikasitako eta Yoga ikastaroan ibilitako emakume askok hartu zuten parte.

“90. urtean, Yogatik eta EPAtik ateratako emakumiek batu eta elkarrekin bat osatu nahi izan gendun. Baia ez zan erraza. Ideiari forma ematea, hori ez da erreza! Eta bueno, ikusi naben beste herri batzuetako esperientzia, ze, Zornotzan nengoen Yoga klasek ematen ta Gerniken nengoen Yoga klaseak jubilatuei ematen, baia gehien bat emakumiek zien, ta ia ia 30 edo 40 neure urrien astien bi egunetan.”

Nagusien irakaskuntzarako eskolan, EPAn, lan handia egin zen ordurarte heziketa maila bajua zuten emakumeen matrikulazioak lortzeko. Honi esker, euren etxeetan egondako emakume asko batzen hasteko aukera zabaldu zen.

“EPA, hor emakume asko ere. Hor be, danetarikoa e, baia emakumiek astixe zeukiela ta halako kultura egarritxue ta euren denboran eskolara bai, baina halako titulurik ez eta hor ere bazen beste mugimendua.” (Mila)

Yogako ikastaroen bidez, adineko emakumeek euren ohiturak aldatzea lortu zen. Ordurarte moral zorrotzaren menpe bizitako emakumeek, gorputza mugitzen hasi ziren, elkartzen, arropa desberdinak janzten eta benetako eraldaketa baten hasiera suposatu zuen askoren bizitzan.

“Urten zien lehenengo goniegaz, ta alkondara ta jertsezuegaz ta mokasintxuekin ta etorten zien. Txandala itxiitzen ben barruen. Ta eske: “atetik sartu zarietak eurek zarie edo beste batzuk! Zenbat urte itxi dozuez hor, arropa aldagelan!”. Txandala azule, arraiadune, edo praka gorriegaz... Han barruen egoteko benetan gure bena erosten ben ta etorten ziren moja seglar jantsitze ta han barruen izaten ziren eurek. Zuek nahi dozuena ein baia nik neuretzat, poltsan sartuko neuke ta bueltatxu bat tiloetarantz goaz ta zergatik ez dozuez ekartzen deportibak eta gero pasiatzeko ta... Ta halanik hasi ziren txandalagaz urtetan.”

EPAn eta Yogan bildutako emakumeetatik sortu zen Emakide. Zailtasun ugari egon baziren ere, martxan jartzeko partaide kopuru nahikoa erraz lortu zen. Taldea dinamizatzen ibilitako emakumeen artean Mila eta Neli aipatu ditzazkegu.

“Emakide sortu zanian, Promoción de la mujer izenekoan laguntza eskatzen joan ginen ta esan doztien ba Gernikera ezin dala etorri, ze antzina antzina etorri zien ta Gerniken ez dabela kuajaten holako lan batek ta ez dakixela zegatxik baina... Esan nuen, bueno baia momentu hau desberdine izan ahal da ta momentu bakoitzian berana egin behar da. Bueno, ba 25 andra badaukazuz fijo egongo direla urrian kutsilloan hasteko baia honetarako maiatzian euki bihar dozuz konprometituta 40 andra! 50 andratik 60 andrara euki genduzan kultur etxien apirila amaitxu zanian!”

Taldea, ordurarte seme-alaben zainketara dedikaturiko emakumeek osatu zuten eta lehenengo aldiz, zer behar eta nahi zuten galdetzen hasi ziren euren buruari. Biltzea, hitzegitea, formatzea eta ondo pasatzea izango dira helburu nagusienak.

“Oso abaniko zabala zan. Mota guztietakoak. 40 urtetik aurrera. Umiek olgetan hasi direnak, unibersidadera joan direnak... emakumie geratzen zana apur bat... Askorentzat lehenengo talde esperientzia! Eurek pertsonalki ordurarte zan etxea, umeak zaindu, senarra zaindu janaria ipini baina gero zan denbora bat geurentzako euki ta han agertzen zien, ze gure dogu? Psikologo batzuk ein dozkuen emakumietaz berba, sexualitatietaz berba, osasun alternatiboetaz berba, bailes de salón, Arriagara joan autobusek alkilata... éxito absoluto! Zarzuela, teatro, juen Barakaldo antzokira ta kokoteraino autobusa!”

Emakumeek sorturiko talde batzuk

Mugimendu herrikoietan partehartze aktiboa izateaz gain eta emakumeez osaturiko taldeetaz gain, herrian sorturiko talde desberdinen kide ere izan dira gernikar emakumeak. Talde gehienak kulturarekin edota elkartasun taldeekin lotura zuena dute eta hauetan, urte askotan lanean daramatzaten emakumeen izenak asko dira.

Skout-ak

Talde hauen artean scout-ak daude. Urte askotan zehar, gernikar ume eta gazte askoren heziketan eragin handiko ekintza eta akanpadak egiten hasi ziren Marieli Castillo Ensunzak bultzatuta. 1975. urtean hasi zen martxan eta neskak eta mutilak batu zituen lehenengo ekimenetakoa izan zen.

“Neretzako izan zan gauza erraz bat, hasieran neska batzuekin egon nintzen ta laster konturetu nintzen coeducación oso importantie dala ta antolatu genuen 75an eskauta. Oso libre bizi ginen, ez estatutoak ez ezer, gure erara antolatu genuen dana, ezta.” (Marieli)

Lehenengo aldiz, askatasun handiko zerbait burutzen zen Gernikan: neurri zorrotzik gabeko konbibentziak, neska eta mutilak batera eta naturaren erdian.

« 15 urtetan egon diez pilo bat neska ta mutilak. Beti joaten ginen pirineosetara ta han egiten genuen gure kanpamentua oso liberala. Konbibentzia oso garrantzitsua izan zan eurentzat. Jente asko deko buruen ze onak izan ziren heziketarako.»

Dena dela, garaiko moralaren kontra jotzen zuen zerbait eiten zutela argi zegoen. Herriko sektore tradizionalenen kritikak gogorrak izan ziren.

“En los setenta, hasi ginenan neskak eta mutilek kanpamentuak egiten izugarrizko kritikak euki nituen, he sido criticada... Nik uste nuen bizitzen ikasten elkarrekin ia hasi behar zirela baia oso konsebadora da Gernike.”

Garai hura ilusio handikoa izan zela ordea argi dago. Sektore tradizionalenek kontra egiten saiatzen baziren ere, aldaketak geldiezinak ziren.

“Hori etapa oso garrantzitsua izan zan. Franko hit eta gero hasi ziren talde diferente ta izan zan egoera oso polita. Gaztiek ilusiñoagaz, demokrazia... izan zien urtiek oso politak. Mantendu genuen pilo bat jente, asteburutan mendira, berba egin, aztertu politika eta beste... 150 neska mutilek joaten zien kanpamentuietara leku desberdinetatik ta han elkartzen zien danak.”

Askagintza

Emakumeek sorturiko beste talde bat Askagintza izan zen. Askagintza, 80. hamarkadaren erdialdean sortu zen gazteengan drogek, eta bereziki heroinak, izan zuen eragin tamalgarriari erantzuteko. Talde honen filosofia, heziketan eta prebentzioan oinarritzen zen.

“Azkeneko urteetan ere, droga dela eta, Askagintza dela eta, batu ginen taldetxo bat eta ia hor Askagintzan lan egiteko. Hor egon ginen urte batzuk kontzientzia pizteko, gurasoekin ere, zela inportantea kirola, mendia, ez eskolakoa bakarrik... alternatiba bat sortzeko.” (Marieli)

Jentea badakizu, nerea ez dago sartuta... Baina egin genituen hor gauza diferenteak. Udaletxean ere egon ginen erreibindikatzen ez era teknikoan baizik

eta kalean ere zerbait egoteko behar zela. Gerora instituzioek euren gain hartu zuten gai hori, ta beno...” “

Elkarri

Elkarriren sorrera, emakume baten eskutik heldu zen Gernikara. Elkarri, elkarriketaren bidezko euskal gatazkaren konponketa bultzatzeko sortu zen.

“Politika mailan nik ikusten neban sufrimentu handia zegoela herrian ta ikusi nuen interesantia izango zela elkarriketa bultzatzea. Elkartu nintzen jente diferenteagaz, apur bat leku desberdinetan influentzia zuten pertsonak edo pertsona sakonak. Gehienak andrak izan zien, mutilek be bai, baia gehienak andrak. 92 urtean izan zan Elkarri taldea sortu genuela. Lehenengo herriak Bizkaian, Bilbo eta Gernike.”

Hasieran, burutu zuten lanaren gogortasuna adierazten da hurrengo testigantzan.

“Irten kalera, mahaitxu bat ipini, hotz, sinadura batzeko elkarriketa behar dela, ta etxera sinadura barik, jo... gogorra... Ta gero apurke apurke jente geixau. Hor egon nintzen 10 urte ta ia ikusi neban ia bete nebala. Gauzak ez dotez itxi ixtiarren, zugattik ez, bestiengatik ere itxi behar diez gauzak. Ia hemen ez dekot ezer geixau emoteko ta beste leku batera.”

Emakumeen konpromezutik egindako balorazioak

“Bakarrik fuerte ikusi dot Franko hil zanien, sortu zen ilusiñoa, oin gure esku egongo da, ezta? A momentue bai izan zala orokorrean baia gero klaro, politikoak konturatu zien ta esto lo cubro yo, esto lo cubro yo... Ta oso fuertea izan behar zara aurrera joateko... gizarteak bere papera deko.”

“Ez katolikoa bakarrik, kontserbatzailea da Gernika! Uste dot oso gixi aldatu dala, bakarrik aparientsixe baia buru barruen es más conservador que... dana ikusten da eskubide indibidual moduen, mis derechos, niriek...”

“Gernikeko andrie fine gure deu izen! Gernike ez konparau inguruko herrixekaz. Gernikeko andrie oso diskretie da beran pentsamentuen eta sentimentuen. Gernikeko andrie ez deu gure biluztu inoren aurrien. Horretan gara gure arbasoen jarraitzaile oso onak. Gernikeko andrie beran pribazitatien oso itxixe ta... Kulture ta dantza ta nahi dozune baia... »


“Guri ez jaku gustaten manifestaziño batien ikustie. Begitu eiten da nortzuk diren... Ez jaku gustaten. Hori gizonak eitxie bale baia andriek diskretatxuau izan bihar dabe.”

“Seinaletan zaituelako. Horrek ze esan bideu oin be... Andrak beti izan die kontserbadorren artean kontserbadoreenak.” Amagoia

“Zuk nahi dozu hori bultzatu baia ez dekozu erantzunik. Jentiek esaten: tu siempre te estas quejando, no ves nada bien... ta zuk esan ahal dozu: Jo, y tu que cómoda eres, con mucha jente como tu... Dena den itxaropena dekot, aldatuko da. Hau ziklikoa da.”

TALDEAK FALTA

ARTEA



Argazkia.

ARTEA

Mendearen hasieratik, emakumeak artean

Disziplina artistiko gehienetan, gizonak irudikatu dituzte emakumeak, gizonak sortu izan dituzte emakume pertsonaiak literaturan eta gizonak marraztu dituzte emakumeak margolanetan. Emakume idealak deskribatzen zituzten euren obretan eta hauek dira historiatik jaso ditugunak, gizonen begiekin sorturiko ereduak.

Mendearen lehenengo hamarkadetan, familia aberatsetako alabek izango dute kultur sormen mailan jarduteko aukera. Mende osoan zehar, klase altuetako emakumeengan baloratu den ezaugarria, arte ezagupenak izan dira. Hau dela eta, eskolan musika, dantza eta pintura bezalako klaseak jasotzen zituzten. Gazte batzurengan jakinmin eta ardura handia sortuko dute disziplina desberdinek.

Emakume hauek lehenengo protagonistak izan ziren baina era zabalagoan eta orokortuagoan burutzen ziren kultur jarduerak, antzerkia, musika eta dantza ziren. Egun konkretuetan ospatzen ziren erromeri, musika emanaldi eta antzerkiak oso ezagunak ziren eta emakumeen partehartzea zabala zen.

Artearen munduan murgildu diren emakumeen izenak ordea, denboran galdu dira. Normalean, oraingo artisten aintzindariak izan ziren emakume hoiengan lanak, afizio moduan ikusiak izan ziren eta eremu pribatuaren barruan geratu ohi ziren. Hau dela eta, zailtasun handiko lana da gure emakume artisten genealogia osatzea, eta euren lanetatik ikastea.

Emakume aintzindariak:

- Trikitilari eta pandereterak:

- * María Apraiz (1902-1989). Busturiko trikitilaria.
- * Felisa Arrizabalaga (1922-). *Kurtziako Felisa*, Muxikako trikitilaria. Juanita Gorroño eta bere gizonarekin hirukotea osatzen zuen.
- * Felisa Bermeosolo Arrasate (1899-). Ereñoko panderojolea.

- Musika irakasleak:

* Beatriz Gomeza. Madrileko *Real Conservatorio de Música*-n ikasitako emakume gernikar honek, 54 urtetan solfeoa eta pianoa irakasten jardun zuen Gernikan. Bere alaba Belenek, Gasteizeko kontserbatorioan irakasle da eta bere ikasleen artean: Josefina Abaunza, Luisa Escudero, Miriam Urigüen. M^a Encarnación Zabaleta eta Luisa Musatadi Santa Klarako abadesak egon dira.

- Elai Alai dantza taldea:

* Zerrenda luzeegia izango zenez, 1937. urteko taldean zeuden partaide batzuen izenak hartu ditugu eredu moduan. M^a Luisa Etxabe, Gorita Elguezabal, Miren Espilla, Miren Uribarri, Rosita Garate, Celestina Arrien, Carmele Telleria, Itziar Goiriena, Conchi Espilla, Pili Mintegia, Crucita Etxabe, Lourdes Olaeta, Lide Olaeta, Rosario Torrezuri...

Elai Alairen argazkia

- Antzerkilanak:

* *La planchadora de la marquesa* (1929) antzerkilanean partehartutako gernikarrak:

- Antzezleak: Elisabet Lejarraga, M^a Teresa Argintxona, Conchita Toña
- Musikari eta abeslariak: Paz Arana (pianista), Dolores Arriaga (abeslaria).
- Koroan abeslariak: M^a Dolores Escondo, M^a Dolores Zameza, Ana M^a Arana, María Martija, M^a Carmen Onaindia, Julia Gezuraga, M^a Victoria Aranguena, Pilar Herran, Miren Berriatua, M^a Angeles Garteiz...

* *Pueblo de las mujeres* (1930) antzerkilanean partehartutako gernikarrak:

- Antzezleak: Srta. Pertika, Olejua, Guarrotxena, Zubiaurre

* *El peso de una corona* (40. hamarkada) antzerkilanean partehartutako gernikarrak:

- Antzezleak: Itziar Arzanegi, Pelita Goiria, Cecilia Astelarra, M^a Luisa Etxabe...

* *El puesto ocupado* (1960) antzerkilanean partehartutako gernikarrak:

- Antzezleak: Remedios Pérez, Margarita Bilbao, Blanca Salegi.

* *Los Gavilanes, Amatxu eta La del manojo de rosas* (1965) antzerkilanetan partehartutako gernikarrak:

- Antzezleak: M^a Angeles Basabe, Lourdes Barrena, Blanca Salegi, M^a Jesus Zelaia, Milagros eta Margarita Obieta.

- Idazleak:

* María de las Mercedes Alonso Arbe: *De la vida...* Voluntad editoriala, 1927
1937. urtean, udaletxean eskakizuna luzatu zuen liburu denda bat zabaldu ahal izateko.

Ayuntamiento de Guernica. Sesión subsidiaria de 9 de Octubre de 1937

“Dase lectura a un escrito a nombre de Doña María de las Mercedes Alonso Arbe, solicitando permiso para abrir una librería en la planta baja de la casa de su propiedad sita en la calle de S. Pedro. El Ayuntamiento acordado su concesión.”

* Ramona Arbe Alonso: *El orgullo vencido*. Monasterio del Escorial inprentan, 1944

Liburuaren portada eskaneatua

- Argazkilaria:

Angela Allendesalazar y Zaragoza (1884-1975)

Angela Madrilen jaio zen 1884. urteko azaroaren 11an. Bere aita, Angel Allendesalazar y Muñoz de Salazar abokatua, Gernikako distritoko Korteetako diputatua izan zen Kongresuan eta hau dela eta Madrilen bizi baziren ere, uda Gernikan pasatzeko ohitura bizi osoan mantendu zuten. Familiaren etxea, lpar-etxea izenarekin ezaguna, gaurko anbulategiaren aurrean zegoen.

Garaiko familia aberatsetako alaben ohiturari jarraituz, Angelak formazio aberatsa jaso zuen. Bere maila sozialeko eginkizunak betetzeko prestatu zutenez, disziplina artistikoen inguruko ezagutzak ere jaso zituen.

Familian kultura eta arte ederren inguruko kezka berezia izandako senideen eraginaz, Angelak argazkilaritzarekiko jakinmin berezia erakutsi zuen. Gaztetik hasi zen inguruko leku eta pertsonen argazkiak ateratzen. Hauen artean, egunerokotasunaren irudiek garrantzi handia dute: baserritarrenak, Gernika-Lumoko kaleenak, inguruko paisaien irudiak eta abar luze bat.

Bere argazkiez gain, inguruko pertsonen egindako argazkien bilketa lana ere egin zuen eta garaiko artxibo grafikorako ekarpen handiko lan hau, baloratzekoa da. Egun, bere argazki makinaren bat eta argazki originalen kristalak mantentzen dira.

Angela, 1975. urteko irailaren 5ean zendu zen Madrilen. Hona hemen gure omenaldia bere lanari.

Aldaba 137. 2005. 870-871 pp. Esas fotos antiguas de Gernika y sus alrededores. Jose Angel Etxaniz Ortuñez. Gernikazarra

Azken hamarkadetan, emakumeak nagusi

60. hamarkadatik aurrera, gizarte mailan emago diren aldaketekin batera, artearen munduan ere pauso txikiak ematen hasiko dira. Euskal kulturaren berpizkundeak garrantzi handia izan zuen

ekoizpen artistikoaren garapenean eta 1964.ko urteko elkarteei buruzko legeak, kultur mailako talde berrien sorrera bultzatu zuen.

Emakumeen presentzia kalean ere nabarmen handitu zen, baita kultur jardueretan ere. Idazleak, kantariak, musikariak, dantzariak, aktoreak eta abar luze baten agerpena 70. eta 80. hamarakadetan zehar, gaur egungo gernikako kultur panoraman emakumeak nagusi izatea ekarri du.

Izen propioarekin kultur eta artearen munduan leku bat egin duten gernikar emakumeen artean, izen nahiko bildu ahal izan ditugu. Oraindik ordea, bigarren mailako sormen lanak kontsideratzen dira hauetako asko: etxeakoandere edo gazteek buruturiko lanak denbora pasatzeko. Argi dagoena ordea, zera da, sormenerako inizatiba dutenen artean gehienak, emakumeak direla.

Gaur egun, artearen disziplina desberdinetan ekarpen handia egiten ari diren emakumeei ere, leku txiki bat eskeini nahi izan diegu, euren esfortzua omenduz.

Musika

- Musika irakasleak:

- * Lourdes Barrena: Musika akademia bat sortu zuen 60. hamarkadan.
- * Goiarzun aizpak. Akordeoi irakasleak Gernika eta Bermeon 70. hamarkadan.
- * Begoña Arana Martija. Muxikan jaiotako emakumea bada ere, Gernikaren erlazio estua izaniko da. 1991an Donostiako Goi Kontserbatorioan solfeo irakaslea zen.
- * Segundo Olaeta Musika Eskola: Mirari Arrien, M^a Jose Ribate...
- * Juli Foruria Musika Eskola: Juli Foruriak (1959-) Gernikan emakume izena duen instituzio bakarrenetarikoa jarri zuen martxan 1990an.

- Koralak eta musika taldeak:

- * Sta Cecilia Korala: Blanca Salegi, M^a Angeles Basabe...
- * Andra Mari Korala: Maite Gandarias, Larraitx Gorriño, Amagoia Lopez de Larruzea...
- * Gaudeamus Korala: Juli Foruria.
- * Hodeiertz Korala : Nekane Basterretxea.

- * Seber Altube Korala: Gurutze Lejarza Ortiz.
- * Musikazale Gazteak: Teresa Farias.
- * Fanfarre Txirri-Txirri: Arantza Uriarte, Ana Ispizua, Ane Urionabarrenetxea, Izaskun Lezamiz, Maiteder Olano.
- * Berpizkunde Musika Taldea: Arantza Mendia, Maite Gandarias, Cristina Sardui, Itxaso Arana, Deunore Labaitua, Ana M^a Urionabarrenetxea.

- Kantariak:

- * Irene Ojanguren (1966-). Gasteizko Goi mailako eskolako irakaslea. Burututako lan guztien artean bi aipatuko ditugu: *Madame Butterfly* bezalako obran partehartzea eta *El matrimonio Secreto* antzezlanaren protagonista Arriaga Antzerkian.
- * Rosario Uribarrena
- * Olatz Saitua
- * Lupe Fernandez Bilbao. Bermeon jaioa baina Gernikan urte askotan bizi izandakoa da Lupe. Gaztetik musika munduan murgilduta ibilitako emakumea. Ez dok hamairu mugimenduan partehartu zuen eta 17 eta 19 urte bitartean astebururo kontzertuak eskeintzen zituen. Poesia eta interpretazio munduan ere murgildu zen. 1993tik Galatea taldeko zuzendari eta partaidea.

- Musikariak:

- * Itxaso Arana: kontrabajista
- * Neskutz Astarloa: pianista
- * Maitena Foruria, Tere Uribe eta Beatriz Ajuriagogeaskoa: txistulariak
- * Ane Miren Urionabarrenetxea. Udal Eskola Kontseiluaren Animazio musikala bekaren irabazlea 1991 urtean.
- * Naia Mandaluniz. Flauta trabesera jotzen du Euskal Herriko Gazte Orkestran. Donostiako Goi mailako musika Kontserbatorioko ikaslea eta The Silent Band-eko kidea.

Bertsolaritza

- * Oihane Enbeita Gardoki (1978-). Gernikar emakume bertsolaririk ezagunena. 1997 eta 2001eko Txapelketa Nagusietan finalaurrekoetara iritsitakoa.

Dantza

- Eskolak:

* Rosa Hierro Dantza Eskola: Rosa Hierro Bilbon jaio zen baina Gernikan dantza munduan egindako ekarpena handia izan da. 80. hamarkadaren hasieran sorturiko bere eskolan, gernikar askok jaso dute dantza ikaspenak.

- Dantzariak:

* Jaione Zabala (1978-): Europako konpainia onenen artean dagoen Holandako *Het Nationale Ballet*-eko dantzaria.

- Dantza konpainietako kidea:

* Angela Arana Egia: Kanadako Ballet Nazionalaren jantzien egilea. Nureyev bezalako dantzariak bere diseinuak jantzi dituzte.

Antzerkigintza

* Gaur egungo emakume antzezleen artean izen batzuk aipatu nahi izan ditugu:

- Sol Magunagoikoetxea: *La leyenda de Anzieta* (2001), Marsillachen zuzendaritzapean Arriaga Antzerkian, *La puerta abierta...*. Kortometraje askotan izan duen partehartzea azpimarratu beharra dago.

- Anuska Lasa: *Ikimilikiliklip*, *Bideonik*, *Goenkale...*

- Eneritz Artetxe (1972-): Obra desberdinetan burututako partaidetza hain da zabala, hurrengo adibideetara mugatu garela: *La dama boba* (2000), *Ikaro* (1999), *Txoritxo bat dekot eskuetan* (2003), *Goenkale* (2005), Barakaldoko antzerki eskolan antzerki jokoan irakaslea dela azpimarratzekoa da.

- Oihane Enbeita: Ander Lipusen zuzendaritzapean *8 olivetti poetikoak* eta *Txoritxo bat dekot eskuetan* (2004) eta Gorakada konpainiaren *Titiricuento* (2005) azpimarratu daitezke. *Txoritxu bat dekot eskuetan* antzezlanak garrantzi bikoitza du, bi emakumek buruturiko lana izateaz gain (Oihane Enbeita eta Eneritz Artetxe), bonbardeaketa ostean emakume gernikar baten istorioa kontatzen dute.

Literatura

- * Gabriela González: *Por donde mueren las cosas* poesi liburuaren egile (1984).
- * M^a Victoria Gondra y Oraa: *Monografía de la ledania o concejo de Ajangiz*. Madrid, 1988; *Monografía de Busturia anteiglesia y merindad*. Madrid: Beramar, 1990.
- * Laura Uruburu Totorikaguena: *Dalila*, 1987. 2001eko *Euskadi literatura sarian* epaimahaiko kidea. Gaur egun, Gernikako Berritzeguneko zuzendaria.
- * *Balance Cultural* aldizkariko sortzaileak: Gabriela Gonzalez, Begoña Cal Odriozola, Juana Aparicio eta Teresa Villanueva.

Argazkilaritza

- * Yolanda Treceño. *Diarios Íntimos*. Fundación La Caixa, 2001.


Pintura

- * Arte Eskola: 1962 urtean sortutako eskola honen garrantzia oso handia izan zen. Ordurarte artearekin loturarik izan ez zuten emakume asko, ikastaroetara joaten hasi eta Artean murgiltzeko aukera izan zuten. 1999 urtean legalizatu zen eta bokalen artean Ana M^a Zabala, María del Carmen Blasco eta Antonia Lopez egon ziren.
- * Sofía Gandarias: Gernikan jaiotako margolaririk ezagunena. 1978 urtetik etengabe ibili da bere lana esposatzen mundu osoan zehar. 1999. urtean, *Gernika* triptikoa sortzen du Gernika Museoan erakusteko.

Eskultura

- * Gema Intxausti (1966-). Erakusketa askotan partehartu duen gernikar eskulturgilea. Donostiko DV galerian (1997); Euskal Herria museoan banakako esposaketa (2000); Bilboko Arte Ederretako Gaur, Hemen, Orain erakusketan (2001) eta abar.

KIROLA



Argazkia. Baloiarena edo mendikoa

KIROLA

Gernikar emakumeak eta kirola

Mendearen azken laurdenerarte, emakumeen partehartzea ikuslari paperera mugatu izan da kirol munduan. Gernikan, futbolaz gain, esku pilota, zesta eta herri kirolak izan dira burututako kirol nagusiak eta emakumeak igande eta jai egunetan joan ohi ziren partiduak ikustera.

“Domeketan lagunekaz batzutan...”

“Gero futbola hasi zen. Gure koadrilan Gernikar amorratuek ta Gerniken zer ein al zan ba hortxe murgiltzen ginen. Ta futbolien be Gernikeri laguntzen! Baina suerte zan, domeketan izaten zela futbola ta errosarixoa be domeketan... ta guk zelan utzi futbola? Ni por todos los rosarios del mundo! Baina gero, futbola amaitzen zanien elizara joaten ginen. Baian futbolan sasoi, Gernika indartuten hantxe gernikartuten!”

Eskolan, kirola egiten zuten neska gazteek baina heziketaren zati bat bezala ulertzen bazen ere, ez zen berdin kontsideratzen mutilen eta nesken heziketa fisikoa.

Neskak baloiarekin argazkia

Goizale Mendi Taldea

Mendearen azken laurdenean hasi dira emakumeak kirolean aktiboki partehartzen. Tradizio handiko kirolen artean mendizaletasuna egon da.

Mendira ateraldia (Goizale Mendi Taldea)

Zentzu honetan, Gernikako mendi taldea sortu zen 1973. urte aldera, Goizale Mendi Taldea. Talde honetako lehenengo emakumeen artean, honako hauek egon ziren: Karmele Agirre, Arantza Izagirre, Eli Izagirre, Mila Obieta, Florita Sardui...

Gernikako Futbol Nesken Taldea

Talde mailan burutzen diren kirolen artean, futbola dugu. Lehenengo emakumeen futbol taldea 1985. urtean osatu zen. Urbietako zelaian jolasten zuten eta 1992 urtean jokatzen zutenen artean, neska hauek zeuden: Amaia Saguti, María J. Baranda, Maider Sardui, Maríán Fernández, Alazne Goiri, Iratxe Ugalde, Gemma Mendoza, Nerea Badiola, Maite Zuzaeta, Olatz Elorrieta, Verónica Grande, Olaia Zabala, Monica Moreno, Idurre Onaindia, Olga Naberan, Iraide Larruzea, Agurtxu Barturen eta Amaia Astorkiza. Emakume hauek lortu zuten lehenengo titulu nagusia 1994-95 Lurraldeko Ligaren txapeldunena izan zen.

Futbol partiduaren argazkia 1989

Rugby Emakume Taldea

Rugby Emakume Taldea ere 80. hamarkadan sortu zen. 1980.ko jokalarien artean Eneritz Etxabe, Amaia Arana, Sorkunde Zorrozueta, Amaia eta Marilu Mandaluniz, Eli Torres, Maite Landa, Lourdes Arrien, Bego Aberasturi, Ana Tere Martínez, Cristina eta Marije Aldamizetxebarria, Argia Telletxea, Marta eta María Lauzirika eta Nekane Espejo. 1988.ko argazki honetan, partidu bat irabazi ondorengo poza ageri da.



Rugby taldearen argazkia. 1999an sorturiko taldearen lehenengo partidua.

Lehenengo talde honen desagerpena eta gero, 1999an Gernika Rugby Taldeak nesken taldea berreskuratzearen aldeko apostua egin zuen. Kartel eta iragarki ugari jarri ondoren talde bat osatzea lortu zuten. Urte horretan bertan Euskal ligaren barruan sartu ziren.

“Hamaika komeria pasata eta partidurik irabazteke nesken taldeak ilusioz jarraitzen zuen. Ekimena aurrera zioan, baina arazo larria zegoen: beti jendez justu ibiltzen ziren eta nahiz eta Elorrio, Bermeo eta Zornotzatik ere jendea zetorren, ez zen neska berririk etortzen entrenamendu eta partiduetara. Jendea falta hau dela eta Bilboko talde batekin bildu beharra izan zuten 2003. urtean, baina ez zen ondo atera. Gaur egun, 1999. urtean hasi ziren haietatik 6 neskak jolasten jarraitzen dute. Mungiara joan beharra dute eta Gernikan noizbait talde berria aterako den esperantzaz.” (Esti Alzola?)

Saskibaloia

Baina dudarik gabe, emakume kopuru aldetik garrantzi handiena izan duen talde kirola, saskibaloia izan da. Zenbaezinak dira egunkarietan eta, bereziki, aldaba eta deiadar aldizkarietan aurkitutako talde eta partiduen inguruko kronikak. 70. hamarkadan lehenengo emakume talde bat sartu zen saskibaloia munduan. Talde hau osatu zutenen artean Zuriñe Gandarias eta Agurtzane Albizu egon ziren. 1991. urteko taldeko jokalarien artean Amagoia Ikazuriaga, Nerea Urionabarrenetxea, Karmele Zubiaga, Miriam Rojo, Nekane Prieto, M^a Carmen Hernández, Amaia Atxikallende, Puri González, Bego Gaztelua, Lupe Bartolome, Joana Urrutia, Igone Magunagoitia, Larraitz Uriarte, Amaia Ostiz eta Maite Matilla. Hurrengo urtean, 1992.an, Saski estatuko 1.B mailan sartzea lortu zuten. Saski taldeaz gain, beste talde bat ere sortu zen garai honetan, *IB Gernika*. Talde honetako jokalarien artean Ruth Elordieta, Iraide Calvo, Dorkunde Musatadi, Nora Arana, Aintzane Anakabe, Leire Ikazuriaga, Merce Fernández, Ainara Zubizarreta, Itziar Agirremaioa, Eunáte Madariaga, Olga Barrasa, eta Nora Ikazuriaga. 2005eko otsailan, Gernikako emakumeen saskibaloia taldea, egunkariko berri baten protagonista zen Liga estataleko laugarren postuan zegoelako.

Urdaibai Eskubaloia Taldea

Talde kirolekin amaitzeko, Urdaibai Eskubaloi Taldea aipatu behar dugu. Eskualde guztiko neskak jokatzen dute talde honetan. Jokalarien artean, Muruetako Yolanda Carracedo dago. Yolanda Euskadi taldearekin jokatu zuen 2002. urtean Espainiako txapelketan eta 1. postua lortu zuten.

Eskia

Talde kiroletaz gain, kirol desberdinetan partehartu duten emakume batzuren izenak ere bildu ditugu. Hauen artean ezagunenetarikoa, Ainhoa Ibarra Astelarra da. 1969 urtean jaiotako gernikar honek, lorpen handiak lortu ditu eskiaren munduan. 17 urterekin zirkuitu internazionallean sartua zegoen. Bere lorpenik handienak 1996ko Munduko Txapelketan 8. postua eta Neguko lau Joku Olinpikoetan partehartzea izan dira. 31 urterekin, txapelketen mundua uzten zuela iragarri zuen.

Ainhoa Ibarra

Ainhoa Ibarraren argazkia

Karatea

Karatearen munduan, Rosa Mari Sánchez-en izena aipatu beharra dago. Rosa Mari, 1977 inguruan hasi zen karatea praktikatzen eta 1985.rako zinturoi beltza eta 2. DANA lortu zituen. Udaletxe desberdinetara proposamenak bidali eta gero, Bermeoko polikiroldegian karateko monitorea lanetan hasi zen 80. hamarkadaren erdialdean.

Duatloia

Duatloiari dagokionez, Inmaculada Ruizen izena azpimarratu behar dugu. 1961.an jaiotako gernikar honek, 1996.an lortu zituen Bizkaiko txapeldun titulua eta Espainiako Txapelketan 4. postua. Inmak lortutako posturik garrantzitsuenetakoa, 1997. urteko Mundu Txapelketan 17. postua eta urte berdinean 3. postua Espainiako Txapelketan lortzea izan zen 37 urterekin.

Inma Ruiz-en argazkia

Triatloia

Triatloman ere, Alicia Pomposo gernikarraren tituluak aipatu behar ditugu. 19 urterekin, Bizkaiko txapelduna izendatu zen eta Espainiako junio mailako txapelketa irabazi zuen.

Ziklismoa

Ziklismoan, Izorne Bastegieta arratzuarra dugu. 1996.an Euskadiko txapelduna eta Espainiako Txapelketako 3. postua eskuratu zituen kadete kategorian.

Igeriketa

Igeriketan, Lucia Torrezuri Urrutxua dugu. 1989. urtetik aurrera partehartutako Bizkaia eta Euskadi mailako txapelketa guztietan lehenengo postuak eskuratu zituen. 1992.ko Espainiako Txapelketan 2. postua eskuratu zuen 200 metro mariposa espezialitatean.

Kirol desberdinetan gernikar emakumeen partehartze handia ezaguna ez bada ere, argi dago postu gorenetan zein lagunekin jolasteko orduan emakumeek kirol munduan gero eta garrantzi gehiago eskuratzen doazela.

Dena dela, emakumeek praktikatzen duten kirola bigarren mailako izaten jarraitzen du. Komunikabideetan kirola nagusi bada ere, gizonezkoen emaitzak eta marka berriak dira protagonista. Gainera, emakume kirolari asko, ez dira kirol emaitzengatik famatu. Azkeneko hamarkadetan asko egin bada ere, oraindik asko geratzen da egiteko.


EMAKUME BEGIRADAK
BONBARDAKETAN

Hirugarren eta azken atal honetan, bonbardaketari eta bere testuinguruari leku berezi bat eman nahi izan diogu. Gernikako bonbardaketari buruzko ikerketa ugari egon badira ere, emakumeen aitormen eta testigantzak oso txikiak izan dira eta behin gernikar emakumeen historia berreskuratzeko saiakera eginda, eta Gernikan gaudela kontutan izanda, garrantzitsua iruditu zitzaigun garai eta gertaera horri atal berezi bat eskeintzea.

Atal honekin, ez dugu bonbardaketaren inguruko ikerketa berri bat egin nahi, ezta dagoena berridatzi ere. Gure asmoa, emakumeek garai horretan izandako bizipen eta pasarteak biltzea izan da, bonbardaketaren garaia emakume begiekin ikusteko aukera emanez.

Bonbardeaketako historia ofizialean, gernikarren bizipenak isilarazi ziren eta emakumeenak gernikar eta emakume izateagatik are gehiago. Hauxe izan dadila, gai honen inguruan argi pixka bat gehiago, emakumeen ikuspuntu batetik, eskeintzeko atala.

BONBARDAKETA



Argazkia. Taldea ruinen aurrean edo gauzak batzen

BONBARDAKETA

Bonbardaketaren aurreko garaia

Altxamendua eta gero, Errepublikaren defentsarako neurriak hartu ziren. Herriko populazioaren gaineko kontrola bideratzeko, izen, abizen eta afiliazio politikoa zehazten zuten pertsonen zerrendak osatu ziren. Arazorik gabe mugitu ahal izateko, salbokondukto bat eskatu behar zen. Hona hemen Abuztutik salbokondukto hau eskatu zuten emakume batzuen izenak:

Aurora Badiola Arroitia	Artekale, 21-3 ^a	Errepublikarra
Soledad Altube.....	Ikust Eder Txaleta	Eskuina
Luisa Mendizabal Atxa.....	Asilo Calzada	Ezkerra
Anbrosia Uribe Zendagorta	Asilo Calzada 27-1 ^a	Nazionalista
Modesta Aranguena Ibieta.....	Ocho de Enero 20-3 ^a	Eskuina
María Goiena Zabalandikoetxea.....	San Juan 19-2 ^o	Nazionalista
Teresa Arostegi Ormaetxea.....	San Juan 21.....	Eskuina
Jesusa Zubiaurre Azketa.....	Asilo Calzada 46-3 ^o	Acción Nacionalista
María Paz Arano.....	Asilo Calzada 8.....	Apolitikoa
Antonia Astoreka.....	Puerto, 6.....	Eskuina

Populazioaren kontrolaz gain, Errepublikaren etsaiak kontsideratzen ziren pertsonen zigorak ezarri zitzaizkien. Hauen artean Primitiva Amesti, Soledad Altube, Isidora Villanueva, M^a Rosa Obieta, M^a Dolores Enderika, Emilia Allende Salazar eta Juana Omaetxeberria ikertu zituzten eta María de Zarrandikoetxea, Pia Obieta Amesti eta Dolores Ruiz Porras salatua izan ziren. Eskuineko emakume ezagunei, zigor ekonomikoak ere ezarri zitzaizkien Errepublikaren etsai zirela akusaziopean. Hauen izenak Sofía Gandarias, Teresa Gandarias,

Casilda Gandarias eta Julia Iza izango dira. Lehenengo hirurak 250.000 pesetetako isuna ordaindu zuten eta azkenak 50.000 pesetetakoa.

Gerraren hurbiltasuna

Gernikako paisaia guztiz eraldatu zuen fenomenoak, gipuzkoar errefuxiatuen etorrera masiboa izan zen. Lehenengo aldiz, ezer gabe geratutako familia eta herri osoak euren begien aurretik pasatzen ikusteak, gerraren benetako dimentsioak jabetzeko balio izan zitzaizkien gernikarrei. Normalean, familia osoak edo hiruzpalau pertsonetako talde txikiak heltzen ziren eta etxeetan zein eskolan babesa ematen zitzaizkien. Bazkaria *Auxilio Socialean* banatzen zen.

Gudarien eta zaurituen etorrerak ere, aldaketak eragin zituen herrian. Gernikako eraikin nagusi askoren okupazioa beharrezkoa izan zen hauei babesa eman ahal izateko. Merzedariak eta klarisen konbentuak gudarien aterperako erabili ziren bitartean, karmeliten nesken eskolan ospitala kokatu zen. Karmele Deuna ospitalera, hurbileko fronteetatik ekarritako soldaduak eraman zituzten.

Emakumeak Errepublikaren alde

Errepublikaren aldeko emakumeen aktibismoa ere nabarmena izan zen. Erizain ikastaroak bikoiztu ziren eta zaurituak, haurrak eta nagusiak zaindu zituzten. Erizain lanetan gernikar neska gazteak ibili ziren, gehienak Emakume Abertzale Batzako militanteak. Ikastaro baten bidez oinarrizko edukinak jaso eta gero lanean hasi ziren. Neska hauen izenen artean honako hauek aipatu ditzakegu: Arantza Arzanegi, Teresa Argintxona, Miren Zameza, Mirentxu Isasi, Soledad Gorriño, Agustina Uranga, Juanita Foruria eta M^a Angeles Atxabal. Borrokan inplikazio handiena izan zuten emakumeak atzerrira joan behar izan zuten errepresioari ihes egiteko. Hau izango da Arantza Arzanegiren kasua, hiru urtez egongo da Iparraldean.

Argazkia: Erizainak

Elkarrizketatutako emakumeen artean Zornotzan erizain lanetan ibilitako emakume baten testigantza jaso dugu.

“Después de Basurto el hospital más grande era el que instalaron en Amorebieta en el convento de las Carmelitas. Una de las jefas de Emakume me dijo que tenía que estar ayudando y cogí el primer turno de la mañana. Cuando el bombardeo de Durango muchos llegaron al hospital . Allí había de todo... hubo muchos muertos.”

Zaurituen eta gudarien zainketaz, herriko emakumeak arduratu ziren. Bazkaria egitea edota arropak konpondu eta garbitzea hauen ardura zen. Baina ez hori bakarrik, gudarien kasuan, okupazioa eta gero etxeetan babesa eskeini zieten emakume ugari ere egon ziren.

“Gure etxien bat izkuteta euki gendun kamaran. Zelako historixek pase doguz... Etorri eiten ziren soldaduak...”

Bonbardaketa, ordurarteko munduaren amaiera

Bonbardaketa eta gero, denek ezagutzen zuten Gernika betirako desagertu zen.

“ Bonbardeoa ta gero, aitxe desagertute egon zan ta San Pedro Kardeñan egon zala jakin gendun. Gu Bilbora joan ginen ta bueltan etorri ginenien etxea errekisauta egon zan. Aita kartzela desberdinetatik pase zan. Ama bitartien Agustiotan zigortute egon zan soldaduen kaka garbitzen. Ama gau ta egun emoten ban biharrien, Dalian ta tabernatan harrikoa eitxen, umeak aurrera atateko. Dena dala, urte batien bihar ein barik egon zan zigortute. 14 urterekin aitxe hil zan ze gaixo buelte zan ta nik hartu neban aitan postue. Andrak esklabak moduen eitxen gendun bihar familia aurrera atateko. Ez jat ahaztu be ingo inoiz

memoria galtzen baot, a eguna zan tristie. Ahaztu ez da eiten, barkatu ein be izaten da, baia ahaztu... ez da eiten."



"Gure aizta zaharrena bonbardeo egunien elizan sartu zan ta gero etxie dana erreta egon zan ta berak familixe eukiteko orduntxe bertan egunetan. Gizona nondik nora dan bez... Gure Pilar izan zen orduen jaixo zana ta elizan egon zen ta ez zan egon ez medikurik, ez abaderik pez, ezebez ezebez! Ta harek soldaduek han, ta, beno, harek ez bien eiten ezebez ez, baina..."

"Bonbardeoko garaian akordatzen naz gure ama Gernikera etorri zala ta txikitxuek gu, txikitxuek: Umiek hona! Umiek hona! Etxera sartu! Etxera sartu! Ta ama falta, ta gure aita istu. Heldu zani en etxera zer izango zan gure poza! Beti joaten zan gure ama otxara buruen zuela, arraultzatxuek eta bertan saltzen eroateko. "Zubipean geratu ziren danak hil ein ziren""

"Gure alboko andriek errosarixoa hartu ta errezeu ta errezeu iluntzerarte."

“Cuando el bombardeo de Gernika estábamos en Bedia. Nos juntamos con las maestras de las escuelas vascas que iban a ir a Gernika pero se les llamó para preparar la evacuación de los niños y no fueron. Ya no pudieron ir...”



Elkarrizketatutako emakume batek, suntsiketaren ondorioz gertatutako pasarte bat kontatu digu.

*“Lagun batzuk gogoan dekot han juntetxe aurrian: “¿Dónde está la parte vieja?”
“En Gernika no hay parte vieja” “¿Y qué es lo que quedó?” “Nosotras””*

Bonbardaketaren ondorio larriena ez zen, ordea, suntsiketa materiala izan. Dena galdu zuten herritarren eta bereziki, bizia ere galdu zuten gernikarren ondorioa izan da lekukoei memorian betirako grabatua geratu zaiena. Familiak sakabanatuak geratu ziren. Gizon eta mutil asko hilda, kartzelan edota zaurituak, ume asko atzerrira ebakatuak eta orokorrean familiak etxerik gabe. Gernika suntsituta geratu zen eta inguruko herrietan edota baserrietan familia edo lagunekin geratzeko aukera izan zutenak kenduta, beste guztiak kanpora joan behar izan zuten.

Gernikarrak atzerrira

Urte beltzak izan ziren ondorengoak. Emakumeak familia aurrera ateratzen saiatu ziren eta euren esku egongo diren, eta egongo ez diren, baliabideekin. Etxerik gabe, senarrik gabe, janaririk gabe, kasu gehienetan ezer gabe geratuko dira gernikarrak. Lehenengo egunetan Gernikatik alde egin behar izan zuten gernikarrak. Bildutako gauza apurrekin atera ziren eta askotan aita, senarra edo semea atzean utzita.

“ Industrial Vizcaynan bihar eitten neban eta bonbardeoan fabrikan egon ginen. Ebakueta joan ginen Bilbora moroen beldur zelako aitxe. Hortik Santaderrera ta gero Estatu Frantzesera. Bertan aitxe hil zan trintxerak eitxen gaixotu baitzen ta Bilbora buelte ginan. Gernikera itzultzien ez gendun ezer, goian zerue ta beien lurre. Ama ere, laster hil zan ta 8 seme-alaba bakarrik geratu giñan. Zaharrenak 24 urte ta gaztienak 3. Ez genun laguntzarik jaso ta miserian bizi giñan.

“Niri asko aldatuzten gerrie etorri zani en, danak miserixek kontetan...”

“Mis padres se marcharon a Francia. Eran 7 hermanas y 3 se fueron con su madre y las demás se quedaron por aquí. Una era enfermera y no sabían ni donde estaba y las dos pequeñas quedaron en el baserri de unos amigos. En Francia les recibieron muy bien y la gente del pueblo les daba trabajo. Mi madre sabía coser y empezó a sacar dinero..”

« Inglaterrara eroan doskuen 8 hiletarako”

“ Bonbardeoa ta gero, moroei bilurre zabaldu zan ta Busturirantza joan giñen han egon zalako Gernikeko Udaletxea. Hortik Bermiora ta pabiloi batien jatekoa emoten bien ta etxe baten pasa gendun gaba. Hurrengo goizien Bilborantza joan giñen autobusetan ta azkenien San Pedro de Galdamizen egon zan lekue. Septiembren buelte giñen Gernikera. Aita preso egon zan. 6 neskatatik danak bizimodua atara behar izan gendun. Gure amak zenbat negar ein ban... lan ein ban asto bat baino geixau. Aita libre itxi bienien biharra eskinitzien taberna baten baina humilazioak jarraitu bien.”

Asko izango ziren atzerrian betirako geratuko zirenak, baina beste asko, urte gutxiren bueltan, herrira itzuli ziren. Itzulera zerbait pozgarria bazen ere, laster errealitatearekin egin zuten topo. Bueltatzeagatik, exilioan geratutakoen artean gaizki ikusiak izango dira eta behin herrian, Errepublikaren aldeko moduan atzerrira joategatik. Gainera, askoren etxeak eta jabetzak errexisatuak zeuden.

“Nimesen geundela, itzultzeko ordena emon bien Gernikera edo Kataluñara. Gu Gernikera buelte giñen ta horregatik frankistak deitzezkuen. Aduanan Cara al Sol abestu behar izan gendun ta Bilbon, kaletik, ¡Rojas separatista!... oso gogorra izan zan...”

“Han Susanak etxien makinie euki ban nere auzoko bateri errexiseta. Gero berria be ekarri ban. Harek Frantzitik egon ziren ta bueltan etorri zirenien emontzien baina total estropieta, hainbeste urtien! Haren etxien be dana errexisa bien “¡Lo que hay en España pa los españoles!” esaten bien.”

Herriaren egoera

Atzerrira joan ez zirenak, inguruko baserrietan geratu ziren edota herrian geratu ziren etxe gutxitan. Herriaren ikuspegia beldurgarria zen.



“Gernikako etxean %90 kiskalita izan zan ta jende guztixe kanpora. Leheneko egunetan edodnon: kortatan...”

“Gure etxie ez zan erre baina kendu ein doskuen ze gurasoak “rojos separatistas” zien ta orduen “a la calle”! Errigoitra joan ginen aititen etxera.”

Gernikan geratu zen emakume baten esanetan, Saraspe inguruan zutik geratu ziren etxeetan bizi ziren herritarren artean, elkartasun handia egon zen.

“Aita ta ama lanera Gernikera etorri behar izaten ginen ta emakume batek galdetu ban ia non zeuden bizitzen ta semeak kartzelan euki bazenez bere etxean hartuzkun. Saraspe inguruan etxe batzuk geratu ziren ta elkartasun handia egoten zan jendea artien”

Okupazioa

Bonbardaketa eta gero herrian geratu zirenak, tropa nazionalen okupazioaren testigu izan ziren. Erregimen berria goratzeko ekimenak etengabeak ziren eta hauetan partehartzea derrigorra zen.

“Frankon menpean herrixkan bat jausten bazan izaten zan eskerrak emotekoa ta comunismotik ataten zuen harek pertsonok ta eleizan jotzen zituen kanpai hotsak ta atsalde haretan “acción de gracia” eiten zan ta kalien ibiltan baziñen Guardia Zobilak “¡Usted a China, a Rusia o a la manifestación!”. Ta joan ein biher. Ta guk umiak ginen baina ez jakun hori gustetan ze jakin gendun zelan gudariak ein zituen errudun Gernika suntsitzearena. Politizeu ein genduezen umetatik. Andra ta umiek etxetik urten barik ta gizonak arinau inguruko baserrietara ospa eiten bien.”

“Ayuntamientoan eiten zan mitina ta behin militar bat upelako mozkorragaz Espainia goratuten ibili zan. Guk harek danak ikusi ta ikasi ein genduezan ta gure gurasoak zigortute...”

Razionamendua

Familia gehienetan eragin handia izan zuen neurria rasionamenduarena izan zen. Biztanle bakoitzari zegokion elikagai kopurua zehaztuta zegoen eta baita produktuen salneurriak ere. Egoera honi aurre eginez, etxeko ekonomiaren ardura zuten emakumeek, zutenarekin moldatu behar izan zuten etxeko guztiei jaten eman ahal izateko. Eskerrak, baserriek esker produktu asko eskuratzeko aukera oraindik bazela baina elikagai hauek ere errekitatzen ziren. Garai gogorrena gerraostea izango dela esango dute elkarriketatutako emakume gehienek.

“Gainera gizartia banatu eben 3 zatitan: eukitsuenak, erdi ingurukoak ta beheragokoak eta nik ez dakit nundik nora gu erdian sartu gintuezan! Ezer barik geratu giñen ta beheragoko mailan egongo ginen, goragokoen mailan ez edozelan be! Ta bigarren mailan orduen ogixe be laburrau izaten zen. Beheragokoari gehixean baina gitxi edozelan be... Eta holan, kolarik kola ibiltan ginen, zer banatu gu han!”

“Jateko labur emoteizkuezan, ez dakit zenbat denborarik zenbat denborara baina, 100 gramo azukera, 100 gramo ez dakit zer... 100 gramo ta 100 gramo, ta

badakit orduen egon zan gobernadoreari motie ipini deuziola "gramitos". Baina 100 gramo ez zan ezer bez... Ta ogixe be gitxi! "

"Gerra paseute txarraua izan zan gerra denboran baino. 41an ta izan zan txarra..."

"Etxera etorri izan ziren erreketan ere ta bilurregaz preso joango ote ginen... Eurek eiten bien negozioan!"

Egoera honen aurrean estraperloa hazi zen eta urte luzeetan zehar, dirua zutenek soilik erosi ahal izan zituzten oinarritzko produktu asko.

"Estraperloa orduan ugari! Panaderoak esaten ban ogi zuririk ez dotziela ematen baina guzurre! Ze isilien ogi zurixe saltzen bien baia guztiz garesti! "

Baserrian bizi zen emakumeetako batek, etxeko garia errotara klandestinoki eramaten zutela kontatu digu.

"Geuk etxien garixe ta artoa hartunda urune be eiten gendun. Errekiseu eiten bien baina taloak eiteko etxien eukitzen gendun artoa ta Oman errota zegoan ta Belendiztik gabaz joaten ginen, ze beste errotak prezinteta egon zien. Taloa jateko be ba urune igo bihar ta astoan ipini zorro bi ta farolagaz bat aurretik ta betea atzetik basotik. Han beste batena einje bazegoan, hura emon ta bueltan osterabe baina zurea eiteko itxaron behar bazendun ta egune argitzen bazan ba, bertan egon... jan be sarri bertan, ilundu artien! Sinistu ein leikie!"

Janari falta ordea ez zen beste herri askotan bezain larria izango. Baserrietako ekoizpenari esker beti lortzen zuten zerbait jateko. Dena dela, umetatik markatuta geratuko zen zerbait izan da janariaren falta.

"Pentsaizu, etxe barik, 8 jateko... eskerrak baserriko senideari... batien indabie, bestien urune taloak eitteko... Asez bez baino gosez bez!"

“Desde niñas nos enseñaros que no estábamos sólo para comer y divertirnos.”

Baliabide materialen eza

Baliabide materialen eskasia, arropan ere nabari zen. Oihalak garestiak ziren eta arropak behin eta berriz konpontzen zituzten. Ahalik eta denbora gehien irautea zen helburua.

“Negue etorten zanien udako erropatxuek, mehetsuak, abrigoan azpitik. Ez zan egoten orduen gona ta jertsie ta halakorik!”

“Abrigua ipinten gendun ezta, ta igual 5 edo 6 urtetan ipini ta gero buelta emonda abrigo berrixe izaten zan ostabe...”

“Eurixe eiten banien abarketak hartun eskuen ta ortozik joaten ziren, aite edo gure aititek esaten bien, busti ez daizen...”

“Guri kontetazkuzen gure aldien antzinako gauzak oniño txarrauak izan zirela antza...”

Emakumeek, euren ahalmena behin eta berriz proban jarriko duen egoerei erantzun beharko diete. Familia aurrera ateratzeko adina diru emango duen lanpostua edo lanpostuak aurkitu, janari gutxiarekin ahalik eta bazkari gozoenak prestatu, arropa zaharrak desegin eta oihal zatiekin jantziak konpondu eta abar. Baina zuzenean euren kontra burutuko den errepresioa ezin dugu ahaztu gerraostea aztertzerakoan.

Emakumeen kontrako errepresioa

Emakume nazionalista eta ezkertiarren kontrako errepresioa sistematikoa izan zen. Gradu desberdinetako errepresio neurriak definituak zituzten eta emakume bakoitzaren inplikazioaren arabera bata edo bestea ezartzen zioten. Pairatu zuen emakume kopuru handia dela eta, humilazio zabalduena tropa nazionalen, eta bereziki marrokiar tropen, zikinkeriak garbitzea izango da.

“Aita hil ein bien... izan zan PNVko sekretarixoa Forun ta orduen 3 hil biegen. Rojos separatistas izan ginen. Forutik etorten ginen andrak ta “Ahí vienen las

rojas de Forua a limpiar las cacas de los moros” esaten ben. Etorten ginen esku baldie hartunde Agustinoetara ta harek garbitzen... kaka piloa... Ni gazte nintzelez ure eroaten ipinteztien. Harek be eskolak garbitzen etorri ziren. “

“Moroak eta egoten ziren eleizan ta antza zikiñek ta euren beharrianak eitten zituen edonon, edonon... ur bedeinkatuen ontzixen be bai!!”

Tropa okupatzaileen zikinkeria garbitzea, emakume gorri eta nazionalisten kontra Gernikako udaletxean hartutako erabakia izan zela aipatzea ezinbestekoa da. Errepresio neurri hau beraz, herriko instituzio gorenak emakume gernikar askoren kontra hartutakoa izan zen.

Pleno del Ayuntamiento de Guernica. Sesión Ordinaria. Día 20 de Mayo de 1937
“... Que se proceda al [?] de la Iglesia de Santa María; designándose para realizar la oportuna limpieza, tanto de la Iglesia como otros edificios a mueres nacionalistas y rojas...”

Beste humilazio gogor bat, tropa nazionalek asko erabili zutena, ilea moztea izango da. Euskal Herriko herri askotan, ile mozketak masiboak egin ziren gerraostean eta gero herrian zehar jendearen zaraten artean ibiltzera derrigortzen zituzten. Gernikan ez dugu kasurik aurkitu, baina Nabarnizen neska bati egin ziotela esan du emakume batek baino gehiago.

“Muxiketik be, baldetxuegaz etorten ziren ta behin esan bien, ulie ebaikotziela ta nik badakit, gerra ostian Nabarniztar neska bati, frankotarrak sartu zirenian, ule guzti guzti guztixe moztu eutzela. Lehenengo eroan bien baso batera nora doan be ez dakiela, ule guztixe moztu ta gizajie inora urtetako lotsatute!

“Ulie moztu Nabarnizko Eduardari. Ta noren aginduz be bai!”

“Galipota botakotziela zigor moduen. Haregaz unteuz gero bakizu zelako usaine!”

Baina emakumeek pairatu behar izango duten errepresiorik basatiena, bortxaketak izango dira. Tropak herrietatik pasatzerakoan, emakume asko bortxatuak izango dira. Barazarren adibidez, zortzi eta hogeitahiru urte bitarteko zazpi gazte bahituak izan ziren. Hiru egun eta gero, hiru

neska bakarrik bueltatu ziren, egoera tamalgarrian, besteak erahil ondoren. Zornotzan ere, hogeitamar emakume mendira eramán zituzten eta zortzi egun eta gero itzuli ziren.

Gernikan, kasu bati buruzko testigantzak jaso baditugu ere, oraindik emakume asko, izkutatu beharreko gai moduan ikusten dute. Elkarriketa batzutan, honen inguruko zerbait zekiten galdetzerakoan, ezetz erantzuten zuten baina berriz galdetzerakoan, zerbait entzuna zutela onartzen zuten baina izenik ez zekitela. Argi dago, bortxaketek sortu zuten erruduntasun eta lotsa sentimendua oso sakona izan zela eta gaur egunean ere, isiltasun pakto bat mantentzen dela.

Bildutako testigantzetan oinarrituz, kasu bakar bati buruzko aipamen txiki bat jaso dugu baina ziur gaude kasu gehiago egongo zirela. Testigantza honetan, emakume bat bortxatu zuen soldadu bat hil egin zutela jakin dugu eta Aizerrotarako bidean lurperatu zutela. Kosnoaga baserriaren inguruan jarraitzen du bere gorpua.

“Aizerrotara bidien Kosnoaga baserrixetik bazen hantxe hil bien moro bat ze andra bat, ez dakit ba, azkenean bera galdu baban edo ez, baina beti andra guztixen atzetik, eta hango inguruko batek esateoztan: “bai hantxe inguruan hil bien moro bat ta hantxe inguruan dau enterraute”. Egixe edo guzur ez dakit baina bera handikoa zan ta beran senideak be hantxe bizi ziran, orduen zeuzer jakingo bien...”

Egoera honen ondorioz, nahi ez izandako haurdunaldi asko egon ziren. Emakume honen hitzetan, okupatzaileek edozer egiteko legitimitate osoa zuten.

“Italianoak beste era batekoak ziren. Moroak zatarragoak izaten ziren. Baina eskubide guztixek euki zituen ta soldaduetatik urten diren mutil koskorrak nik ezatu dodaz!”

Honen adibide, garaiko kanta baten esaldi hau dugu: *“Los italianos se marcharán, y un hijo te dejarán...”*.

Bortxatzaileak, bando nazionaleko soldaduak izaten ziren. Garai horretan, soldadu marrokiarrei egotziko zaien zerbait izango bada ere, hauek ez ziren bortxaketak burutu zituzten bakarrak.

Nafar erreketek eta beste zonalde batzuetako soldaduek ere, emakumeak bortxatuko dituztela argi dago.



Soldaduen arteko jerarkian marrokiarrek bigarren mailakoak izatea, gertakari askoren errudun izendatzea errazten zuen eta ezezagunari zitzaion beldurrak, soldadu marrokiarrekiko beldur bereizia sortarazi zuen.

“Foruko Juanita etxetik ekarri behar baldie be! Foruko komentua garbitzen be ibiltzen ginen. Moroak askotan pasetan ziren handik ta izkuteu eiten ginen gu ze harek andrari atake eitetzien. Hainbeste andra harrapa zituen harek! Badauz familixe euki dabiezenak harekin! Gu izkuteu eiten ginen...”

Emakumeen kartzelaratzek ere asko izan ziren eta gehienak Larrinagara eramaten zituzten preso. 1937ko uztailaren 7an, emakumeen aurkako epaiketei hasiera eman zitzaien Bizkaian. Eskatutako zigorren artean heriotz zigorra zegoen eta gutxienez 15 emakume fusilatuko dituzte. Heriotz zigorrera kondenatutako emakume gernikarren inguruko daturik ez dugu aurkitu.

Bazen beste kartzela bat aipatzekoa dena Larrinagakoaz gain, Saturrarangoa. Kartzela honetan estatu mailako emakume presoek erdia biltzera heldu zen. 1943.an 1500 emakume preso

zeuden Saturraranen. Zainketa lanetan monjak eta Guardia Zibila aritzen ziren eta disziplina zorrotza zegoen. Egunero, goizeko seiretan jeiki, zortziretan gosalduta, hamabietan bazkaldu eta zazpiretan afaltzen zuten.

Arrazoi bidegabeengatik zigor geletan pasatzen zituzten emakumeak eta hauek ibai txiki baten ondoan zeudenez, tuberkulosiz gaixotzeko arriskua handia zen. Haurrak zituzten emakumeek, hiru urte bete arte mantendu zitzaketen kartzela barruan baina asko gaixorik hiltzen ziren tuberkulosia, rakitismoa edo meningitisak jota. Hiru urte betetzean, Mutriku, Deba edo Ondarroako familiek hartzen zituzten ama atera arte baina desagertutako ume askoren kasuak ezagutu izan dira orain gutxi. Ofizialki, 155 emakumek galdu zuten bizia kartzela zabalik mantendutako sei urtetan.

Emakumeak, errepublikaren aldekoak izateagatik hartzen zituzten preso. Senideak gudariak edo milizianoak zirelako, antolatutako taldeetako kideak zirelako edota errepublikar eskoletako irakasleak zirelako.

“Halakoak ein biegen! Kartzelan be emakumeak egon ziren baia gehienak hila dauz. Emakumeak Larrinagara eroaten biegen ta han ein zituen urtiek...”

“Egon holanik asko kartzelan ez. Herriko neskak garbitzen bai baia kartzelara eroateko zerbait gogorra behar zan.” (Mila)

“Gure ama, lau sei bider eroan eben. Beran aitite, oso nazionalista zan, Sabino Aranantzat eiten ban biher. Kontue da, alkatie ta juez de paz ere izan zala. Preso eroan bien ta etxie errekeiseu ahal izateko, legie atara bien. Baia arinau fallo bat euki bien. Aitite hil eben palizagaz, ta gure izen bena, baia arinau hil jaken. Orduan gure ama geratzen zan propietarixa ta kartzelara eroan gure eben familia guztiz desestrukturata ta etxiegez geratu ahal izateko.” (Mila)

“Honek egon zien Larrinaga baia gero egoten zien en Auditoria de guerra. Tokixen eukitzen bien soldaduek batzeko, miserikordixe... kolegixuek... Ta horrek etorten zien arropak zorritz beterik ta orduen honek eukitzen bezen lanak eiten ta ikusten ba eben konfidantzazkuak ta finak, ba... Pero tu que haces aquí? Porque debo tener muchos cueros en el camarote!” (Mila)

“Leku asko egon zien kartzelartute!” (Mila)

Kartzelaratutako gernikar emakumeen artean hauek egon ziren: Fidela Eizagirre, Trini Mintegia, Ignazia Ikazuriaga...

“Beregaz batera egon zan Kortezubiko Victoria Zearra Badillogaz ezkontutakoa, Zamezatarra Kortezubikoa, Errenteriko Fidelagaz... .” (Mila)

Irakasle ezkertiar edo nazionalisten kontrako neurriak ere hartu zituzten. Gernikar hiru irakasle inhabilitatu zituztela dakigu.

“Irakasliek inabiliteu ein biegen. Bat egon zan Katiekon Errenterin. Hor ere egon zan otra maestra que no pudo ejercer. Katieko maestrie zana... Katieko etxie, oin dau botata. Katieko maestrie Oman egon zan maistra ta ta gerra sartu zanian a umiekaz kantetan, ez dakit ikurriñiegaz zeuzer ein ben ta a inabiliteta geratu zan. “ (Mila)

“La madre de mi amiga y la madre de mi cuñada les he oído hasta que murieron que ellas estuvieron en la cárcel y las dos eran maestras y las dos sin ejercer. Ponía “hizaron las banderas y animaron a los gudarís” creo que le ponían. Mi cuñada 3 años estuvo en la cárcel..”

Herrietan buruturiko errepresioan garrantzi handikoak izan ziren garaileen aldeko emakumeak. Hauen zurrumurru eta salaketak emakume bat baino gehiago eramango dute kartzelara. Guardia Zibila, erregimenaren kontrako etsaien gaineko errepresioaren ardura zuen baina herritar batzuren laguntza zuen.

“Aita EAJkoa zan ta aberria defendatzeko hartu ban parte gudan. Preso hartu bienien, Penal de Santoñara eroan bien. Azkenien, Galiciako Redondelara eroan bien 5 urtez. Hemen leprosoak egoten zien. Beste bi anaik, Zaragozako campo

de concretracionera eroan biezen. Guri kaletik zarataka joaten behartzen gintuen: ¡Viva Franco! ¡Viva España! Gernikeko fatxak eta Guardia Zibilak humiliazio asko. Neska gazte euskaldunari, kuartelera eroaten zituen garbitzen. Nire amari multak, eta aita etorri zanién, oniño okertu zan gauzie. Herrian geratu ginan artian, gauzie gogorra izan zan!”

“Sorotik ataten zana, Guardia Zibilak eroaten ban ta errotan egoten zien kontroletan. Ogi baltza jaten gendun. 12tan egunero joan behar giñan kuartelera “papel de barba”gaz sinatuten. Herri osotik joaten giñen ta jendeak ¡Rojas! ¡Rojas! Eberdixen ipinten bien jende geixau egoteko. Koartelan galdera asko, nora ebakuazioan, nork lagundu, Gernika zeinek erre ban... Halakotan beti paliza emoten bien: alemanak esatean paliza, gorriak esatean guzurre esategatik ere. Pasialekuen eitxen zien dantzatan, Cara al Sol abestu behar gendun eskua altxeta.”

“Gure ama, peligrosa social. Ta abadiék, elizatik urtekeran udaletxera deitzen ban, ia faltan harrapetan badeu berbetan, kartzelara eroateko. “Zelan hil da zure gizona, ba? A nik ez dakit ezer, nire alabari galdetu” Ordun eroaten eben. Ta kartzelan, hasten zien aztertzen, ta etxera. Inguruan ikusten eben, ta osterabe, Guardia Zobilek osterabe.” (Mila)

“Amak diño auzokoak zirela.” (Mila)

Herriaren berreraikuntza lanak

Herriaren berreraikuntza lanak, gerra amaitu eta gero hasiko dira. Berreraikuntza ordea, ez da soilik eraikinetara mugatuko. Berreraikuntza, estrukturala izan zen. Estatu berri baten eraikuntzak, balore berrien zabalpena eskatzen zuen. Hau dela eta, euren esku zeuden baliabide guztiak erabili zituzten. Herritarren animoa altxatzearekin batera, adoktrinazio sakona martxan jarriko dute.

Orduan umea zen emakume batek, honela oroitzen du gerra osteko lehenengo urteetako bizimodua.

“Jolas bakarra trenan heltzen zanienez estaziñora joatea izaten zan ea nor zetorren ikusten. Eskerrak hamen haur pilotxue biltzen ginela ta Gernikeko ohiturek galdu barik. Aste Santuen prozeziñoak eta danak eitten genduzen ta San Roketan tiobiboak be bai egurrezkoak ta han kaja antzeko baten sartzen zan mutil bat, harek abestuten ban, ta beste batzuk sakatu ta dinbi danboan han ibiltzen giñen danok. Neskak eta mutilak batera ibiltzen giñen. Saraspeko ta Erretereriako jendea geixeau elkartute egon gara ta hartu emana mutilagaz gu beti ta orduan eurekaz beti hara ta ona ta...”



Giro soziala eta herritarren animoa altxatzeko ekimenen helburua, ez da izango jendearen zorientasuna lortzea, baizik eta normaltasun itxura ahalik eta arinen lortzea. Burutu ziren ekimenen artean garrantzitsuenetarikoa, dantzaldiena izan zen. Pasealekuan igandero dantzaldia ospatzen zen eta gernikarrak eta inguruko herrietakoak ere bertan elkartzen ziren. Harremanetarako leku nagusia bilakatu zen eta hamarkada luzeetan zehar mantenduko zen.

“Ta halantxik joan ziren urtiak... Gero denporiegaz Casas del Estado, sindikatukoak, erdiko kalekoak ein ziren ta ba hasi zan gorputze hartzen herrixe lehengo ohituretara ta orduen jantzie egoten zan agerixen. Herrikoak ta herri ingurukoak guztixok eiten gendun han dantzan herrixe bizitzen hasitxe. Gero ziñie be bai baina ha, be ba, karu edo... Ezerezkerixetarako dirue labur geratzen zan. 4tan hasten bazan 4:30tan joan ta 4 baginen bixen entradakaz sartén ta umekeri, zapokeri, realidades! Hori zan ein beharreko guztixe!”

“Herrikoak ta herri ingurukoak guztixok eiten gendun han dantzan herrixe bizitzen hasitxe. Egoten zan Gernikeko bandie ta kioskoan jotén ban, pasealekuan ta bitartien txistulariak jotén bien soltera. Denak egoten ziren domekan atsalde guztixe, ez zegoan besterik!”

“Domeketan Arratzutik oinez etorten ginen hemen jotén bienien soltien ta gero oinez etxera, ene!”

“Gernikan ezer ez zegoanez elkartu eiten zinen ta hartu emanak eiteko bide bat zan.”

Giroa normalizatzeko ekimenekin batera, Estatuaren oinarri ideologikoak ezartzeko adoktrinazio sakona burutuko da. Balore berrien zabalpenerako, eskola eta erlijioaren erabilpena bultzatuko du Erregimenak. Eskola kristau eta espainolaren bidez, ume guztien heziketan oinarritzko ideien etengabeko errepikapena burutuko dute, hauek sinéstu eta bereganatu arte. Talde erlijiosoen eta falangisten sorrerak, nagusien arteko adoktrinazioa burutuko du.

Euskal kulturarekin loturiko edozein elementuren deusezpenarekin zuten obsesioak, izenak ere aldatzera eraman zituen okupatzaileak.

“Izena kanbixeutzie, María ipiniztie!”

Berreraikuntza sozial eta morala, emakumeek burutuko duten lana izango da. Erregimen berriaren aldeko emakumeek paper nagusia bete zuten eredu sozial berri bat eraiki eta

inposatzerakoan. Estatu eredu berriaren barruan, emakumeen eredu berria ere definitu eta ezarriko dute eta *Sección Femenina* taldearen bidez, gizarteko eremu guztietara helduko dira.

Gerra Zibila galtzearen ondorioz, 40 urtetako erregimen errepresibo eta totalitario bat ezarriko da Estatuan. Emakumeen kasuan, euren gorputza mugitzeko modu kastoia ere, zehaztuko duen erregimena. Beldurrean eta ezjakintasunean murgildutako emakume asko, 40. urtetako isiltasunera kondenatuak egon dira.

ONDORIOAK

ERAKUSKETAKO TESTUEKIN BATERA PRESTATU

ANEXOAK

1. Indize Onomastikoa
2. Ikerketaren metodologia
3. Elkarriaketen gidoia
4. Bibliografia

